

MANUEL LASARTE

GORDEAN NEUZKANAK

GORDEAN NEUZKANAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

Plaza Santa María, 2

T O L O S A

MANUEL LASARTE ARRIBILLAGA

GORDEAN NEUZKANAK

AZKUE BIBLIOTEKA EUSKALTZAINDIA BILBO
1195
5 ABR. 1979
1195

AUSPOA LIBURUTEGIA
1975

ARKIBIDEA

Itzaurrea (Manuel Olaizola, Uztapide'k)	11
Eskeintza	17
BERTSOTARAKO APIZIOA	19
Jaiotetxea	21
Gurasoak	23
Plazaola'ko langilleak	25
Aia	25
Uztapide ta Basarri	28
Ernio	29
Eibar	31
Lagunak	33
Santa Ageda	34
Zaldibar	35
Amezketeta	37
BERTSOAK	41
Nere sorterrria	43
Nere gurasoak	49
Mutil koskorretako bizitza	55
Mandazai baten bizitza	61
Aia	65
Gaztetako ibillerak	71
Baso-mutillak	77
Euskalerrria	81

Munduko izaera	85
Dama eder bati	89
Alperraren bizimodua	93
Euskera	97
Udaberria	101
Udara	105
Udazkena	109
Negua	113
Maitasunaren berriak	117
Nere ofizioa	123
Orio	129
Maite bati	135
Aitona gixarajua	139
Beranduko ezkontza	143
Nere alaba zana	147
Gure etxeko berri	151
Aritz zar bat	157
Gabiltzan bideak	161
Barea ta karakola	165
Katarroa	169
Bide berria	173
Ibaiak	181
Itxua	185
Semeak aitari	189
Aitak semeari	195
Ama baten naigabeak	199
Mutilzar baten naigabeak	203
Naparroa	207
Gizon mozkor bati bere andreak	215
Maitasunaren poza	219
Ernio'ko ibillerak	223
Orio'ko arraunlariak	231
Gau eder bat	237
Oriotarrak	241
Manterola tar Luxiano	249
Ondar gañeko lore bati	255
Baserriko aiton baten penak	259
Andre alarguna	265
Gizatxar bat	269

Moja dijoan alaba	273
Bodegón Alejandro	277
Axentxio nere lagunari	283
Gabon-jaiak	287
Uztapide	293
OMENALDIA (1975-III-2)	301
Sarrera	303
Elizkizuna	304
Iduri ta kalea	309
Itzaldiak	311
Bertsolarien agurra	317
Bertso-saioa	320
Erregaliak eta nere bertsoak	321
Bazkaria	325
Franki	325
Leitza	329
Zer esan bear...?	332
Nere eskerrik beroenak	337
Iduria	341



Manuel Lasarte Arribillaga.

(Foto Arturo)

ITZAUURREA

Manuel Lasarte bertsolariak liburu berri bat egin du bertsotan, edo bertsozko liburua alegia; eta orain itzaurrea egin bear da nik egingo al detan esan didate.

—Baña nik nola egingo det ordea? Ni baño egokia-goak badaude, lan au egiteko, aukeran!

—Bai, aukeran dago zeñek egiña —esan zidaten—; baña zu beti berarekin nola ibilli zeran, orregatik pentsatu degu zuri esatea, zu iñor baño egokiago ziñakela-ta.

—Ori orrela bada, alegindu egin bear ko!

Nik Manuel Lasarte ezagutzen dedala, badira ogei ta amar bat urte. Amezketako estankoan izan zan ain zuzen, da arrezkero beti lagun izan gera.

Ogei ta amar urte erraz esaten da; baña sekulan ez degu itz bat bestea baño indartsuago egin bearrik izan alkarri. Beti bestela konpondu izan gera.

Bertsotan, berriz, nik esan bearrik ez daukat. Euskalerrian ez dira asko izango, Manuel Lasarte ezagutzen ez dutenak; eta, ura bein ikusi dutenai, ez dago ezer esan bearrik bertsoetzaz.



Uztapide ta Lasarte, Donosti'ko Trinidadeko plaza.

(Foto Charola)

Bertsoen neurria orrek bezela ibiltzen dutenak, oso gutxi izango dira, eta neurria oso gauza bearrekoa da bertsoetan. Sastre bat ere neurririk artu gabe asten bada gizon bati galtzak josten, ez du gauza onik egingo.

Neurririk gabe dabiltzan bertsolariak ere, oso nabarmenak gelditzen dira.

Neurria bakarrik ez da Lasarte'rena. Aren puntuak ere, entzutekoak dira. Aren bertsoak puntu berdiñik ez du izango, baña berdintsuak danak; belarrian atsegiña ematen duten oietakoak.

Zenbait bertsolarik belarrian min aundia ematen du; baña ori ez dago norbere gain. Bertsoetan balio ez duan arek, beste zerbaitetarako balio lezake.

Manuel Lasarte'k neurrian eta puntuetan ez du bere berdiñik, nere ustez, gaurko bertsolarietan; da ori bakarrik ez da Manueli ikusten zaiona.

Esan ere asko egiten du. Bestela, begiratu bere omenaldian arek bota zituan bertsoai: lau bertso, Leitza'ko plazan zutik egoteko modukoak, lau milla kristauren aurrean.

Ori ez da, gero, ostatuan kiloko txuleta jan, gañetik kape ederra artu ta purua pixten daneko une ura.

An lau milla kristau, danak berari begira, danak beren ongi-naia azaltzera beste egiteko gabe joanak. Gizonari orixe gogoratzea naikoa da ezerezteko.

Bañan Manuel Lasarte'rekin ez genduan orrelakorik ikusi. Lau bertso, euskerak irauten duan bitartean iraungo dutenak, antxe entzun genizkan. Bertso ederrak, bertso mamitsuak eta bertso sakonak ziran aiek.

Nik nere baitan esan nuan:

—Zer da gizon au ordea?

Danak “Gaur Manuel Lasarte'k zutik irauten badu, galanki egingo dik!” esaten ari giñan garaian, bota egin bear dira bertso oiek!

Bertso oien bukaeran, ez dakit zutik nola gelditu zan Leitza'ko pelota-lekua, ango txalo-zaparrada-rekin.

Jendeak maitetasuna azaldu zuan an, Manuel Lasarte'k merezi bezelaxe; eta txalotu ere bai, plazagizon aundi bat bezelaxe.

Makiña bat begi-ondo busti ziran an une artan. Etzan gutxiagotarako, izan ere.

Manuel plaza-gizona dala, danok dakigu. Zenbat aldiz, osasunarekin ere nolabait eta bertsoarako gogo aundirik gabe atera ote da etxetik? Baña beti bere lan bat egin arek, joaten zan lekuan.

Ni neroni asko ibillia naiz Manuel Lasarte'rekin, eta pixka bat badakit bere berri. Makiña bat plazetan txalo jo diote gustora.

Ni neroni ere pozik ibiltzen nintzan berarekin. Neretzako gizon ona da; gizon serioa ta errespetokoa; gizon apala ta atsegiña; itz batean esateko, gizon osoa.

Orain jendea irrikitzen dago liburu au ikusteko. Au ikusitakoan esango dezute, ez dala Manuel Lasarte plaza-gizona bakarrik; baita liburu ederra ere egin duala, liburu zoragarria.

Ezin zitekean gelditu au argitaratu gabe. Gaur euskerak daramakien gain-berakoarekin, ez dago Euskerriari eskeintza oberik egiterik.

Zuk, berriz, euskeraz ondo dakizu, Manuel. Leitzan ere ondo egiten da euskeraz, da Aia'n zer esanik ez.

Liburu au irakurri ta ulertu edo konprendituko ez duanik, ez da inor izango; eta au emen geldituko da, zu mundutik joaten zeranean ere.

Gizonak bizia motza degu, baña liburuak ez dira beñere iltzen. Au beti zuri ospea ematen ariko da. Makiña batek kantatuko ditu liburu onetatik bertsoak.

Au da, zu zer bertsolari izan zeran, beti, aspertu gabe, esaten ariko dana. Zuk testigu bat utzitzen dezu, zu joaten zeranerako.

Eta bakarra ez dedilla izan. Oneri beste lagun bat ere ongi etorriko litzaioke, eta astiro-astiro asi egin bear beste bat egiten.

Erosi ta asi liburu au irakurtzen, eta esango dezu, irakurle, ez dirala Leitzan'ko aiek bakarrik; emen, liburu onetan, geiago ere badirala bertso ederrak, danak banan-banako bertsoak dira-ta.

Nik Lasarte'rengatik asko itzegin nezake, baña ixildu egin bearko det. Liburu au ez da nik edertzekoa,

ta liburuak itzaurrea motza bear duala esan oi da,
ondo egiña izanda ere. Nik, berriz, ezin nezake ondo
egin, lendabiziko aldia det-eta.

Barkatu, Manuel, nere ausardia.

Manuel Olaizola
"Uztapide"

ESKEINTZA

*Ustez izkuntza garbian ditut
bertso batzuek ipiñi,
oroigarri bat utziko diot
ongi dakitela zeñi;
lenago ere nik maitasuna
izan diot edozeñi,
anai-arrebak, liburutxo au
nai nizuteke eskeñi.*

BERTSOTARAKO APIZIOA

JAIOTETXEA

Leitzarrak gera izatez. Gure gurasoak ere Leitza'n sortuak ziran, da bertan bizituak urte askoan. Nik aitonik eta amonik ez nuen ezagutu, baño aiek ere Leitza'koak izan bear zuten. Gu, kastaz, oso aurrekoz gera leitzarrak.

Gu zortzi senide giñan Franki baserrian jaioak: Tomas, Juan, Joxe Migel, Katalina, Migel Joxe, Eusebio, Joakina ta ni, Manuel, gazteena; sei anai ta bi arreba. Iru illak dira: Juan, Migel Joxe ta Joakina; bost bizi gera.

Nere aurreko arreba, zortzi urterekin iltzea egokitu zan, gaitz txar batek arrapatu zuelako; *meningitis* edo buruko gaitz orrek, gurasoak esaten zutenez.

Nik gogoan daukat nola egoten zan sillatxo batean exerita, ta nola il zan ere bai. Gañontzean gauza aundirik ez. Oso umea bainintzan: bost urte edo artean seira iritxi gabe.

Franki baserria, gure jaiotetxea, baserri aundia da bere izatez, bai etxea bera ta terrenoz ere bai.

Erreka eder bat pasatzen zaio etxearen ondoan, ta oso aberatsa. Amorraia ugari izaten zan len beintzat.

Basoak, berriz, izugarriak ditu; etxe-ataritik asi ta dena arbolez jantzia. Bada an arizti ederrik; baita gaztaindi-sail galantak ere.



Franki baserria.

*"Erreka eder bat pasatzen zaio etxearen ondoan,
ta oso aberatsa. Amorraia ugari izaten zan len
beintzat..."*

(Foto A.Z., 1975.III.3)

Leitza'ko Ibiur baserrian bertan jarri zuten eskola, gu errekararrentzakako Leitza urruti zegoalako. Ni an ibili nintzan piska batean; da guri eskola erakusten jardun zan maestra, Leitza'n gaur alkate jaun degun Jose Mari Sagastibeltza'ren arreba omen zan. Oraindik jakin berria det au oso. Orain ez nuke ezagutuko bera, baña artu ditzala nere eskerrik beroenak.

GURASOAK

Nere bertsotarako apizioa nundik zetorren ez nekiela sortu zitzaidan, oso gazterik.

Guk ama genduen kanturako gogo aundia zuena. Zenbat aldiz kantatu zituen bertso zarrak: Xenpelarrek jarritako betroiarenak, azken juiziokoak eta Balentin Berriotxoarenak? Eta ola beste asko, garai artan ibiltzen ziranak.

Ni oso gustora egoten nintzan entzuten. Gure amak lan asko izaten zuen; pameli aundia giñan da gurekin beti etzan giro izaten. Kontentu xamar zegoenean, kantari; baño errietan ere egin bear izaten zuen. Bearko gurekin!

Nik askotan esaten nion:

—Ama, bertsoak kantatu!

Ta ama batek, umeari poz ematearren, gauza asko egin ditu ta ori ere bai.

Gero ni, ari ikasitako batzuek kantatzen—da asi nintzan. Beiak larrera ere ateratzen giñuzen, da, aiek zaintzen nenbillenean, ez nintzan ixildutzen ere.

Aita nekez asiko zan, baño noizean bein kantatzen zuan arek ere. Onoko bertso erdi au, berari entzun da gogoan artu nuan:

Bazkari bat eskatu det
Urruz'ko errian,
lau leka zebiltzan aiden
uraren guardian.

Ala, poliki-poliki asi nintzan nere kasa bertso-moduko batzuek moldatzen, da, bakarrik nenbillen guzian, orixe buruan beti, ala ere ez naiz izugarria izan baña.



Franki baserria

"Basoak, berriz, izugarriak ditu; etxe-ataritik asi ta dena arbolez jantzia. Bada an arizti ederrik; baita gaztaindi-sail galantak ere."

(Foto Jabier Mujika, Leitza, 1975.III.3)

Nik esango nuke bertsolaria ez dala indarka egiten, berezkorik ez badu. Gaia bear da. Nik ikusiko nituzke pozik gazte berri batzuek.

Ez nuke esan nai, bearbada, plazan gazteegi astea ona danik; baño amasei-amazazpi urterako azaldu bear du, bertsolaria izango bada gero.

Asi bear du bere lagun-artean kantatzen, batez ere bere kirako lagunekin da bere gustoko tokietan dabillean; da, lendabizitik baldarxeago bada ere, ikusten bazaio ugaritasuna ta gogoia, txukunduko da ura. Zurgin batek ere, egur bigurria zuzentzen du, baldin badu luzean da lodian egurrak.

PLAZAOLA'KO LANGILLEAK

Gu an giñan garaian, tren txar bat ibiltzen zan. Plazaola'ko trena esaten zioten. Andoain'dik Iruñe'ra edo ola ibiltzen zan.

Gure etxetik bertan zan estazioa; an kantina bat bazan, da burni-bideko langilleak ara joaten ziran askotan.

Antxe ezagutu nuen nik Leitza'ko Martikone'ko Juan Martin bertsotan. Oso poliki moldatzen zana izango zan noski, ta bere anai Bitorio ere bai. Oso gizon atsegiñak biak ere.

Ni, mutil koskorra, bei zai-ta antxe ibiltzen nintzan, da beti kantari. Juan Martiñek somatzen ninduen, da ni toriatzen asi zan bein bertsotan.

Lenbiziko egunean ez nion erantzun; baño beti zirika ta ni ere lotsagabetu, ta gero erantzuten asi.

Gauza aundirik ez nuen nik esango, artean umea nintzan-da; baño aretxekin asi nintzan lenbiziko zerbait bertsotan.

AIA

Nik amabi urte inguru edo eskax nituen garaian, Gipuzkoa'ko Aia'ra etorri giñan bizitzera fameli osoa.

Gurasoak, ordurako pixka bat edadetuak baitziran, etzuten poz geiegi izan leku berritzearekin. Gaztea nunai jartzen da errex; baño zarra ez. Arbola zarra, lur batetik aterra ta bestera eramaten bada, igartu egiten da geienetan. Aieri ere ori gertatu zitzaizen.

An, Frankia'n, beti ganadu tartean oituak, eta gero kalean ezin etsi nunbait.

Franki'tik Aia'ra etortzerakoan, beiak eta ardiak, denak saldu bear izan giñuzen.

Bagenduen zaldi txiki bat, nik oso maite nuena. Artzek ematen zidan penik aundiena. Aitari erregutzen nion, negar egiñez, uraxe ez saltzeko beintzat.

Ixilik gelditzen zan aita, ta nik segi berriz ere lata ematen. Alako baten esan zidan aitak:

—Lasai egon: zaldirik ez da salduko-ta!

Orduantxe ez nintzan asarre. Esan zidan, etzekiela nola eraman beariko zan zaldia Aia'ra. Erantzun nion:

—Nik eramango det, aita, bidea badakit-eta!

Alaxe, bere gañean jarri ta etorri nintzan Leitza'ko Franki'tik Aia'ra, pozik. Lendik Aia'n ibiltzen bainintzan lanean.

Arreba ezkondu zan etxera ta gure koñadoa perratzailea zan, da Aia'n artu zuen perratoki bat. Ark ekartzen ninduen, berari iaguntzera. Amaika bat urte nituela asi nintzan arekin lanean.

Bizikleta batean etortzen giñan biok. Ni aurreko palankan exerita jartzen nintzan, da ark bizikletari eragin da manejatu. Astelenean, goizean, atera Franki'tik eta Aia'ra. Aste guzia an pasatzen genduen, eta larunbatean berriz Franki'ra, jaia pasatzera. Orregatik esan nion aitari bidea banekiela.

Aia'n, gure arreba-ta bizi diran etxeak, Erreruanea du oraingo izena. Gure koñadoa nola zan errerua, gu Leitza'tik etorri giñanetik, Erreruanea esanda entenitzen da Aia'n. Len ez dakit zer izen zuen etxe orrek. An dago eleizaren ondoan; ez plaza aldetik, iturri-kale aldetik.

Ama, urte gutxian bizitu zan Aia'n. Ebakuntza edo operazio txar bat egin zioten Tolosa'n, Frankia'n bizi zala, ta geroztik etzuen onik izan. Irurogei ta bat urterekin il zan, santu guzien bezperan. Urtea ez dakit orixe; ni soldadu joan



Erreruanea, Aia.

"...gu Leitza'tik etorri giñanetik, Erreruanea esanda entenitzen da Aia'n. Len ez dakit zer izen zuen etxe orrek. An dago eleizaren ondoan..."

(Foto Arturo, 1975.IV.23)

aurretik zan, emeretzi edo ogei urte inguru nituela. Eujenia zuen izena.

Aitari —Praixku zuen izena— Franki baserria etzitzaion azten. Ain ganadu-zalea zan, baserritar batek bear duen bezela. Ango mendiak, ango beiak eta ardiak, maiz gogoratzan zitzaizkion. Aien artean bizitua izan.

Gu Leitza'ra iñoiz joaten bagiñan, gu etorri-zai egoten zan; ango berriak jakin nai izaten zituen. Laixter asten zan galdezka: aren ezagun zarrak nola ote ziran edo iñor ikusi genduan da olaxe.

Aia'n ere jende ona zala, esaten zuen, beretzako; baño lagunik aundienak Leitza'n zituela, gaztetakoak eta abar. Jakiña, zarrak lagun berriak gutxi egin oi ditu, leku berrian batez ere.

Irurogei ta amabost urterekin il zan, San Inazio egun batean. Datorren San Inaziotan ogei urte. Ni Donosti'ko Loiola'n nintzan bertsoan.

Ameriketan ere bagiñuzen aita zanaren anai bat eta arreba bat, eta ama zanaren bi anai: osabak eta izeba. Nik, aietakoa bakarra ezagutu nuen: ama zanaren anai bat, Manuel izena zuena. Ni aren besoetakoa naiz.

Leitza'n oraindik baditugu lengusuak eta parienteak.

UZTAPIDE TA BASARRI

Basarri ta Uztapide lenengo Aia'n ezagutu nituen nik, mutil koskorra nintzala, Leitza'tik Aia'ra etorri berrian.

Aia'n bi alditan egin oi dira pestak: Azentziotan da San Donatotan. San Donato, Agoztuaren zazpian izaten da. Urte batean oiek joan ziran bertso tara.

Erriko plazaren erdian jarri zituzten bi sagardo-barrika aundi, utsak, eta aien gañean silla bana. Antxe exerita jardun ziran bertsoan.

Oraindik gogoan det zer jazkera eraman zuten ere soñean. Basarrik trajea zuen, eta oñetakoak espartziñak edo alpargatak. Uztapidek, galtza urdiñak eta jerse beltz bat; eta oñetan espartziñak ark ere.

Ala, goizeko saioa egin zuten da jetxi ziran barrika-

gañetatik. Gero, ango tabernetan bixitak egin zituzten, da Kanoanean bazkaldu zuten.

Bazan jendea ugari egun artan Aia'n. Etziran bakarrik ibili bertsolariak.

Ni ere an ibili nintzan urrutira gabe. Ez nuen denbora asko pasa etxe aldean bazkaltzen. Laixter nintzan aien inguruan berriz ere.

Kanoaneko jan-gela edo komedore aurrean terraza aundi bat badute, ta andik dana ikusten genduen mutil koskorak. Leioak ere zabalik, eta ederki entzuten ziran bertsoak ere.

Ala, bazkalondoan an asi ziran bertsotan; ez nik nai baño len. Saiotxo bat egin zuten, da gero berriz plazara.

Goizean bezela jarri barrika-gañetan da egin zuten arratsaldeko lana ere. Dana gai librean izaten zan orduan, da geroxeago ere bai. Gai-kontu auek oraindik ez dira zarrak.

Gero, illunabarrean, tabernetan egin zituzten bertso-saiotxo batzuek berriz ere. Nik, egun artan kantatu zituzten bertsoetatik, banituen sei bat oso-osorik gogoan jasoak. Tabernan sartzan ziran bakoitzean, aien ondoan izaten nintzan ni.

Nik egun artan zenbat estimatuko nuen gizon oiekin itz bat edo beste egitea, ezin nezake adierazi, geroztik amaika bider itzegin badegu ere. Ara nola izaten diran gauzak mundu ontan. Erri prankotan kantatuak gera geroztik alkarrekin.

ERNIO

Aia'ra bizitzera etorri ta andik denbora gutxira, len esan dedan zaldi txiki orrekin, Ernio mendira joan nintzan pintxe basora.

Ernio menditik kablea jarria zeukaten, tabloiak, egurra-ta, Asteasu'ra bialtzeko. Txirrilletan bialtzen zuten, sortak eginda. Gero, txirrillak beian gelditzen ziran, da nik aiek jaso bear berriz gora zaldi arekin.

Aiatarrak ziran baso-nagusiak. Bat zan beti mutillekin mendian ibiltzen zana: Aia'ko Elormendi, gizon kurioso



Ernio mendia.

Argazkian: Antonio Otegi Sarasola artzaia, Alperriturri'n.

(Foto A.Z., 1975.V.20)

askoa. Arekin beti mutillak kontentu; beiñere arrazoi txarrik etzuen gizona.

Ordurako pixka bat edadetua zan, da negu goğor bat egokitu zitzaigun: elurra ta jela ugari. Txabola zarrean lo alkarrekin egiten genduan.

Era ortantxe egin nuen nik batxiller gaztetan.

Baso-lagunak Aia'koak giñuzen, eta Errezil-partekoak ere bai. Aiek ere artu zuten arrastoa, ni bertsoan pixkaren bat asia ote nintzan, da asko zirikatzen ninduten. Baño nik ez nioten kantatzen beiñere. Bakarrik nenbillenean bai, baño aien aurrean ez.

EIBAR

Baso ori bukatu ta geroxeago, Zumarraga'ra joan nintzan morrontzara, Yurre-azpi baserrira.

Ganadu perratzen ere aritu nintzan. Ondarre zuen ize-na, ni lan ortan jardun nintzan etxeak.

An nenbillela, gure anai bat Eibar'en zebillen basoan ikazkintzan, da ura enteratu zan ango perratzallea mutil gazte baten billa zebillela. Abixua bialdu zidan Aia'ra etortzeko, ta berak langunduko zidala gizon orrengana.

Ala, joan giñan ba Eibarra eta itzegin ere bai. Laixter egin genduan tratua; oso errex ere, soldata txikia baitzan: urteko tratua ta illeko emezortzi duro. Berak eskeñi zuenarekin, konforme.

Gaur baño gauzak merkeagoak ziran, baño ala ere etzan arrokeri aundirik. Len ere ez nintzan lujo aundian oitua; baño jazteko erropa txar batzuek bear, da aiek erosteko aña irabazi ezin.

Era ortan joan zan lenengo urte ori. Bigarren urtean asi giñan. Nagusiak berak esan zidan soldata pixka bat jaso-ko zidala. Pozik jarri nintzan zer izango ote zan, da illeko amar pezta geiago. Ola iritxi nintzan ogei duro irabaztera illeko.

Neretzat oso fameli ona zan, da ez nintzan beiñere atrebitu soldata geiago eskatzen.



Asteasu

(Foto A.Z., 1975.IV.13)

Perratokia, Eibar'ko pillota-lekuaren ondoan genduen ta bizi-lekua edo baserria, berriz, Guipuzkoa'ko ta Bizkai'ko mugan, Ermua'ko partean. Antxe egoten ziran mikeleteak.

Olarria deitzen zaio barrio orri. Ta gu bizi giñan base-
rriari, Berdengillo.

Nagusiak, Jose Antonio zuen izena; ta andreak, Alejan-
dra. Nagusia, Aia'ko Alzola'ko Arrieta baserrikoa zan. Etxe-
koandrea, Berdengillo'n bertan jaioa.

Baserri txikia zuten; lau bat bei izaten ziran, eta txeko-
rren bat edo beste ere bai. Jaietan, aien lanak egiñez,
etxean izaten nintzan ni geienetan. Kontentu gañera: ber-
tsoak kantatu ta txistua jo.

LAGUNAK

Alaxe nenbillela, denbora joan zitzaidan, da alako baten
lagunak banituen auzoetan.

Aiek esaten asi zitzaizkidan, ia zergatik ez nintzan erro-
merira joaten.

Maltzaga'ko estaziotik Plazentzi alderako bidean asita,
bazan taberna txiki bat. An egin oi zan billera jaietan; soñu-
jolea beti izaten zan.

Arratsalde batean, joan nintzan ba lagun oiekin, da sar-
tu giñan tabernara. Diru gutxi nuen nerekin, baño umore
ederra.

Ardo pixka bat atera ta exeri giñan maian, da nere
lagun oietako bat an asi zan bertso zarrak kantatzen; baita
ni ere berriak, eta oso kontentu ibili giñan.

Gero Eibar'era etorri giñan andik gauean, da pentsatu
zuten apaldu egin bear zala. Nik esan nioten etxera joan
bear nuela, eta etzidaten utzi etxera joaten; ezta aparria
ordaintzen ere.

Ordutik asi zitzaizkidan lagunak ere ugaritzen, da etzida-
ten pakerik ematen. Geroztik, bertso batzuek kantatu ezke-
ro, gastuak libre izaten nituen, da aiek alaxe gozatzen ziran.
Guk gastu aundirik ere ez genduen izaten.

Jai-arratsaldean-edo, illuntzeko ganaduen lanak buka-
tuta, merienda-afaria egin eta áteratzen nintzan etxetik.

SANTA AGEDA

Batean pentsatu zuten, Santa eskera joan bear genduela Santa Agedatan. Or, Ermua'n da Mallabi'n ere, oitura ori izan lendik, eta bildu giñan ba kuadrilla zortzi bat lagun.

Soñu-jolerik ez genduen. Batek pandero zar bat inguratu zuen, ederki lizunduta zegoena, aspaldian asko ibili gabekoa; baño gau artan artu zituen bereak, panderista ere alakoa-ta.

Asi giñan Ermu'tik gora, Mallabi aldeko baserrietan, da ango berririk iñork jakin ez. Ura ibillera! Apaldu ere aurreko gauean egin genduan, baño gau artan ez. Iru zato ardoz beteak bagiñuzen eta eskerrak aieri.

Bagenbiltzan mendiz-mendi, ta alako batean, goizaldea zan, inguratu giñan kamio-ertzera, ta an, alkarren urrean, bi baserri zeuden. Batean eman ziguten limosna ta bestera joan giñan.

Asi giñan kantatu ta panderoa jo. Segi ta segi; etzan iñor azaltzen. Esan nioten:

—Emen ez dek iñor biziko ta alperrik ari gaituk, mutillak! Nere bertsoak ere bukatu samartu dituk!

Eta batek erantzun zidan:

—Nik atek joko dizkiat, eta ikusiko diagu iñor agertzen dan!

Ateak jo zituen, baño alperrik. Ura, beste baserrikoen bordaren bat izango zan seguru samar. Txakurrik eta ezer etzan sentitzen.

Ate ondoko estalpean orbel-pilla bat zegoen, da paretan sartutako egurrezko kako zar batean zintzilik, astokartola zar batzuek zeuden.

Gure lagun batek artu zituen kartola oiek, eta zer egingo ote zuen da joan zan kamio-bazterrera. Nunbait sasira botatzea pentsatu zuen. Egin zuen golpe indar izugarrian, da or ziak kartolekin batera bera ere.

Nunbait kartolen alanbre zarrak katiatu erropetan; zato-ardoa ere gau guzian bizkarrean ibili zuen, da danak batera beko sagastira.

Orduan gu ere inguratu giñan. Parra egiten genduen, baño gero aztu ziran parrak. Uste genduen sasia bertan

izango zala, ta izugarrizko koska egon an bera, ta malda bildurgarri bat.

Bi esku-linterna txar bagiñuzen, da aiekin asi giñan begira. Lenbizi kartolak ikusi giñuzen, da alako baten mutilla deadarka asi zan. Ura, kartolen aldean, urruti zegoen, gizajoa, sagastian bera amildua.

Batzuek bera jetxi ta atera zuten, da espaldatik edo besotik kejatzen zan. Besoa autsia zuela uste zuen berak, eta bi lagunek eldu ta ibili zuten besotik tiraka ta abar. Nunbait sartzea egokitu; gero min gutxiago zeukala esaten zigun.

Ala, Ermua ra etorri giñan, da etxera erretiratu bear zala ta poltseroak esan zuen:

—Obeko diagu, bai, etxera joan guk! Bildu ditugun diruekin etziok asko jaterik, eta diran pixkak segituan partitu bear dizkiagu!

Konforme! Egin zuten partilla ori ta amalauna pezta bakoitzarentzako.

Gure lagun min artu zuen ori, egun berean joan omen zan sendagillearengana, ta onek esan omen zion besoa aterata ibilia zeukala, baño berriz bere tokian sartua zegoala. Ia zer egin zuen; da esan omen zion nola lagunak tiraka jardun zitzaizkion besotik.

Luzaro samar egon zan ala ere lanerako gauza etzala, ta geiago etzuen esan Santa-eskera joan bear zuenik.

ZALDIBAR

Ondoren artan ezagutu nuen Lamitegi bertsolaria ere. Ermua'n bizitzen zan. *Astiasu* esaten zioten an; orkoa zan berez. Orain ez dakit *Asteasu*'koa edo *Zizurkil*'ko partekoa zan.

Larunbat-gau batean, gazte batzuek apari bat zutelata, eraman-azi ninduten Ermua'ra. Ura ere an zan, da biok jardun giñan bertsotan.

Andik denbora pixka batera ere bai berriz. Ola egin giñuzen iru edo lau bertso-saio.



Zaldibar

"...antxe kantatu nuen lenengo plazan, amazapi urte nituela."

(Foto Gez, Donosti)

Gero, denbora-alditxoren batean ez giñan alkartu, ta egun batean neretzako enkargu bat zeukala abixatu zidan, da joateko Ermua'ra.

Ala, joan nintzan da an alkartu giñan, da esan zidan Bizkaí'ko Zaldibar'tik bertsotarako deia zeukala ta biok joan bear genduela.

Nik esan nion ezetz; ni ez nintzala erri batera joateko moduko bertsolaria.

Arek orduan esan zidan errex egingo genduela ango lana, ta amar duroko bana irabaziko genduela ta etzirala txarrak.

Orduantxe jarri nintzan dudan, da azkenerako agindu nion joango nintzala.

Iritxi zan egun ori. Joan giñan da sartu giñan taberna batera, ta lenengo gosaldu egin bear zala ondo esan genion alkarri.

Gosaltzen ari giñala, erriko alkate jauna joan zitzaigun. Lamitegik ezagutzen zuan. Oso gizon jatorra ematen zuen.

Esan zigun gosaria ez ordaintzeko, ura erriaren kontura izango zala-ta; komeni zitzaiguna artzeko kezkarik gabe, ta ark abixatu arte lasai egoteko.

Ala, iritxi zan ba beraren abixu ori, ta kantari asi bear. Orduantxe ni galtzetan estu nintzan; lotsatu nintzan ederki asko, asko ez banuen ere.


Goizeko saioa egin genduen, da gero bazkaldu ta kafea; kopatxo bat edo beste artu ta arratsaldean pixka bat trebexeago.

Festa bukatu zanean, berealaxe kontuak egin bear zira-la esan ziguten, da ia zenbat bear genduen. Lamitegik esan zioten amarna duro, ta ogeina eman zizkiguten.

Ala, jakiña, antxe jaso nuen nik lenengo ogei durokoa bertsoetatik; antxe kantatu nuen lenengo plazan, amazapi urte nituela.

AMEZKETA

Andik denbora gutxira kantatu nuen Basarri ta Uztapiderekin ere, San Bartolome gau batean, Amezqueta'n.



Amezketta

*"Andik denbora gutxira kantatu nuen Basarri ta
Uztapiderekin ere, San Bartolome gau batean,
Amezketta'n."*

(Foto J. Elozegi)

Gure koñadoa Amezketa'koa zan; aren etxe koetara joana nintzan, da urrengo egunera arte an gelditu.

An ere banituen ezagunak, eta Amezketa'ko estankoa taberna ere bazuten. An geundela, sartu ziran Basarri ta Uztapide. Nere lagunak ni bertsoan jarri-azi nai, ta aiek piztu zuten sua.

Ala, bertso banaka batzuek kantatu giñuzen alkarrekin lenengo aldiz.

Gero, andik laixter aldegin nuen Eibar'tik ere. Koñadoa gaixotu zan da etxera ekarri-azi ninduten.

Bein emezortzi urte nituenerako, bertsoan dexente asi nintzan an da emen. Ortik txanpon batzuek biltzen nituen, da onak izaten ziran. Ez nuen etxean bein ere dirurik eskatzen gasturako, dirua kontuz izaten zan an ere—ta.

Orduko bertsolari danakin ibili nintzan zerbait, eta oraingoakin ere bai. Saiburu zanarekin ere jardun nintzan bein Ernani'ko Ereñozu'n; Ernani'ko Paulo bertsolaria ta irurok giñan.

Ortik aurrera gauza asko esan liteke, baño onenbestean bukatzen det lan au.



"Orduko bertsolari danakin ibili nintzan zerbait, eta oraingoakin ere bai..."

Jose Lizaso ta Lasarte Astigarraga'n, 1974'an.

(Foto Arturo)

BERTSOAK

NERE SORTERRIA

A musical score for the piece "NERE SORTERRIA". The score is written on seven staves, each beginning with a treble clef, a key signature of two sharps (F# and C#), and a 5/8 time signature. The music consists of a single melodic line with various rhythmic values, including eighth and sixteenth notes, and rests. The notation includes stems, beams, and dots for accents or slurs. The piece concludes with a double bar line and repeat dots.



Leitza

"Oialde'pean goxoki zauden
erri polit euskalduna."

(Foto A.Z. 1975.III.3)

1

Leitza, len ere zuri kantari
nago askotan jarduna,
zure alaba nuen nik ama
bulartsu azi ninduna;
zu zera gure sieska xarra
oialez jantzi zenduna,
begi umillen argia zera,
biotz ixillen laguna,
Oialde'pean goxoki zauden¹
erri polit euskalduna.

2

Zu bedeinkatzen ariko al da
zeruko Aita altsua,
orain da beti izan dezazun
bizitza zoriontsua;
ain dezu biotz errukitsua
eta euskaldun sutsua,
zure doaiak aundiak dira,
badute zeru-kutsua,
seme on asko azi dituzun
sieska maitasuntsua.

3

O, erritxoa, ez det damurik
zure sieskan aziya,
eman zenidan arnasa eta
eman zenidan biziya;
Oialde'pean bada eleiz bat
edertasunez jantziya,
bataio-bidez an artu nuen
Jaungoikoaren graziya,
Leitza, nik ere zuri zor dizut
nere izate guziya.

4

Ez dit kezkarik eman iñoiz nun
sortu nintzan esateak,
ainbesteraño poztu izan nau
Leitza'koa izateak;
an ditut txiki-denboran egin
nituen lagun maiteak,
nere biotza kontsolatzen du
aien artera joateak,
beti zabalik billatzen ditut
erri artako ateak.

5

Norabait joanik leitzarren batek
topo egiten banago,
galdera auxe egingo diot
luzaro baño lenago:
"Gure sorterri maitagarria
goxo-antzean al dago?"
Oraindik ere nere buruko
pentsamentua an dago:
norbera azitako sieskan;
leku oberik nun dago?

6

Pixka bat zartzen nuan bezela
nik sorterria gogotan,
burutik kendu eziñik nabil:
joan dan aspaldi ontan;
beti bizi naiz ango berriak
jakiteko desiotan,
berak ez luke siñistuko nik
zenbat maitasun diotan,
bixitak egin dizkiot baño
bear baño gutxiotan.

¹ Oialde Leitza'ko elizaren gañeko mendia da.



Franki baserria.

*"Oroitzen zaizkit gure Frankiak
len zituen sagastiyak,
soroetako arto, babarrun
eta beste barazkiyak..."*

(Foto: A.Z., 1975.IV.27)

7

Leitza oroitzen zait Jaunak
[argitzen
dituen egun guzitan,
arekin beti zorretan nago
bizia eman baitzitan;
nola ez baitan emen geroko
iñor gelditzen azitan,
bertso auetxek eman nai dizkat
nere urrengo bixitan,
iltzean ez det ikusiko ta
ikusiko nai det bizitan.

8

Badakit Leitza'n gure anaiak
biotz aundia dutela,
nik maite ditut eta uste det
ni ere maite nautela;
belaunikatu eta erantzi
bear nieke txapela;
ni azitako Franki zarreko
sukaldearen epela,
arrats askotan luak artzen nau
bera gogoan detela.

9

Oroitzen zaizkit gure Frankia'k
len zituen sagastiyak,
soroetako arto, babarrun
eta beste barazkiyak;
ospeletikan berdin gabeko
gaztaindi ta zugaitziyak,
eutraldeko arkaitz ondoko
erle gaixoen eztiyak...
Batek urruti bizi danean
maitatzen ditu guztiyak!

10

Basetxearen azpiko aldetik
marmaka errekatxoa,
arbola-zain da arri-tarteak
bera joaten da gaixoa;
nunai ezkalu-mordoxka eta
nunai amorrai goxoa;
danak utzita urrutiratu
giñan fameli osoa,
kostako zaigu berriz billatzen
alako paradisoa!



Franki'ko zubia.

*"Basetxearen azpiko aldetik
marmarka errekatxoa,
arbola-zain da arri-tarteak
bera joaten da gaixoa..."*

(Foto Jabier Mujika, Leitza, 1975.III.3)

NERE GURASOAK

Ama ta aita, zer gauza aundiak diran, ondo pentsatuko bagendu!

Amaren magal maitasuntsu ura da aurraren osasuna. Amaren petxutik artzen du bularra. Amak ematen dio bere odola aurrari bizigarri. Ta, bustita edo zikinduta ikusten duenean, amak jartzen du aurtxo ori, garbi-aldi bat eman da zapi txuriz aldatuta, goxo-goxo sieskan, lo paketsu bat egin dezan.

Denbora berean, aita jator ura an ari da lanean, pamelirako ogia irabazten, izerdi-patsetan askotan, bere buruaren errukirik gabe, etxeko zorionarengatik. Nekerik audienak bere aurtxoaren muxu batek aztu-arazten dizkio.

Olakoxea da gurasoaren biotza.

Nik bertso-sail au jarri nai izan diet nereai.



Pameli osoa

Ezkerretik, zutik: Manuel, Katalina, ama (+), aita (+), Tomas; exerita: Euxebio, Migel Jose (+), Jose Migel, Juan (+).



1

Naiago nuke ama
nun dedan baneki,
zerua izango al du
bere egon-toki!
Emendik juanik urte
asko deramaki,
Jauna, izazu nere
amaren erruki,
gaixo ura ez beintzat
sufritzen eduki!

2

Amak azi ninduen
bulartsu ta bero,
zapi zuriz aldatzen
nindun egunero;
pena det ez nuela
nik ordaindu gero;
Jaunaren eskuetan
zeru goian bego,
baño naiago nuke
bizirik balego.

3

Nik pentsatzen dut ama
zeruan dedana,
siñismen ori daukat
norbaitek emana;
len berea zuenak
berriz beregana
orain urte batzuek
zuen eramana
Lasarte magalean
azitako ama.

4

Biotz aundikoa da
amaren magala,
aurtxo txikiarentzat
bai goxua dala!
Badakit bestek ez dun
zerbait badaukala,
ni bizi naiz poz ori
nerekin dedala:
magal atsegin artan
aziak gerala.

5

Aurtxoak gosetzian
negar egiten du,
plakiak jo duela
adierazten du;
amaren petxutikan
bear ark mantendu,
amak asetzen du ta
naigabea kendu;
titiari tiraka
aurrak lo artzen du.

6

Bere umeak maite
ditu gurasuak,
aberatsak bezela
pobre beartsuak;
zenbat sufritzen duten
ama bulartsuak
eta aita on baten
gerri ta besuak
adierazitzeko,
nork ditu bertsuak?

7

Amak azi ninduen
bere besuetan,
ase ta berdinduaz
bular gozuetan;
gero aitari laguntzen
Franki basuetan,
artzai ibili nintzan
urte batzuetan,
lenengo antxe asi
nintzan bertsuetan.

8

Aitaren gorputz gordin
izerdiz bustiak
gugatik eman zitun
zituen guztiak;
gero're pena eman
zion gu uztiak,
artean bazituen
lagundu-ustiak,
baño eraman zuen
eriotz tristiak.

9

Naiz osasuntsua izan,
pobrea mundura
ura ere sortu zan,
askoren modura;
bazuen familiko
maitasun ardura,
gugatik nekatu zan
aita zintzo ura,
Jaungoikoak jasoko
al zuen zerura!

10

Eskol-aldetik etzan
gizon jakintsua,
euskera bakarrik zan
beraren mintzua;
eldu zitzaionean
eriotz mintsua,
betiko ixildu zan
guraso zintzua,
frutu asko emandako
arbola zaintsua.

11

Aita jatorra gendun
da umorekua,
naiago nuke banintz
arren parekua;
ogia bera baño
biotz obekua,
iñori kalte asko
egin gabekua,
Jaunak gordeko al zun
arrentzat lekua!

12

Eriotza badegu
Jaunak daki noizko,
ez dago aldegerik
geuk igesi naiz jo;
dirua eta lana
naiz izan premizko,
il bear duenari
danak azten zaizko;
ai zer itxaropena
daukagun iñoizko!

13

Franki baserritikan
Leitza'ko errire
egongo dira sei bat
kilometro bire;
eskolik etziguten
eman iñori're,
baño an azi giñan
gu zortzi senire,
beñere etzait azten da
ezta komeni're.



Franki baserria.

*"...baño an azi giñan
gu zortzi senire,
beñere etzait azten da
ez da komenire."*

(Foto A.Z., 1975.III.3)

MUTIL KOSKORRETAKO BIZITZA


Emen ikusten dira bi mutil koskor argazkian. Argazki au gu bi anaiena da.

Trajearekin jantzita ikusten dana, gure anai Eusebio da; ta onoko txuriz jantzitako txiki au, berriz, ni izango nintzan, esaten dutenez.

Au, Leitza'n ateratako argazkia izan bear du. Ez dakit zein urtetan izango zan; berak ez dauka ezer idatzirik.

Aia'n azaldu da. Gure arrebak zeukan jasota, egurrezko eta kristalezko kuadro baten sartuta.

Ta oso egoki etorri da argazki ori, gure mutil koskorretako bizitza zer izan zan adierazten duen bertso-sail onen ondoan jartzeko.



Manuel Lasarte ta bere anai Eusebio.



1

Bizitza diot mutil
koxkorretakua,
izan ez arren buru
pixkorretakua,
nola zan pobrea ta
kaxkarretakua
gu jaio giñan mendi
baxtarretakua.

2

Zortzi senide giñan
Frankia'n azirik,
zortzi aietatik gaur
bost gera bizirik;
ez degu il ziraden
aien notizirik,
urteak izan arren
mundua utzirik.



*"...sats azalezko txistu
zar bat ezpañetan,
ta illia galanta
belarri gañetan."*

(Foto A.Z., 1975.III.19)

3

Zortzi senidetatik
ni nintzan gaztena,
norbaitek jaio bear
baitzuen azkena;
badakit aita t'amak
maite giñuztena,
gugatik egun txarrak
pasa zituztena.

4

Biziyo gabe azi
giñan basarrian,
aurreko gurasuen
oitura zarrian;
batez ere neguko
illunabarrian
gaztañ erriak janaz
sukal baztarrian.

5

Gañetik artazopak
zer osagarriak,
gosaltzeko esnea
ta talo erriak;
bazkaltzeko patata,
babarrun gorriak,
janari oiek zitun
lengo basarriak.

6

Orduan jateko etzan
gaur aña biziyo,
ezta jazteko ere
ainbat ilusiyo;
jendea bizitzen zan
gaur baño etsiyo,
lujua gutxi zan da
dirua gutxiyo.

7

Orain ez degula nai
ainbat irabazten,
len ere etzan lanetik
asko aberasten;
gure txiki-denbora
beñer'etzait azten,
lujo aundirik ez gendun
mantentzen da jazten.

8

Urtean txerri on bat
iltzen zan etxian,
puska batzuk egosten
zituzten eltzian,
beste batzuek erre
zartagi beltzian,
amak partitzen zitun
da txukun-antzian.

9

Ardi zarra iltzen zan
erriko festetan,
okelik ez genduen
ikusten bestetan;
talua ta sardiña
nai zan ainbestetan,
era ortantxe azi
giñan gu gaztetan.

10

Abarka ta zakuzko
bartanak oñetan,
galtza zar da jerse zar
batzuek soñetan;
sats-azalezko txistu
zar bat ezpañetan,
ta illia galanta
belarri-gañetan.

11

Iñoiz illia mozten
zigun amak berak,
garronduan izaten
ziran eskallerak;
ez gezurtzat eduki
nere esaerak,
olakoxiak ziran
lengo izaerak.

12

Jostalluz tiragomak
da txori-zepuak,
egualdiak baziran
elur-gisekuak;
gure armak olakuak
ziran eizekuak,
istori oiek ez dira
atzo goizekuak.

MANDAZAI BATEN BIZITZA

Mandazai baten bizimodua agertzen det emen, ni mutil koskorra nintzan garaikoa. An, Leitza'ko Frankia'n bizi giñala ezagutu nuen.

Aranatz'tarra zan mandazai au; Irantxi deitzen zioten.

Mutil latza, indartsua. Altua etzan bearbada, baño sendoa ta zabala bere gorputzez. Aren kokote-aldea edo lepoa, nere moduko argal baten gerria baño lodiagoa zan.

An ibiltzen zan, Sasain menditik gure etxe ondora, Plazaola'ko estaziora, tabloi ta ikatz-karretoan, lau mando ta mula batekin.

Berak esaten zuen mandoak onak zeuzkala, baño mula ura ezin zuela domatu; pentsurik gutxiena ari ematen ziola, baño alperrik zala ala ere.

Bizkarreko kargak kentzen asterakoan, burutik bera zaku bat sartzen zion begiak tapatzeko. Mendira joandakoan, lenbizi bera kargatu ta azkena deskargatu; ta noizean bein bizkarreko galantak eman, baño ala ere mula nagusi.

Ura, elbieri ere, ostikoka jarduten zala uste det nik. Ara emen mandazaiaren bertsoak.



1

Mandazai baten bizitza ikusi
nuen nik gazte-antzetan,
amaika izerdi atera zuen
mendiko bide latzetan;
eguzki berotan bezelaxe
ekaitzaldi minkatzetan,
uda ta negu an ibili zan
tabloitan da ikatzetan.

2

Bere manduak traillan artuta
goizean bostetarako
beti listo zan tabloitarako
edo ikazketarako;
egun luzea lan egiteko
ta gauak kezketarako,
ibillera ori zartuta baño
obe da gaztetarako.

3

Gauean amarrak amaiketan
bildu oi zan apaltzera,
gero lotara lasto tartera
gorputza deskantsatzera;
goizeko ordu bietan berriz
manduak gobernatzera,
gizagaixua an ibili zan
esklabo baten antzera.

4

Lau mando eta mula batekin
ibili oi zan lanian,
pentsu gutxio ematen zion
asarratutzen zanian;
tabloiz lenbizi bera kargatu
eta ustu azkenian,
alare sasoi ederra mulak
ankak libre zeuzkanian.

5

Mula zar gaixto oiek badute
beti txarrerako griña,
golpe txarren bat emateko aski
deskuidorikan txikiña;
karga kentzian ibiltzen zuen
ostikua ta zikiña,
eskerrik asko mandazaia zan
ondo itzegiten zekiña.

6

Tabloiz beteta etortzen ziran
iru orduko bidean,
aiek kentzean mularen anakak
beti zebiltzan aidean;
euli gaixtuak kilimatutzen
zuten errape aldean,
kristaurik ezin ziteken jarri
atzean aren parean.

7

Noizean beinka artuagatik
bizkarrekuak mardulak,
ajola gutxi aren gerriak,
ta anakak etziran aulak;
atze aldean errespetua
laixter jartzen zuen mulak,
mandazaiari egiten zizkan
berak nai zituen burlak.

8

Euli gaixtuak zirikatzean
ark anakak zituen arin,
ipurtaldeko erretenian
ematen baitzioten min;
tabloiak bizkarretik kentzian
ondotik azkar aldegin,
bestela aren atze aldian
etzan izaten atsegin.

9

Mula ori zan indartsu utsa,
billaua eta kaskarra,
ta mandazaia mutil eder bat,
librea eta azkarra;
saiets aldetik egurrarekin
berotzen zion bizkarra,
atzean ura musika-otsa,
ostikua ta puzkarra!

10

Mandazai orrek mando onentzat
etzuen kariño gutxi,
baño etzuen mula askotan
ipur gañean igurtzi;
bizkarrekuak artuagatik
ark bere setari eutsi,
iñori obeditzia baño
naiago lepua autsi.

11

Mula zar oiek eskutarako
ez dira bitxo ederrak,
salbaje batek egin lezazke
uste gabeko okerrak;
perratzalliak ere askotan
ikusten zitun senperrak,
nai bezin errez etziran josten
arren anketako perrak.

12

Kendu ezkerro bizkar-arbalda
ta muturreko lazuak,
alkarrentzako ere etziran
txukunak eta gozuak;
sentitutzean mando gaixtuen
irrintzi ta perrazuak,
jakiñekuak izaten dira
mandazaien errezuak.

AIA

Aia'ri ere zerbait itzegin nai izan diot. Ain da erri euskalduna eta polita berez gure Aia jatorra.

Nik gaztetako lagunak baditut Aia'n. Ni Leitza'tik orrera etorri nintzanean, oso ondo artu ninduten, da ondo egiña ez da olain errex aztutzen; ezta aztu bear ere nere ustez.

Mendi-gaintxo batean dago gure Aia maitagarria. Orio ta Zarautz ederki ikusten dira andik, beko bi sakontxotan. Bista ederrak daude edozein lekutara ere. Itxaso zabal aundia arpegiz-arpegi dauka. Udaran batez ere zoragarria da.

Baserriaren sustrai da Aia. Soro-zelaiaren edertasunaren ispillu eta euskeraren gordeleku edo urrezko kutxa bat, itz gutxitan esanda.

Aia'ko zar jendeak txukun da garbi itzegiten du euskeraz. Entzun egin bear da ango izkuntza gaur ere.

Baliteke gaztetxoak pixka bat nastuxeago erabiltzea, baña nik auxe eskatuko nioteke gazte maitagarri oieri:

Zuen gain dago geroko etorkizuna. Zuek zerate euskeraren osasungarri. Ondo billatzen det nik beste izkuntza batzuek ikastea ere, al bada. Danetaz beartu liteke persona. Baña zuen sieskan ikasitako ori, ez beintzat aztera utzi. Ez dedilla galdu guraso zarren erakutsia, errexkeri baten bitartez beintzat. Ori izango litzake penagarria benetan.



Aia

*"Aia, artzai bat bezela zaude
bera begira goiko menditik..."*

(Foto Arturo, 1975.IV.23)

Nik, nere ezerezean, bertso batzuek jarri dizkiot Aia'ri. Ez dira gauza aundiak izango; baña emen bakoitzak al duena egin oi du, ta nik ere alaxe egin det.

Poza artuko nuke, jakingo banu bertso auek kantatzen dituztela Aia'ko gazteak.

Bertso-sail onen doñua ez du jakingo jendeak len, neronek orain berriro moldatu dedana da-ta, asiera Bilintxen *Juana Bixenta Olabe*'ren bertsoen antzekoa duala.

Bost puntuko bertsoak dira: iru puntu luzeak eta bi motzak ditu bertsoak.

Ementxe deramaki bere musika, ortarako dauden gizonak papereratua. Gertatzen dana da, paperetik ezin lezatekela danak ulertu edo konprenditu musika, eta, norbait arkitzen bada doñu ori ikasiko lukenean, etorri dedilla bildurrik gabe neregana eta pozik erakutsiko diot.

Agur, Aia!



1

Aia, artzai bat bezela zaude
bera begira goiko menditik.
Gallur batean nun da erri bat
zu bezin txukun eta politik?
Gauetz intz ederra zeru goitik
ipar-aizea itxas-aldetik
zorionaren arnas berriak
artzen dituzu nunaitik.

2

Nere bizitza guzian ezin
niteke aztu Aia'ko erriz,
eta kantari jarri-azten nau
bere izate kontsolagarritz;
erri andia da bere neurritz
mendien sallez eta baserriz,
bertan bizi dan jende guzia
euskaldun jatorra berriz.

3

Izketan asi naiz amets batek
bereganatzen ninduen gaian,
esan nai nuke urte batzuek
nola igaro nituen Aia'n;
ezagutu nun gazte-garaian
gaur dagon leku polit alaian;
aspalditxoan negon berari
bertso batzuk egin naian.

4

Pagoeta ta Andatz dituzu
aldemenetan zeure mendiak;
oien gañetik begiratzen du
berriz Ernio bikaiñ aundiak.
Gizon jatorrak, berdin andriak,
inguru ortan len zan jendiak,
azi zituen izkuntz eder au
maitatzen duten sendiak.

5

Izkuntza asko ikasteko're
batek gazterik ditu almenak;
da alegiñak garaian egin,
alperrik dira geroko penak;
Aia'n jaio ta bertan daudenak
euskeraz ongi dakite denak;
erakusteko ama ta aita
izaten dira onenak.

6

Oitura zarren gordeleku da
Aia'n edozin mendi zirkillu,
an ez baitago leku askotan
aña buru-soill erdi kaskallu.
Zertarako da ainbat ixtillu?
Aia or degu danen ixpillu;
ango aurtxoak jaio orduko
euskera dute jostallu.

7

Toki onean bizi dan batek
an bertan errex lezake etsi;
paradiso bat da zure ori
eta galtzera etzazu utzi.
Aia, etzaitetz zu bera jetxi,
goien zaude ta goiari eutsi,
edertasuna erakutsiaz
Oriyo'ri ta Zarautz'i.

8

Itxas-aldetik begiratuta
zein liteke zu bezelakorik?
Edertasunak itxutzen du bat
nola ez dezun bestelakorik.
Nun da erri bat orrelakorik,
baserri eder geiagokorik,
Aia dan bezin txunik eta
bista alaiagokorik?

9

Neguko otza iltzen danean
eguzkiaren berotasunez,
denak arritu oi dira zure
soro-zelaien edertasunez.
Beterik zaude umiltasunez,
poz eztiaren goxotasunez;
doai on oiek irixten dira
Jaunaren laguntasunez.

10

Aia, ez nuke nai iñundikan
zuri begiak betiko ixterik,
nola ez baitan maite dan ura
ez ikustea bezin tristerik.
Ortxe ibili nitzan gazterik,
etzendun egin ona besterik;
or pasatako urte on aiek
beñere ez dauzkat azterik.

11

Aia'k ez du zer kendurik eta
ez duenik ez diot erasten;
ez da errex erritxo onen
aunditasunak adierazten.
Maitasunak nau ni bero-azten,
biotza berak du aberasten;
berez sortzen dan gauza da ori,
ez da dendatik erosten.

12

Ezjakiñaren pentsamentuak
beti izaten dira urriyak;
jakintsu batek ondo emango
zituen jardín orren berriyak.
Amabi bertso ditut jarriyak,
anai-arreba maitagarriyak;
au ezta ezer, geio merezi
zuen Aia'ko erriyak.



Aia

*"Nere bizitza guzian ezin
niteke aztu Aia'ko erriz..."*

(Foto Arturo, 1975.IV.23)

GAZTETAKO IBILLERAK

Egia esan bear badegu, gure gazte-denborako ibillerak era ontan ziran.

Jai-arratsaldea, txotxeko sagardo-denboran beintzat, sagardotegietan izaten ziran bola-tokiak eta antxe pasatzen genduan, beti edo geientsuetan.

Bolan da token jokutzen genduan sagardoa, ta batzuetan galdu, beste batzuetan irabazi. Edozein eratara ere, gorabera aundirik ez. Dirurik ez baigenduen izaten, da sagardoa utsean izaten zan orduan: bost xentimon basokada ematen zuten. Ortik pentsatu.

Erriko enparantzan edo plazan, erriko txistulariak jardun-aldi bat egin oi zuten jaiero, ta, sagardotegian aspertzen giñan garaian, araxe joaten giñan.


Antxe, dantzan da saltoka batzuek eta besteak aieri begira, jolasaldi batzuek egin da etxera gosetutakoan.

An ere etzan aukera geiegirik izaten. Kaleko bizimodua beintzat extua-zan gogotik urte aietan; gerra-ondoko urteak baitziran.

Mendian ere orrekin ibiltzen zan jendea gaizki: ogipalta zan orduan, da ogirik gabe ez da asetzen persona, gaztea batez ere.

Gazteak, azitzen ari dan denboran, asko jan bear du, ta jatekorik sortu ezin bada, orduantxe gaizki. Guk eza-gutu genituan gosea ta mixeria garai artan.

Gai auri buruz jartzen det emen bertso-sail bat.



*"Jai arratsaldea, txotxeko sagardo-denboran
beintzat, sagardotegietan izaten ziran bola-tokiak,
eta antxe pasatzen genduan, beti edo geientsue-
tan."*

(Foto Arturo)



1

Ogei urteko gazte batekin
izan ditut goraberek,
lengo batean egin zizkidan
izugarritzko galderak;
jakin nai luke zer ziran gure
gaztetako ibillerak,
garai aietan izaten ziran
erromeri ta billerak.

2

Beiñ ezagutu ziñutanetik
zaitut gazte begizkua,
zure barrengo sentimentua
billatzen det egizkua;
gure izaera esango dizut
ori bada premizkua:
garai artako gure morrontza
izan zan geiegizkua.

3

Gaua laburra izaten gendun
eta eguna luzia,
iritxi giñan ezagutzera
mixeriya ta gosia;
ori da urteak juanagatik
aztutzen ez dan klasia,
alare pena bakarra daukat:
gazte denbora pasia.

4

Gaurko gazteak zarren egia
gezurtzat artutzen dute,
zuk au egingo bazenidake
asko sentituko nuke;
gazterik irten nuen basora,
artean amabi urte,
sei illabete Ernio'n pasa
nituen mantenu-truke.

5

Eskola utzita Ernio'peko
pagadi batean pintxe,
negu ekaiztsu bildurgarri bat
igaro genduen antxe;
geroztik amaika lan egin dut
baño auldu naiz oraintxe,
iduritzen zait onentxuenak
ote ditudan emantxe.

6

Etortzen zan jai-bazkalondoa
festarako prestatzeko,
sasoi ederra izan genduen
jateko ta jostatzeko;
baño askotan gertatzen zana:
dirurik ez gastatzeko;
bildur izaten giñan etxean
pezeta bat eskatzeko.

7

Duro bat gabe erromerira
pranko aldiz giñan junak,
gu're ez giñan izan ezkeron
gastatuko ez gendunak;
baño orduan pobreak ziran
famelirik geientsunak,
eskatuta're besteri nola
eman beretzat etzunak?

8

Illunabarrez bukatzen ziran
kanpoko soñu ta dantzak,
gero andikan etxe aldera
korrika-saiuak latzak;
naiz-ta pixka bat zikindu arren
espartziñak eta galtzak,
zenbait alditan astintzen ziran
bidietako lokatzak.

9

Gaur gurasoa nekatutzen da
umeak ondo azitzen,
eta askotan gauza orrekin
ez du geiegi luzitzen;
emen kristaua ez baldin bada
txiki-denboran ezitzen,
Paradisuan jarrita ere
ez da gustora bizitzen.

10

Ume batekin uts egin leike
naiz on-bearrean jardun,
iñork ez daki errexkeriak
zenbat persona galtzen dun;
garai bateko gurasoa, zuk
zorroztasuna bazendun,
bizimodua zer zan guk ere
argatik ikasi gendun.

11

Garai bateko sagardotegi
aiek datozkit gogora,
baso bakoitza etzan kostatzen
bost xentimotikan gora;
amaika bider bilduak giñan
upel zarraren ondora,
diru askorik gastatu gabe
pasatzen gendun denbora.

12

Geientsuenak itxiak dira
gure sagardotegiyak,
era berian atzendu dira
mendiko erromeriyak;
beste joera batzuek dauzka
gaurko gazteri berriyak,
garai bateko sanidadea
galdu du Euskalerriyak.



Manuel Lasarte, gaztetan.

(Foto Mora, Zarautz, 1952.IV)

BASO-MUTILLAK

Baso-mutillen bizimodua latza ta gogorra zan garai batekoa.

Len gure auzoan bazan aitona zar bat. Ark esaten zituan ederki baso-mutillen ibillerak zer ziran. Bera ondo probatua baitzan. Ogei ta amar urtean jardun omen zan basoan lanean, ondo botatzen, arbolak botatzen alegia, ta zerratan.

Len zerra-tokiak mendian bertan antolatzen zituzten, da egurra, dana eskuz ebakitzen zan.

Arbola bota, trontzarekin bear zan neurrian moztu; gero, aizkoraz gain-azalak kendu, landu eta txukundutakoan, zerra-tokira jaso ta arpanarekin ebaki tabloiak, atera bear ziran neurrikoak.

Iru zerrari jardun oi ziran arpanarekin zerretan. Bata zerra-tokian egurraren gañetik, eta bi azpitik. Ori neronek ikusi nuan ondo, Ernio'n basoan pintxe ibili nintzanean.

Gure auzoko aitona ere olaxe ibilia zerretan da ikazkintzan da danera, gixajoa.

Ta, azkenean, zartu ta eziñak jo zuenean, erretiratu, amar xentimoren etorkizunik gabe. Ola izaten ziran lengo kontuak.

Zenbat tratu txar artu ote zuen aitona orrek ainbeste urtean?

Nik emen esaten det, bertso-sail batean, lengo baso-mutillen ibillera zertsu zan gutxi gora-bera.



1

Okertutako aitona zar bat
badago gure auzuan,
arren kontuak entzuten egon
diteke egun osuan;
bere sasoiko urte geienak
pasa zituen basuan,
guk ezagutu gendun garaian
indarra franko bazuan.

Goizean izarrekin lanera
eta utzi illunduta,
egunsentiko mutil gogorra
gauerako bigunduta;
zartu danean txutik or dabil
bi makuluk lagunduta,
zertan galdetu zer pasa zaion
berorrek ezagun du-ta?

3

Berak au zion: Gaztetan egin
gendun amaika aztarka,
ondo botatzen etzan garaian
tabloi-karrio bizkarka;
ogei t'amar bat urtean ala
ibili giñan indarka,
orain iñundik etorririk ez,
guri pasa zaigu marka!

4

Lua uzteko egunsentiak
jotzen zituen kanpanak,
"Altxa, mutillak!" esaten zuen
aginpidea zeukanak;
azkar jantzirik erropa zarrak
abarkak eta bartanak,
jendeak laixter artzen zituen
aizkorak eta arpanak.

5

Kubiertazko abarka zarrak
urratu edo etenak,
itxas gañean usteldutako
batelak ziduritenak;
kallotutako biatz baldarrak
zuloz kanpora ertenak,
gaur bezelako zapata fiñik
ezagutu etzutenak.

6

Trontzaz d'aizkoraz bota arbola
ta zerra-tokira altza,
gerriarekin tabloiak egin
da adarrekin ikatza;
eten gabeko borrokan beti
bai jarduera minkatza,
baso-mutillak jornal txikia
eta bizimodu latza.

7

Batzuk aizkoraz egur txikitzen
beste batzuek zerretan,
beste aldean ikazgilleak
txondarrak su ta garretan;
betegarriak eman bear da
askotan ordu txarretan;
ogia ola irabazten zan
len gure mendi zarretan.

8

Lo egiteko kamaña zarra
txillar da egurrez betea,
elur da jelak ziran garaian
berogarri arlotea;
gazte askorik pintxea nuen
denboraldi bat botea,
ederki asko ikasi gendun
zer dan kostata jatea.



9

Jateko baba utsa askotan
ez ogi eta ez jaki,
antxe batzuek arbola bota
eta besteak ebaki,
ekaitz-denboran zaku zarren bat
arturik bizkar-estalki;
orduko bizimodua zer zan
gaurko gazteak eztaki.

10

Arrantxerua goizean garaiz
asten zan lanak errezten,
sua egin da baba-mordo bat
eltze zarrean egosten;
gero aieri begiratuaz
trontza t'arpanak zorrozten;
etzuten diru asko gastatzen
jaki goxoak erosten.

11

Gure aurreko guraso zarrak
ziran lanean laztuak,
euskal mendiak utzi zituzten
arbolez aberastuak;
pago, aritz ta gaztain gaxoak
dira betiko aztuak,
aien lurralde denak daude gaur
piñuarekin beztuak.

12

Txiki-denboran arbol ederrak
bagiñuzen ikusiyak,
gure aitonak aldatu eta
gerokuentzat utziyak;
bota dituzte ipurditikan,
galdu zaizkigu guziyak,
bereganatu du aien lurra
piñu makatz itxusiyak.

EUSKALERRIA

The image displays a musical score for the piece "Euskalerria". The score is written in G major (one sharp) and 3/4 time. It consists of ten staves of music, all in treble clef. The notation includes quarter notes, eighth notes, and rests. The piece concludes with a double bar line and a sharp sign on the final note of the tenth staff.



*"Gu lur ontara etorri giñan
Jaungoikoak bialduta..."*

(Foto Charola, Donosti)

1

Gure Euskalerra berdin gabea
nik zenbat maitatzen dedan,
mingañez ezin nezake esan
biotzak nai duen eran;
estranjeriko txori guziak
onuntza datoxti egan,
zu baño txoko politagorik
munduak eztu beregan.

2

Gizon jakintsu askok aitortu
dute ainbeste biderrez
bizi izateko au baño oberik
billatzen eztala errez;
bear bezela osatua da
itxasoz eta legorrez,
pena bat degu: Ama Euskera
bizi zaigula negarrez.

3

Askok etzekin Euskalerra
ainbat alderdi zeuzkanik,
bestek ez ditun edertasunak
guk gerekin genduzkanik;
mundu guzia korritu ez arren
segurantziak dauzkat nik
bein ikustean iñor ez dala
ontaz gustatzen eztanik.

4

Jaunak bizitzen utziko balu
batek nai duen ainbeste,
Euskalerra urte mordo bat
gustora pasa litezke;
iñora ezin liteke jua
leku obearen eske,
lur eder ontan jaiio giñanak
kontentu egon gindezke.

5

Mundu guzian ezaguna da
lur goxo onen izena,
nik eztet uste gezurra danik
esaten ari naizena;
zu zera gure bizi-lekutzat
Jaunak egin ziñuzena,
zure sieska maitagarria
da gu azi giñuzena.

6

Bolara ontan ere daukagu
atzerritarrez betia,
beti zabalik arkitzen dute
gure etxeko atia;
Euskalerra askorentzako
izan du borondatia,
beste gaitzikan ez dauka onek:
txikitxua izatia.

7

Beste bildurrik eztet nerekin:
euskera ilko zaigula;
Jaungoikoari eskatzen diot
berriz piztu dezaigula;
ikusten degu paradiso au
guretzat eman zigula,
or ezagun da euskalduneri
ongi nai izan digula.

8

Euskalerrria ari da beti
frutu berriak ematen,
jarraitzalleak bear baitira
olako lur eder baten;
ez dakit eta ni ezin asi
zerua zer dan esaten,
baño ark ere zaill izango du
au baño obea izaten.

9

Gu lur ontara etorri giñan
Jaungoikoak bialduta,
ez naiz arritzen gure izkuntza
bizi-lekua au du-ta;
Ama Euskera xartu da eta
gaixua dago aulduta,
seme on batzuk eskatzen ditu
bi besoak zabalduta.

10

Etorkizuna galduko dala
Ama erdi negarrean,
naigabeturik ikusten degu
bera jaio zan lurrean;
zelai goxoko belarra utzita
ibili gabe larrean,
aurtxo txikiak, goxa zaitezte
ama orren bularrean.

11

Aspalditxoko urteak emen
juan zaizkigu aizetan,
txiki-denboran jantzi bear da
gerorako jakintzetan;
aurtxo maiteak, joka zazute
ama xarraren itzetan,
eta orduan zuen txoriak
kantatuko du goizetan.

12

Jaunak laguntzak banatzen ditu
lurralde batzuetara,
ixuri bitza doai on oiek
gazte bulartsuetara;
aurtxo txikiak, laguntza eske
nijua ni zuetara:
bildu zaitezte magal oneko
Amaren besuetara.

MUNDUKO IZAERA

Gure izaera au ere xelebren samarra degu. Beti bada emen alkarrekin konpondu eziña.

Uste izaten degu beti ementxe izateko sortuak gerala ta izugarritzko jakinduri ta almenak ditugula, ta bitartean ezer gutxi gera.

Nik uste det, txarrerako degun griña onerako bagendu, gauza asko egin genezakela; baño ori da emen zalla.

Ikusten danez, an edo emen beti badago gerra edo txikizioa, gizonak alkar iltzen. Ori da tristea benetan: maitasunik eza. Maitasuna gauza aundia da; izan liteken gauzik ederrena.

Maitasuna dan sendi jator batean, "Gau on pasa ta bigar arte!" esanez lotaratzen da; ta, lo goxo bat egin ondoren, goizean "Egun on!" esanez jeikitzen da.

Gorrotoa, berriz, turmoi zakar bat bezela, goxotasunik gabe lotaratzen da; ta, goizean jeikitakoan, ark ez dio iñori egun onik opa. Bekozko illuna ta purrustada ugari.

Zoritzarrez, gure artean ere au dabil. Ta gai oni buruz bertso batzuek egin ditut.



1

Munduko izaeraz
nago arriturik,
itzegin nai nuke au
pixkat berriturik;
alkartasuna dago
pranko urriturik,
eta pake-zaleak
oso larriturik.

2

Alkar ankaperatzen
gera alegindu,
au etzigin Kristoren
dotriñak agindu;
gizonak gerorako
emen zer egin du?
Gorrotoan bizi ta
anima zikindu!

3

Gizon biotz-gogorra
ezin da umildu,
lurreko ondasunak
nai lituzke bildu;
ori egin ezian
ezin da trankildu;
munduko maitasuna
gorrotoak il du.

4

Gizonaren zentzuna
dago ergeldua,
lasakerien bidez
oso argaldua;
kontzientzia dauka
geiena galdua,
gorrotoa argatik
zaigu ugaldua.

5

Gixatxarrari ematen
dizka naiko lanak
beste batzuen ona
ezin eramanak;
gauza gogorrek dira
gertatzen diranak,
ezagueraren faltaz
datozkigu danak.

6

Eriotza elduko da
indar gazikua,
izan ezagatikan
gure grazikua;
munduko bizitza da
urte gutxikua,
bestekoa betiko-
tasun guzikua.

7

Jaunak bialdu giñun
mundu onetara
urte batzutarako
geure lanetara;
aize gaiztoa sortu
da gizonetara,
orrek zabaltzen gaitu
alde banetara.

8

Konfiantza galduta
or gabiltz nasketan,
ardi galduen gisan
guziok pusketan;
denbora gutxi galtzen
da alkarrizketan,
okerrik aundina au
da nere ustetan.

9

Txarrerako aukerik
bada alderatzen,
egin gabe errukiz
ez gera geratzen;
armaz eta indarrez
alkar menderatzen,
onek ez dit biotza
gutxi minberatzen.

10

Gaizki egin da lasai
dagoana barruz,
ez da asko oroitzen
inperuz ta zeruz;
otsoa ikustean
jantzita ardi-larruz,
biotz aundiko batek
sufritzen du erruz.

11

Memoria daukagu
gutxi aztertua,
au da alkar zapaltzen
ezin aspertua!
Jainkua're daukagu
oso baztertua,
ainbeste on eginda
gaizki eskertua.

12

Joan bearko degu
Jaunaren aurrera,
geure egintza danen
berri ematera;
on azkenik gabea
omen degu Bera,
nere iritzirako
beartuko gera.

DAMA EDER BATI

Amodiozko bertsoak, baditut iru edo lau sail jarriak. Lenengo jarri nituenak, *Dama eder bati* izeneko auek dira.

Naparroa'ko Urdiañ'en izan giñan bi urtetan Lazkao-Txiki ta biok bertsoan, da an izaten zan Don Jose Maria Satrustegi apaiz jauna.

Apaiz jaun orrek esan zidan, ia zergatik ez nuen bertsorik bialtzen *Príncipe de Viana* aldizkarira, Naparroa'ko semea izanda; mesedez bialtzeko bertso batzuek.

Ala, agindu nion bialduko nituela ba.

Ez nekien zer gaitan egin, da auxe pentsatu nuan: *Dama eder bati*, alai samarrak izatearren-edo.

Jose Mari Iriondo ere beti bertso-eske izaten zan, da ari eman nizkion. Loiola'ko irratitik bota zituen bertso oiek; eta esan zidan, berak papelera pasako zituela ta bialduko zizkiola Satrustegi jaunari. Ta alaxe egin zuan.¹

Aspaldi xamarreko kontua da ori. Gero, liburu kaxkar au egiten asi nintzanean, gazte batzuek jakin zutenean zer ari nintzan, etxera etorri zitzaizkidan, da orixe eskatu aiek ere: Amodio-gaietan bertso batzuek egiteko mese-

1 Príncipe de Viana'n, 1972. IX'an argitaratu ziran bertso auek.

dez; ez egiteko dena gauza serioa bakarrik, liburua egin bear banuen beintzat.

Alaxe, arrazoi eman nioten gazte oieri: danetik zerbait bearko da.

Amodiozko bertsoak zituen geienak Bilintzek ere, eta askotan entzun izan dira emen gazteen artean, da baita zarren artean ere.

Gertatzen dana da danen gustoa egiten zalla izaten dala, nere moduko ez-jakin batek beintzat.



1

Dama, askoren engañagarri
zera mundura sortua,
zureganako maitasuna dut
biotzeraño sartua;
badezu doai bereziren bat
Jaunarengandik artua,
zure arbolak merezi luke
mendu onaren txertua.

2

Eztizko abo-sapaia dezu
eta izketa apala;
kolore txuri gorri ederrak,
gañontzeko gauzak ala;
pare gabeko edertasuna
eta biotza zabala;
esan liteke zure gorputza
moldean egiña dala.

3

Dama, da zure begiarte
ainbestek maite deguna,
brillu egiten dizu arpegiak,
ain dezu azal leguna;
Jaunak ematen baldin badizu
zere gustoko laguna,
txoragarria izango da zu
ezkontzen zeran eguna.

4

Dama, ni zuri itzegin naiak
narama maitasun eztiz,
burutik eta oñetaraño
osatua zera guztiz;
zeru-gixako begi urdiñak
egiten dizute diz-diz,
esnatzen dira egunsentiko
txori politen abestiz.

5

Zu zerutikan jetxiko ziñan
santuen baten mirariz,
eta lur ontan utzi ziñuzen
beterik grazi ugariz;
zurekin ezkontzera nuala
amets egin dut bi aldiz,
zalla da baño naiago nuke
ala gertatuko balitz.

6

Esnatutzian zalla izan dut
amets ori siñistia:
zeruak duen puxkik onena
nik eskura irixtia;
ni naizelako zuk sufritzia
litzake gauza tristia,
penaz iltzeko aski nuke nik
zu negarrez ikustia.

7

Soñeko zeru-kolorekoa
jantzitakoan soñean,
bestek ez duen edertasuna
dezu gorputz lirañean;
ankaz ez dezu lurrik zapaltzen
txantxangorriak añaen,
zu oñez aixa juango ziñake
itxasoaren gañean.

8

Dama, etzaitut naigabetu nai,
etzaituz jarri bildurti,
nere biotza ezin da bizi
zuregandikan urruti;
biok ezkontzen ez bagera're
nik maiteko zaitut beti,
gorrotorikan ez artu beintzat
ainbeste nai dizun bati.

9

Dama, lo asko galtzen ari naiz
juan dan aspalditxotik,
ez ote nazu zuk arinduko
naigabe orren pixutik?
Biotza daukat kez karen miñez
da juxtuan nabil txutik,
egunen batez zu zeralako
irten bear zait petxutik.

10

Ainbeste aldiz gogoratzen naiz
zuk bein esan zidazunez
eta orduan zure begiak
zeukaten begirazunez.
Ez ote nazu noizbait beteko
pozaren alaitasunez?
Indarrez baño gauza geiago
egiten da maitasunez.

ALPERRAREN BIZIMODUA

**Alperraren bizimodua ere, ez da beti guk uste izaten degun bezin lasaia. Pasatzen ditu bere estuasunak alper-
rrak ere, pobrea bada beintzat; eta aberatsik lanean gutxi
ikusten da, berriz.**

**Bein alper bati ala entzun nion nik, erri batean baz-
kaltzen ari giñala. Bagiñan sei-zortzi bat lagun. Askotan
bezela, lan-kontuan asi giñan izketan, da alper orrek one-
la esan zigun:**

**—Orain ere lan-kontuan al zerate, mutillak? Ez al da
beste zer esanik?**

Eta gure lagun batek esan zion alper orri:

**—I bezela bizi gerala uste al dek gu, golperik egin
gabe?**

Ta alperrak erantzun zion:

**—Aizak, adiskide: ik uste baño geiago nekatzen nauk
ni, lana egin bearko dedan bildurrarekin!**

Gai ontan ere jarri ditut bertsoak.



1

Mundua osatua
dago alperretik,
lanerako ez dute
kezka ta arretik;
aukera bizarretik
eta kalparretik,
aurreratzen dijuaz
ortik bakarretik.

2

Alperrak tranparako
baldin badu erik,
ez du maite lagunik
ta adixkiderik;
ain gutxi gurazorik
eta seniderik,
ikusten badu errex
jateko biderik.

3

Alperrak beñere ez du
intentziyo fiñik,
nola maiteko dezu
gauz ori jakiñik?
Langilleak or dabilz
ler gaizto egiñik,
alper biziosuak
mantendu eziñik.

4

Alper batek errex jan
oi ditu bostenak,
kezka aundirik gabe
naiz izan bestenak.
Zer egingo du iñora
mugitzen eztenak?
Negargarritzak dira
ortik datoztenak.

5

Alperrak bizi nai du
beti besteren gain,
berak ez du egiten
beretzako alain;
jan eta edan ondo
eta jantzi apain;
kontzientzia zikin,
lepogaña bikain.

6

Alperraren griñikan
ez da mudatuko,
ni ez nitzake ortan
asko dudatuko;
gorputzikan lanean
ez du urratuko,
pentsatzen nekatzen da
zein izurratuko.

7

Alperrari gustatzen
zaio ondo jatea,
gero dibertitzeko
lekura juatea;
poltsa ez baldin badu
itxuraz betea,
uste ez dan lekuan
eingo du kaltea.

8

Alperraren gorputza
naiz egon geldirik,
ark ere ez du beti
gustoko aldirik;
batzutan ibiltzen da
erdi kixkalirik,
bere bizio txarra
ezin estalirik.

9

Alperrak bizi nai du
ondo ta errezki,
ta ori pentsatzia
beti ez da aski;
emen alper-listuak
tranpa asko dakizki,
tontua baldin bada
ibiltzen da gaizki.

10

Dirurik ez dunean
azkar minkazten da,
nunai azio txarrak
egiten asten da;
alper tontua beti
narrats ikusten da,
lan eginda bizitzen
ez du ikasten-da.

11

Alperra arrastuan
ezin leike sartu,
obe zan kasta ori
ez balitza sortu;
kalterako egin da
emen ainbat txertu:
txarrrik mejoratu ez
eta onak txartu.

12

Ustez bere burua
juzgatzen du abil,
eta iñork ikusi
nai ezik or dabil;
lan pixka bat egiñez
ni obeki nabil,
alperra izan baño
naiago nuke il.

EUSKERA

A musical score for the song 'EUSKERA'. The score is written on six staves, each beginning with a treble clef and a key signature of one flat (B-flat). The first staff includes a 3/8 time signature. The music consists of a single melodic line with various note values including quarter, eighth, and sixteenth notes, as well as rests and slurs. The notation is clean and professional, typical of a published sheet music score.



*"Ni euskalduna naiz ta
kontentu naiz oso,
berari laguntzeko
nago animoso..."*

(Foto Arturo)

1

Ni euskalduna naiz ta
kontentu naiz oso,
berari laguntzeko
nago animoso;
eskeñiko dizkiot
zortzi amar bertso,
aur txikiak sieskan
lua bezin gozo.

2

Euskera da zerua
bezelakotxua,
andik lurrera egan
jetxi zan uxua;
aingerutxuak bezin
garbi ta goxua,
naigabez beterikan
bizi da gaixua.

3

Ikusirikan ainbat
saltsa eta kuzin,
zu maite zaitugunak
ez gera edozin;
txoria udaberrian
egoten dan bezin
gustora arkitzen naiz,
gustorago ezin.

4

Neri maitetasunak
norbaitek badizkit,
euskeraren doaiak
oparo datozkit;
ama maitatzearren
Jaunak eman dizkit,
ilko nintzake auek
kenduko balizkit.

5

Ainbat neke eginda
gu ezin jasorik,
ama zarrak ez dauka
egun bat gozorik;
ume gaiztoak eztu
maite gurasorik,
damutuko zaiote,
ez egin kasorik!

6

Jesus bezela zaude
josirikan iltzez,
seme gaizto batzuen
erruz edo gaitzez.
"Maite zaitugu!" esaten
dizutenak itzez,
zuri ateak ixten
ari dira giltzez.

7

Pena eman dit zuri
ateak ixteak,
kanpo aldetik sortu
zaigun ekaizteak;
zuretzat zeudenikan
ain egun tristeak
ez dakien batentzat
lan du siñisteak.

8

Lorerik ederrena
arantza tartean,
bizirik iraun nairik
al dezun artean;
malkoak dituzula
begiak betean,
iya illean zaude
illunpe batean.

9

Biotz gogorak eta
bekozko illunak
ikusi ditu gure
lore usaidunak;
asko izanagatik
kontra ditugunak,
oraindik bagera zu
maite zaitugunak!

10

Anaiak alkarrendik
betiko banatu
giñan, da ezin gera
amarenganatu;
mintzaera garbi au
ikustea mutu,
askok ori nai dute
naiz gero damutu.

UDABERRIA

The image displays a musical score for the piece "UDABERRIA". The score is written in G major (one sharp) and 2/4 time. It consists of eight staves of music, all in treble clef. The melody is characterized by eighth and quarter notes, with some dotted rhythms. The key signature is G major, and the time signature is 2/4. The music is presented in a single system across eight staves.



*Udaberria, Franki baserrian.
"Udaberriak berritzen ditu
landare danen bizitzak..."*

(Foto A.Z.)

1

Gaur goizaldean zurekin amets
egin det, udaberria,
zure zai dago kale txuloa,
zure zai da baserria;
zu zera illunen argitzallea,
gaixuen sendagarria,
frutu berriak ugaritzeko
Jaun Zerukuak jarria.

2

O, udaberri maitagarria,
zurekin nai nuke mintza,
zu ikustean gogoratzen zait
erle gaixuen bizitza;
zu loretsua baldin bazera
aien poza eta ditxa,
lana eginda bildu oi dute
urte guziko kositxa.

3

Udaberriak ugaritzen du
ludiaren balorea,
gauz bakoitzari ematen dio
jantzia ta kolorea;
loreak udaberria maite,
erleak berriz lorea,
bien gustua egin ezkeru
zer da zorion obea?

4

Udaberria badatorkigu,
auxe eskatzen nuen nik,
bestarik ez det ezertxo orrek
ainbat pozten naguenik;
ta ez det uste baten aboan
mingañik badaguenik,
udaberriko edertasuna
zer dan esango duenik.

5

Udaberriak berritzen ditu
landare danen bizitzak,
lendabiziko loratzen ditu
sagatsak eta urritzak;
aien ondoren frut'arbola ta
paguak eta aritzak,
udaberria, berdingabetzat
dauzkat nik zure langintzak.

6

Emen ondasun asko banatzen
du udaberri aundiak,
edertzen ditu soro zelaiak
jardiñak eta mendiak;
alaitzen ditu etxietako
guraso eta sendiak,
udaberria asko maite du
Euskalerriko jendiak.

7

Udaberriak berekin badu
doai bat apartekua,
iritzi au da aspaldikoa
euskaldunen artekoa;
garairik onentxuena zein dan
esango det urtekua:
kukua izketan asten danetik
ixildu bitartekua.

8

Itz bat bakarra egitekotan
polita zuen asmatu,
bere orrekin egunsentian
askotan gaitu esnatu;
denbora askuan nola egoten
baitan ixil eta mutu,
udaberrian arbol gañetik
pozik esaten du: Ku ku!

9

Kelmen gutxiko ego tristeak
eta lumaje arruak,
naigabe oiek izaten dira
negu txarraren erruak;
kantatzeko're eztu gogorik
indar gabeko barruak,
argatik daude ixil mendiko
xoxo ta birigarruak.

10

Aspalditxoan ez degu entzun
birigarruan txisturik,
negu beltzean ezin du kendu
gaixuak bere tristurik;
barrengo espiritua dauka
iñola ezin pizturik,
udaberriak alaituko du,
egon ori siñisturik.

11

Udaberriko egun alaiak
irixten zaizkigunean,
eguzki-printzak leio-kristalak
ikuitzen dizkigunean,
esnatzen gera txorien kantak
entzuten ditugunean;
ura atsegin zoragarria
gure biotz bigunean!

12

Negu illunak eziña eta
tristura ugaritu du,
urtez aurrera baguaz eta
orrek bildurtzen gaitu gu;
udaberria, zure laguntzak
bearrezkuak ditugu,
etorri, beraz, goxo-goxo ta
ongi artuko zaitugu.

UDARA

A musical score for the piece 'UDARA'. The score is written on ten staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/8 time signature. The music consists of a single melodic line. The first staff starts with a quarter rest, followed by a sequence of eighth and quarter notes. The second staff continues the melody with eighth and quarter notes, ending with a quarter rest. The third staff begins with a quarter rest, followed by eighth and quarter notes. The fourth staff continues with eighth and quarter notes, ending with a quarter rest. The fifth staff starts with a quarter rest, followed by eighth and quarter notes. The sixth staff continues with eighth and quarter notes, ending with a quarter rest. The seventh staff begins with a quarter rest, followed by eighth and quarter notes. The eighth staff continues with eighth and quarter notes, ending with a quarter rest. The ninth staff starts with a quarter rest, followed by eighth and quarter notes. The tenth staff continues with eighth and quarter notes, ending with a quarter rest. The piece concludes with a double bar line.



*"...artzai guziak zu nai zaituzte
Aralarr'en da Urbia'n."*

(Illunabarra, Aralar'ko Aizpearro'n, 1941. VI. 23)

(Foto Jesus Elozegi, Tolosa)

1

Udaberriak aldegin digu,
ark eman ditu bereak;
udara, egin zera guraso,
denak dituzu zeureak;
zugandik izan ditzagun gero
pozgarrizko ondoreak,
zaindu itzazu udaberriak
utzitako landareak.

2

Udaberria juanda udaran
sartu gera segituan,
lurralde ontan zure laguntzak
bearrezko genituan;
zeuk ez dakizu udaberriak
zu zenbat maite zaituan,
juaterako ondasun danak
zuretzat utzi zituan.

3

Ene, udara, beraz zuretzat
badago eginkizuna,
argia izan bear dezu zuk,
ez tristea ta lizuna;
udaberriak badakizu aur
asko utzi dizkizuna,
oiek azi ta mantentzia da
zuk egin bear dezuna.

4

Udaberriak mendiak jarri
dizkizu jantzi berdian,
ene, udara, zuk badakizu
alde ontan zer lur dian;
agertu zazu biotz on ori
eduki gabe gordian,
artzai guziak zu nai zaituzte
Aralarr'en da Urbia'n.

5

Artalde aundia mendian duen
artzai zarraren biotza
udara-giro ederrak ainbat
zerk ote lezake goza?
Txilin-txilinka entzuten badu
larrean txintxarri-otsa,
bidean gora dijoanean
ura artzaiaren poza!

6

Bere ardiak ongi dirala
ikusten duen orduan,
artzaia laixter exeriko da
arbolen baten onduan;
udarak ondo laguntzen badu
au izan beti goguan:
mendiko artzaia bizitzen dala
errege baten moduan.

7

Udara maite ez duen gutxi
dago mundu zabalean,
zoragarria da mendi-puntan
berdin itxas-egalean;
ene, udara, auxe eskatzen
dizut nik egiñalean:
goza itzazu baserrian da
goza gaitzazu kalean.

8

Udara maite, al bait atzendu
mendiko laño itsuak,
eta arindu euri epelez
turmoi-adarren pisuak;
al dan guzian argitu egun
goxo ta eguzkitsuak,
doai orixe eman daizula
gure Jaun errukitsuak.

9

Udarak egun luzeak ditu,
danerako du astiya,
gauean intza bearrezko da
ta egunez eguzkiya;
kanpua sarri izan dedilla
euri epelez bustiya,
eta orduan eskuratuko
degu bear dan guztiya.

10

Landaretxoak euri epela
izan arren premizkua,
iñoiz udaran etorri oi da
turmoi-jasa arrizkua;
orrek duena ondasun danak
txikitzeko arrixkua,
kanpua mardul daganian
gauza penagarritzua.

11

Arri-bildurra baserritarrak
emen arrazoi aundiz-tu¹,
landare asko iltzen ditu ta
zaurituak ezin piztu;
frutaz beteta dauden arbolak
txikitu eta zumiztu,
zer kalte egiten duen ez leike
ikusit gabe siñistu.

12

Kanpo-giruak komeni dira
ezeak eta beratzen,
berdura ona ganaduentzat
ta nunai belar zuatzak;
arto, babarron eta jeneroz
beteak soro baratzak,
oiek guziak berekin bear
ditu uda aberatsak.

(1) aundiz-tu = aundiz du.

UDAZKENA

A musical score for the piece 'UDAZKENA'. The score is written on eight staves, each beginning with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The first staff includes a 3/8 time signature. The music consists of a single melodic line with various rhythmic values, including eighth and sixteenth notes, and rests. The notation is clean and professional, typical of a printed musical score.

1

Udazkenari zerbait esan nai
diot goxo eta bigun,
gure barrengo ametsak ia
egi biurtzen dizkigun;
ikusten degu urte auetan
nolatan portatzen zaigun,
ondo itzegin bear diogu
beti lagundu dezaigun.

2

Udazkenean ibiltzen gera
egoaize epeletan,
otzikan gabe sukaldietan,
otzikan gabe geletan;
basarritarrak batzuk garotan
da besteak orbeletan,
aize-denboran aprobetxatzen
dira mendi ospeletan.

3

Begira zazu, anai maitea,
kanpuan zabiltzanean,
egoaizeak arbol-orriak
egan derabiltzanean,
sagar gaixuak arbol gañetik
bera dijuaztenean;
adierazten digute sartu
gerala udazkenean.

4

Udazkeneko egoaizea
arto-zuztarrak legortzen
dabillenean, alea ari da
bere gorputza gogortzen;
igartu eta asten badira
buruak bera erortzen,
sartu etxera eta ez dira
geroko gaizki etortzen.

5

Emen udaran egin bear du
negurako bear dunak,
nekazariak uste orretan
dira lanean jardunak;
o, udazkena, zuk goxo eldu
lurretako babarrunak,
udaran ez badituzte moztu
beintzat bare adardunak.

6

Gaur egunean diru gutxikin
ez leike jua dendara,
kanpotik ez da ekartzen errex,
etxean egin al bada;
udazkeneko giro onetan
jeneroz bete ganbara,
gero neguan bear danean
billatuko da an bada.

7

Egoaizea txistuka dabil,
ori ezin da ixildu;
emen kositxak eldu artean
orrek aldegiten zail du;
basarritarrak, zuentzat dira
ta al dan guzia bildu,
orain nekatu ta gerorako
bizimodua trankildu.

8

Udazken-giro epel goxoa
da alaitzen naguana,
ikusten baidet kanpo guzia
orren premiz daguana;
ez da gezurra gure aitonak
esan izandu zuana:
Gizonak beti jan bearko dik
lurrak ematen duana!

9

Udazken-giro eder aietan
kanpoaren irriparrak
goxoak dira, eta aberats
ditugu basarritarrak;
intxaurrak eta gaztañak ere
jateko ez dira txarrak,
oso maiteak zituzten gure
aurreko guraso zarrak.

10


Frutari arbolean zuztarra
igartu ta kixkurtzean,
egoaizeak astindu eta
goitik bera ixurtzean,
sagarra bera ganbaran jaso
ta azala zimurtzean,
ai zer jateko goxoa oi dan
oritu ta xamurtzean.

11

Udazkenean bete ganbarak
jenero goxo xamurrez,
gero neguan arkitu gabe
zer janik ez ta bildurrez;
emen gizonak ez du sabela
engañatuko gezurrez,
da ez dan gauzik ez da erosten
ez zillarrez da ez urrez.

12

Udazkenean ostroak daude
igartu eta zarturik,
nai dun tokira badaramazki
egoaizeak arturik;
gizona ere lurperatzen da
kaja batean sarturik,
or ezagun da ezer ez dala
emen betiko sorturik.



Udazkena

*"Basarritarrak batzuk garotan
da besteak orbeletan..."*

(Foto Arturo)

NEGUA

Musical score for 'NEGUA' in G major (two sharps) and 2/4 time. The score consists of five staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of two sharps (F# and C#), and a 2/4 time signature. The melody is written in a single line. The second staff continues the melody. The third staff continues the melody. The fourth staff continues the melody. The fifth staff continues the melody and ends with a double bar line.

1

Negua, zuk biotza
indartsu daukazu,
udaberrira arte
nork errenditu zu?
Arbola zar guziak
igartzen dituzu,
kristauak ere oso
bildurtzen gaituzu.

2

Baserritan ez daude
zurekin aztuak,
sorotako arbiak
dira izoztuak;
belar onduak janak,
ganbarak ustuak,
Naparruan dirua
eingo du lastuak.

3

Bildurrak arrapatzen
gaitu negurako,
eguna pixkat mozten
asi ordurako;
alare ez dizu zuri
asko ardurako,
ai zer laguntzallea
bizimodurako!

4

Zutaz esaten ditu
gauza itxusiyak
kanpuan lana egin
bear dun guziyak;
txarkeriak dauzkazu
gutzat bereziyak,
ta ordañak dituzu
ondo mereziyak.

5

Askok esaten dizu:
"Bistatikan jun ai!"
Alare zuk pegatu
zer galdua dunai;
petralkeria dezu
beti eta nunai,
artzai batek etzaitu
begiz ikusi nai.

6

Negua, beti bizi
zera gorrotuan,
emen gaude debillak
iya larrutuan;
ez dakizu bildurra
zenbat zarrek duan,
nola ibiltzen zeran
oien karretuan.

7

Naigabe asko dira
zugandik sortuak:
etxeko aitona ta
amona zartuak
arkitzen dira zuri
bildurra artuak,
amaika badituzu
lurpean sartuak.

8

Elurrez eta jelaz
zera ondo jantziya,
aintziarra aieri
iñoiz erantsiya;
noiznai aize otza ta
euri-erauntsiya,
danak guk artu bear,
au penitentziya!

9

Aize otz orrek ere
indar pranko badu,
utsa litzake emen
falta egingo balu;
ori lurperatzia
balitz nere kargu,
enterratuko nuke
zortzi egun barru!

10


Amaika galduko da
ori galtzerako,
orren biotz gogorra
urrikaltzerako;
zatoan ardua ta
zeziña eltzerako
dira onak etxean
negu beltzerako.

11

Errexa da zarrari
odolak oztutzen,
ura ekaitzak ez du
geiegi poztutzen;
negua asten bada
adarrak moztutzen,
arbol zarra're ez da
berriro piztutzen.

12

Etzaitezte arritu
nere pentsamentuz,
zartu naiz ta jantzia
nago eskarmentuz;
negua zer dan orra
nik azaldu kantuz,
obe degu orrekin
ibiltzia kontuz.



Negua, Franki baserrian.

*"Elurrez eta jelaz
zera ondo jantziya..."*

(Foto A.Z.)

MAITASUNAREN BERRIAK

A musical score for the piece 'MAITASUNAREN BERRIAK'. The score is written on seven staves in a single system. The key signature is one sharp (F#), and the time signature is 2/4. The music is written in a single melodic line on a treble clef. The notation includes various note values (quarter, eighth, and sixteenth notes), rests, and accidentals (sharps). The piece concludes with a double bar line and repeat dots.



*"Maitetasunak alkarrengana
persona asko biltzen du..."*

*(Lengo postal zar batetik: "Edición G.G.Galarza,
San Sebastián-Cliché Gonzalez". Fermin
Leizaola'ren artxiboa, Donosti.)*

1

Al baldin banu eman nai ditut
maitasunaren berriak:
batzutan oso goxoak dira,
urrengoan mingarriak;
iñoiz tristurak ekartzen ditu
maitetasun geiegiak,
berotzen ditu biotzak eta
itxutzen ditu begiak.

2

Maitetasunak alkarrengana
persona asko biltzen du,
baño zenbaitek itz ori sarri
pikardiz erabiltzen du;
fede oneko kristauak berriz
gauza benetan artzen du,
gero askotan bere burua
leku txarrean jartzen du.

3

O, maitasuna, sarritan nabil
zurekin amets egiñez,
bakoitzak zure doai on ori
bear genduke gutxiñez;
danen barruan etzera sartzen,
ori sentitzen det ziñez,
argatik gabiltz emen batzuek
penak arindu eziñez.

4

Pozaldi batek iñoiz ekarri
lezazke ondoren miñak,
kristau guzien sentimentuak
nola ez diran berdiñak;
nik badakizkit negarraldiak
bero askoak egiñak,
oiek askotan izaten dira
maitasunak eragiñak.

5

Alare ez naiz maitasunaren
aurka izketan asiko,
bera ez bada gu mundu ontan
ez gera ondo biziko;
bearrezko gauz asko da baño
ori da lendabiziko,
maitasun gabe guraso batek
ez luke aurrik aziko.

6

Maitetasuna biotz garbian
goxo ari da lanean,
etsai gaiztuen tentaziuak
urruti dabiltzanean;
Jesusek ori eskatu zigun
gugatikan il zanean,
artaz ez gera asko oroitzen
geu ondo gabiltzanean.

7

Maltzurkerian agertzen degu
maitasunaren itxura,
argatik dabiltz gaurko munduan
gauzak dabiltzan modura;
maitasun fiña bein sartzen bada
biotz on baten barrura,
sufrituko du bizitzen baño
an ibiliko da ura.

8

Uste gabeen ikusten badu
berak desio zuena,
ura atsegin zoragarria
batek sentitzen duena!
Maitasuna, zuk betetzen dezu
utsik daguen barrena,
zu zera Jaunak mundura egin
zuen gauzik ederrena.

9

Naigabien bat sortzen danean
norbait minberatzekua,
maitasunaren indarra degu
ori menderatzekua;
kristaua berez jaiotzen bada
barrunbe beratzekua,
izan liteke pobrea baño
biotz aberatsekua.

10

Iñoiz baditu arantza miñak,
urrengo lore freskuak,
poz berri batek argitzen ditu
illun zeuden bekozkuak;
txikietara bildu oi dira
persona aundi askuak,
iñork ez daki zer balio dun
maitasun egiazkuak.

11

Zuk maitatu nai zendukianak
berak ez bazaitu maite,
zure biotzak sufrituko du,
or seguru egon zaite;
baño siñistu saritzallea
izango dala Norbait e,
maitasun orrek bere ordaña
arkituko du nonbait e.

12

Maitasun-miñak ez du izaten
gaitz askok ainbat oñaze,
orrek barruan lana xuabe
egiten du iñolaz e;
zuaz mediku batengana ta
ez dizu billatzen eze,
tristura orren sendagillea
maitasuna da berriz e.

13

O, maitasuna, etorri zaitez
negartiak ixiltzera,
zapuzaldian bizi diranak
alkarregana biltzera,
zu zeralako sufritzen duen
biotz ona trunkiltzera;
bestela ura penaren miñak
eramango du iltzera.

14

Pasatzen ditu ordu tristeak
eta naigabez beteak,
lanaren bidez ogia biltzen
duen guraso merkeak;
etxean ongi nai badiote,
maitasunaren pakeak
aztu-arazten dizkio bere
bizimoduko nekeak.



*"maitasun gabe guraso batek
ez luke aurrik aziko."*

(Foto Arturo, 1975.IV.23)

NERE OFIZIOA

**Errero-lana —sutako lana esan nai nuke onekin—
negurako izaten da onena. Ola jela-egualdiak eta elur-
egualdiak, oiek izaten dira atsegiñak sutan lana egiteko.**

**Aitzurak eta laiak eta are-ortzak, besabe-ortzak,
asto-perrak, zaldi-perrak, oietakoak asko egiñak gera gu.
Idientzako ta beientzako perrak ere eskuz egin izan giñu-
zen. Egur lantzeko zurgiñentzako trabesak ere bai.**

**Ta dana galdan, sutan. Len etzan, orain bezela, sol-
daduraz eta ola lanik egiten.**

**Amaika izerdi badegu ateria sutegi-lanean. Amaika
bero-aldi badegu artua.**

Emen esaten det zerbait bertso-sail batean.



Lasarte ta bere semea.

*"Olizioa artu
nuen errerotza..."*

(Foto Arturo, 1975.IV.23)



1

Ofizioa artu
nuen errerotza,
gorputza galtzen duen
lanaren morrontza;
orain lepo mia ta
kolore berdotza,
bistan azaltzeko're
ematen dit lotsa.

2

Goizean deitu gabe
sari naiz jeikiya,
bestela nagusiyak
ura bekokiya!
Txintxo ibili arren
sari aitzakiya,
arrazoi txar asko ta
soldata txikiya.

3

Errietan asten zan
nekez ixiltzeko,
esanaz berarekin
kontuz ibiltzeko;
lua're uzten zuen
txanponak biltzeko,
pobre bizi bear da
aberats iltzeko.

4

Egoskortzen zanean
ark su baztarretik,
aukera izaten zun
arrazoi txarretik;
beñ auxe esan nion:
"Aldegiñ aurretik!
Ez dezu geio jango
nere bizkarretik!"

5

Sua pizten genduen
guk goizetikan goiz,
bostak aldean edo
lentxiago iñoiz;
bazter danak beteak
atxur zarrez ta laiz,
aiek altzairatutzen
jarduten giñan maiz.

6

Sua indartzen zuen
aizezko aspuak,
domatzen genituen
burni zaill askuak;
iñoiz erre izandu
giñuzen eskuak,
aiek izaten ziran
momentu estuak.

7

Burniari beroan
sortzen zaio salda,
uraxen da alkarri
erasteko galda;
artzen bazaio bere
tamaña edo galga,
bera bezin eraskin
segururik al da?

8

Nik lengo gertaerak
nai nituzke esan,
erriak erreruen
berri jakin dezan;
orduan gaur bezela
makinarik etzan,
erreminta guzia
eskuz egiten zan.

9

Atxur da lai berriak
tenple latzekuak,
da beste tresna asko
lurrak lantzekuak,
aizkora ta trabesak
zurgिñentzakuak,
egin izan giñuzen
itxurantzekuak.

10

Lanak ditu burniak
alkarri erasten,
iñoiz uskeri batek
daki galerazten;
ortan ere ez bada
gazterikan asten,
zailla da errerotzan
itxuraz ikasten.

11

Neguan diranean
elur da izotzak,
goxotasunik geien
oi du errerotzak;
zorrotzen besabeak
edo areortzak,
laixter kentzen giñuzen
gorputzeko otzak.

12


Otzik ez da sentitzen
errero-lanean,
burni beroa gogor
jo bear danean;
txinpartak kolkotikan
sartzen diranean,
azkurea izaten da
tripa barrenean.

13

Ganadu-perra ere
egiten zan eskuz,
oroitzen naiz orduko
jarduera estuz;
lanerako genduen
borondate prestuz,
bolaratan egoten
naiz ezin sinistuz.

14

Xelebrea izan da
gure jarduera:
aztarrika batean
goizetik gauera;
Kristorenak eta bi
ikusiak gera,
deskantsatuko al naiz
emendik aurrera!



Oriónko goiko kalea.

(Foto Arturo, 1975.IV.23)

ORIO

Ogei ta bat urte deramazkit Orio'ko erri polit ontan bizitzen. Nere seme-alabak ere ementxe jaio ta aziak dira: Orio'n.

Oso biotz oneko jendea da. Ni oneraxe etorri nintzan bizimodu-billa, ta ondo artu ninduten.


Emen asi nintzan, goiko kaleko ikullu zar batean sutegi txiki bat antolatuta, errerotza-lanean; da segituan asi ziran neri lana ematen.

Arrantzale jendearentzat lan asko egiten nuan: itxasoko trasteria ta abar. Ta baserritarrentzat ere bai. Olaxe egin det bizimodua aurrera eramateko modua.

Neretzako erri txarrik ez da izan. Emen ere, len esan dedan bezela, beso zabalik artu ninduten, kanpotik etorria izan arren, oriotar jator atsegiñak.

Gauza pozgarria da ori benetan, ni etorri nintzan bezela lan egin da ogia irabazi nai duanarentzako.

Esker beroak eman bearrean arkitzen naiz erri maitagarri oni. Nik Orio'n lagun jator asko izan det.



Orio

*"Euskalerriak txoko polit asko du, ta Orio da aieta-
ko bat, nere ustez. Badu ibai eder bat; itxasoa erri-
raño sartzen da..."*

(Foto Iñaki Agirre, Donosti)

Euskalerrriak txoko polit asko du, ta Orio da aietako bat, nere ustez.

Badu ibai eder bat; itxasoa erriraño sartzen da, ta plaia edo ondartza ere bertan dauka.

Udaran kanpoko jende asko etortzen da Orio'ra. Asko gustatzen zaio txoko au kanpoko jendeari nunbait.

Pameli osoak etortzen dira eguna pasatzera emen, Goierri alde ta oietatik ere, beren kotxeetan eguneko jatekoak artuta, jai-egunetan beintzat.

Ondartza inguruan terreno-sail aundiak dauzka; ordeka eder askoak. Umeak jolasteko-ta, patxara ederreko lekuak dira, komeni danean uretan busti-aldi batzuk artuaz ta abar.

Olakoxea da Orio'ko erri polit eta paketsu au.
Ta nik bertsoak jarri dizkiot.



1

Juan dan ogei urtean
bizi naiz Orio'n,
emen dut atsegiña,
bertan dut zorion;
zuk nere premiari
lagundu zenion,
ta orri esker on bat
nik beti zor nion.

2

Orio, zu ordaintzen
badakit zail dala,
neretzat izan dezu
ain biotz leiala;
serbitu nai zinduzket
iñundik al dala,
Jaun altsuak ortantxe
lagun dezaidala.

3

Nere biotzari gaur
zumua dariyo,
egunsentian asi
zan bertso-jariyo;
aurrak bularra ainbat
maite det Oriyo,
bertan bizi naiz eta
ez da misteriyo.

4

Kontentu arkitzen naiz
Orio maitean,
ez dakit obetogo
nun bizi leikean,
errio-baztarreko
uri politean,
gozatzen naiz zurekin
amets egitean.

5

Ain zera osatua
legor eta itxas,
argatikan zaude zu
beterikan ditxaz;
oroitzen dana zure
zorion guzitaz,
nola aspertu leike
emengo bizitzaz?

6

Beti laguntzalle izan
zaitut premietan,
pozaldian bezela
eziñaldietan;
Orio, au aitortzen
dizut egietan:
gogozko zera nere
biotz-begietan.

7

Onuntz etorri nitzan
bizileku-eske,
baita zuk eman ere
bear zan ainbeste;
aldegingo dedanik
etzazula uste,
nere ezurrak emen
utzi nai nituzke.

8

Noizbait bukatu bear
bizitza laburra,
orrek ematen ditu
kezka ta bildurra;
bi gauz eskatze'izkizut,
Orio xamurra:
bizitzeko ogiya ta
ildakuan lurra.

9

Ai zer sufrimentua
biotz bigunean
eriotzak atean
jotzen digunean!
Izan leike gauean,
berdin egunean,
bakoitzak gutxiena
uste degunean.

10

Kaja illun batean
betiko gordera,
bestek eraman bear,
gauza ez norbera;
entregatzen da kanpo-
santuko lurrera,
Jaun altsua jabetzen
da andik aurrera.

11

Emen bizi nai degu
al degun artean,
Jauna, Zuk abixua
eman bitartean;
arren, artu gaitzazu
Zeurekin batean,
erauntsi-bildurrikan
ez dan aterpean.

12

Jauna, izan ezazu
gure errukiya,
len ere askorentzat
dezu edukiya;
bizitza au bukatzian
zeruan tokiya
litzake atsegiña
eta egokiya.



Orio'ko txoko bat.

(Foto Arturo, 1975.IV.23)

MAITE BATI

Emen agertzen dan bertso-sail au, nik oso ezagunak nituen neska-mutil batzuen arteko gertaera bat da.

Neskatxa bat bazan gure errian, eder zoragarri oieta-koa. Ta zer da ederra izatea bakarrik? Izketan ere txukun berdingabea; eztia bezin gozoa. Aitona zar bat izan edo amona bat izan, berdin zan arentzako. Mutil gazte bat bezin goxo artuko zuen izketan.

Itxuari begiak zabaldu-azteko modukoa zan berez.

Alako lore bati askok begiratzen dio. Askok artzen ditu itxaropenak. Baño alakoa ere batentzako bear du legez, ta beste guztiak alperrik dabilta.

Mutil au, berriz, zan on pusketa bat. Itz bat bestea baño goragokorik etzuen umil da apal bat. Lotsati bat, itz batean esanda.

Ta neska ori gustatzen zitzaion gogotik; orretxekin ezkondu nai ta esaten asmatu ezin. Gizajoak, ori da supritzeko modua!

Alako batean, orratik, esan dio ia berarekin ezkonduko litzakean.

Neska orrek ederki itzezin omen zion, beti bezela; baño esan omen zion, berak etzeukala ezkontzeko asmorik artean beintzat.

Eta mutillak bertsoetan esaten dizkio, bere penak zer diran, neska orri.



1

Barkatu zaidazu, dama,
penak kantura narama,
nerekin det naiko lana;
lengo batean dudako itz bat
nola zidazun emana,
begien gogozko dana
ezin bildu neregana,
au da sentitzen dedana.

2

Biotzetik nago debil,
gaixua sufritzen dabil,
ez zoriotsu balebil;
pentsatzen nago zu zeralako
bearko ote dedan il;
gorroto billa ez nabil,
eta egon zaitetz trankil,
pazientzian da ixil.

3

Nere barrunbeak min du,
au ezin da atsegindu,
naiz neu ortan alegindu;
biotz biguña izan da penak
lertu-arazi egin du;
kargarik jaso ezin du,
baño au leike arindu,
zureak maite banindu.

4

Nik zu ikusi bakarrez
biotza dut irriparez,
naiz-ta begiak negarrez;
egun batean ezagun egin
ziñutan ala bearrez;
geroztik milla biderrez
zutaz oroitu naiz errez
maitasunaren indarrez.

5

Penaren morroi egiñik
or nabil bizi eziñik,
iñun ez dut atsegiñik.
Ez ote dezu, dama, kenduko
nere naigabien miñik?
Garbi-garbi itzegiñik:
biotza emango nuke nik
zuretzat dala jakiñik.

6

Itzikan dizdiratsunak
zuk esan dizkirazunak
ditut, maitea, entzunak;
itxu-itxuan zugan narama
nere ongi-naitasunak,
begien argitasunak,
pozaren alaitasunak,
biotzaren maitasunak.

7

Apaintzen zera dotore,
zera izarraren pare,
gutxienera jota're.
Ez ote naiz ni iñoiz egingo
maite dedanaren jabe?
Biontzat litzake obe,
esaten dizut xuabe:
Ezin naiz bizi zu gabe!

8

Beti naigabez betea,
pasa det orain artea
bizi-modu arlotea;
zer nai nukian esango dizut
nai bazendu jakitea:
zure senar egitea;
biotz barrengo maitea,
nitaz erruki zaitea!

9

Maitetasun-eskasiya
da munduko desgraziya,
gorrotoaren aziya;
gere gustoko izaera guk
daukagu galeraziya;
nik dedan pena guziya
dizut adieraziya:
zurekin ezin biziya!

10

Zoriontsu bearrean
nago erdi negarrean,
tristurak dauzkat aurrean;
alkar maitatu bear omen da
baño ez dago urrean;
gorrotoa indarrean
daukagu zoritxarrean
gu bizi geran lurrean.

AITONA GIXARAJUA

A musical score for the piece "AITONA GIXARAJUA". The score is written on eight staves in a single system. The key signature consists of two sharps (F# and C#), and the time signature is 2/4. The notation includes various rhythmic values such as eighth and sixteenth notes, rests, and slurs. The piece concludes with a double bar line at the end of the eighth staff.

1

Aitona gixarajua,
pipiak ederki jua,
or dago eta bertso batzuek
jartzera nijua;
len etzan olain bajua,
bikaña eta majua,
baño juan dan illebetean
beraka dijua.

2

Aitontxua eskaxturik,
ankan gañian juxturik,
ez derabilki len bezelako
kantu ta txixturik;
etzaio kentzen, trixturik,
or dago ezin pixturik,
berriz sendatu bear duenik
ezin siñixturik.

3

Testamentua egin du,
naiz-ta iñork ez agindu;
nunbait geroko kez karen kargak
nai ditu arindu;
era ontan itzegin du:
"Jauna ez nuke nai mindu;
utsa litzake bere ondora
jasoko banindu.

4

Botika eta trastia
artuaz, lengo astia
nolabait ere pasa det baño
naikua tristia;
oñazea ta pestia,
eziña ta desgastia,
garai batean ez nuen uste
ola eskastia.

5

Alaitasunak len zian,
gu ere ariñ-antzian
ibili giñan, baño orduko
urteak juan zian;
emen gizona zartzian,
ezin duela jartzian,
konturatzen da gaztearoko
egunak zer zian.

6

Gaztetan ezurrak tinko
eta aragiak trinko,
bildurrik gabe ibiltzen nitzan
salto eta brinko,
pentsatuaz nere kiko
beiñere ez nitzala ilko;
baño lur ontan iñortxo ez da
jaiotzen betiko.

7

Osasunetik aldrebes
ta esperantzik baterez,
ala ta guztiz ere konforme
arkitzen naiz nerez;
Jainkua ona da berez,
ura ibiltzen da legez,
sufrimentu au izan nezake
geroko mesedez.

8

Juan dan illabete pasan
sendatu-garaia bazan,
botika oiek izan balira
neretzat bentajan;
mokadurik ezin det jan,
gorputza dijua bajan,
iduritzen zait laixter sartuko
ote nauten kajan."

9

Amonak galdetzen diyo:
"Zergatik zaude seriyo?"
Ta aitonari begiak bera
negarra dariyo:
"Ni gero eta etsiyo,
atzo baño gaur gutxiyo,
naiago nuke Jaungoikoari
zorrik ezpaniyo!"

10

Amona gaixo xamurrak
baditu naiko bildurrak,
aitonatxoa estali bear
ote duen lurrak;
azalak dauzka ximurrak,
pauso ta bista laburrak,
bera're laixter bildu lezake
eriotz maltzurak.

11

"Gaua igaró det baldar,
otz-ikararekin dardar;
amonatxoa, ementxe utzi
bear zaitut bakar;
onek eriotza dakar,
eramango naute azkar,
beste munduan ia ikusten
degun berriz alkar!"

12

Amona xarrak orduan
azken illuna goguan,
bistan ezin zan kabitu eta
ezkutura juan;
sarturik kuarto-barruan,
antxe denbora-morduan,
suspirioka sentitzen gendun
aur baten moduan.



Euskalerriko aitona bat

(Foto Arturo)

BERANDUKO EZKONTZA

Bertso-sail au da mutilzar baten aginduz egiña.

Bera gaztea zala, auzoko neskatxa bat gustatzen omen zitzaion, da aretxekin ezkonduko pozik eta egiñalak egin omen zituan, baño ez omen zuan eskuratu.

Baju xamarra iduritzen omen zitzaion neskatxari beretzako mutil ori, ta beti ikusi nai ezik bezela.

Mutillak, antz eman zionean alperrik zala, etsi omen zuan da geiago kasorik ez; or konpon.

Da neskatxa orri zer gertatu zaio? Esaera dan bezela, oñezkorik nai ez ta zaldizkorik etorri ez.

Urteak aurrera joan da norbaitekin ezkondu nai, ta or egiten dio ezkontzeko mandatu, len nai izan etzion mutil orri.

Mutillak bazekien, aukera izan balu neska orrek, etzala beragana joango; baño gaztetan ere orixe gustatzen berari, ta beste aldetik, berriz, bera ere bakarrik egon da edadez aurrera joana, ta ezkontzeko prest dagoala, orren premian bada, erantzuten dio mutillak bertsoz.



1

Notizi batzuk dira
nigana elduak,
asko uste ez nuen
batek bialduak;
itxaropenak neuzkan
betiko galduak,
orain asmo berriak
dizkit azalduak.

2

Maiteak albiste bat
biali dit kartaz:
bakarrik dagola ta
oroitzeko artaz.
Nola ez errukitu
gaixo aren plantaz?
Amaikak sufritzen du
amodio-faltaz!

3

Oso ontzat artu det
aren albistea,
emen bakardadea
da gauza tristea;
errex izan ez arren
dana siñistea,
zalla izango da nik
ateak ixtea.

4

Ezkontzeko sasoiak
ez nago edadez,
baño errukitu naiz
bere bakardadez;
sufritzen omen dago
egunez ta gauzez,
neu ere ez nenguan
akordatu gabez.

5

Burua zuritu ta
bekozkua beztu,
sasoiak aldegin da
eziña erreztu;
alare ezkontzeko
arkitzen da prestu,
gero ezertarako
balioko eztu.

6

Berrogei t'amar urte
zeuzkala esan zuan,
ezkontzeko edade
obia izan zuan;
oiek mejoratutzen
dira geientsuan
gustua kunplituaz
eta deskantsuan.

7

Bakardade osoan
omen da arkitu,
len ez giñan ezkondu
ta kulpak ark ditu;
azkenerako nitaz
omen da errukitu,
mutil gustokorikan
etzaio egokitu.

8

Len bera portatu zan
era itxusian,
ibili zan ni begiz
ezin ikusian;
alare maitatzen nun
kariño biziyan
nere pentsamentura
zetorren guziyan.

9

Ezagutu al dezu
munduko eskallera:
gora ainbeste malla
dituela bera?
Orain nere premian
arkitzen bazera,
berandutxo da baño
ezkonduko gera.

10

Itz ori ez bazaizu
damutzen berriro,
prestatzen asi zaitez
astiro-astiro;
diruz ongi jantzia
bazaude biziro,
laister emango dizkat
lanari bi tiro.

11

Asko dibertitzeko
zait berandutua,
baño ontzat artu det
zure mandatua;
lanez lenago daukat
gorputza ondatua,
ia izaten dedan
zeñek sendatua.

12

Beranduko ezkontza
degu zoritxarrez,
aழுuetan jendea
jarriko da parrez;
baño ezin bildurtu
orrekin bakarrez,
bein onela txoratu
ezkero alkarrez.

NERE ALABA ZANA

1958'an il zitzaigun alabatxo bat, amazapi illabete-koa, eta moduz gañera.

Amalau illabete zituela, jostatzen zebillela, babarrun-ale bat billatu lurean da abora eraman. Umeak, garai ortan, oitura izaten du eskuetan artzen duena abora eramateko.

Ta nun tragatzen du uste gabe ta sartzen zaio kontrako eztarrira. Bi ordu baño len jarri zan ito bearrean, arnasik artu eziñik.

Ala ikusi genduenean, azkar deitu genion erriko sendagillari. Etorri zan da etzion inportantzirik eman: etzuala babarrunarena izango; beste zerbait bearko zuela; ta indizio batzuek agindu zituen emateko.

Garai artan penizilina zebillen oso modan. Orrek denak sendatu bear zituela uste izaten zan. Baño ura etzuen sendatu.

Iru edo lau egun pasa ziran, da gero ta okerrago zijoan gaixoa. Ta mugitu bearra zegoela ta jo genduen Donosti'ra, igande-arratsalde batean, estu ta presa sendagille batengana.

Esan genion zer gertatu zan, da ark antzeman zion da esan zigun bronkioetara sartua zeukala babarrun-ale ori ta oso azita zeukala barruan; ateratzen alegindu bear zala.

Sondak eztarritik bera sartu ta egiñalak egin zituen, baño atera ez. Abotik odola botatzen zuela utzi zuen aurra; barren guziak txikituta, gaixoa.

Gero tratamentu bat jarri zion babarruna desegintze-ko bertan; baño alperrik.

Iru illabete pasa zituen ito bear da ito ezin. Azkenean pentsatu zuten idiki ta kentzea. Eraman zuten guri eskue-
tatik kenduta. Eskuetan ilda gelditu zitzaien, idikitzen asi
baño len. Ito, gaixoa.

Etz gurea zalako, baño aur zoragarri bat zan. Nik, nere bizitzan, osasun-paltak eta pena aundiak izan ditut; baño aur ark eman zidan penik aundiena, gaixoak; esaterik ez dan modukoa. Ta bertso batzuek jarri nizkion.



1

Aur txiki bat il zaigu,
au da gure lana,
begiko ura bezin
maite genduana;
zeruko Aitarekin
an degu juana,
Ura zan aingerua
eraman zuana.

2

Medikuak zioten:
"Aur au ez da ilko!"
Alegiña saiatu
ziran nereko;
baño sendatzerikan
etzan komeniko,
zeru-lurren Jabeak
ez baitzuen naiko.

3

Aita baten biotzak
zer sufritzen duan
bere aur txiki baten
eriotz-orduan!
Galdetzen nion: "Nora
nai zenduke juan?"
Biatzarekin gora
erakusten zuan!

4

Jauna zerutik billa
zaizulako jetxi,
lur tristean negarrez
bear nazu utzi;
zerura juan nai dezu
ta nik ezin eutsi,
ia an biltzen geran
biar edo etzi!

5

Iltzera zuaz eta
gero t'alaiago,
aitak bere ondoan
ziñuzen naiago;
baño Jaunak nai badu
juan bearra dago,
zeruan izango da
izar bat geiago!

6

Jaunak aingerutxo bat
beretzako on du,
ala komeni bazan
eramana an du;
Berak eman zigun da
berriz Berak kendu,
dana lezakianak
ori egiten du.

7

Zerua egon dedin
izarrez betea,
Jaunak pentsatuko zun
zu eramatea;
aitaren ondotikan
zuk aldegitea
aztu ez leiken pena
da, aurtxo maitea.

8

Baba-ale gordin bat
zuen tragatua,
kontrako ezterrira
juan da trabatua.
Ito bear da ezin
ura zan tratua!
Bere deskuidoa zun
ondo pagatua!

9

Alaba, ez-bear bat
izan dezulako,
edo agian Jaunak
ala nai zulako,
jaio ta oñez ibiltzen
asi ordurako,
berriz mundua utzi
dezu sekulako.

10

Pena eman diguzu
mundutik juanak,
nola ez sentitu au
biotzik duanak?
Zu bere besuetan
azi zaituanak
oiek dira samiñak
izan dituanak!

11

Len ere eramank
Jaunak asko ditu,
baño andikan ez du
iñork eskribitu;
guk ere munduz bear
degu despeditu,
Jaunak azitarako
uzten ez bagaitu.

12

Alaba zeruan det
gutxienerako,
aingeruen laguntza
bear danerako;
Jaunari eska zaiozu
nere onerako
zeruan leku pixkat
nijuanerako.

GURE ETXEKO BERRI

A musical score for the piece "GURE ETXEKO BERRI". The score is written on eight staves in a single system. The key signature is one sharp (F#), and the time signature is 3/4. The notation includes various rhythmic values such as quarter, eighth, and sixteenth notes, as well as rests and accidentals. The piece concludes with a double bar line and repeat dots.



Lasarte ta bere seme-alabak.

(Foto Arturo, 1975.IV.23)

1

Oker aundiak izan ditut nik
nere munduko bizitzan,
bertso batzuek jartzera nua
erriak ikasi ditzan;
urte sailtxo bat igaro nuen
naigabez eta desditzan,
orduak oso bajatu nitzan,
len olakua ez nitzan.

2

Egun batean sortu zitzaidan
betiko gaixotasuna,
mundu tristea, zu zera neri
au ekarri zidazuna;
garai batean nik banituen
indarra ta osasuna,
naiago nuke orain balego
orduko goxotasuna.

3

Sendatzen ez da errez egongo
nere biotz zauritua,
egunen baten izango al naiz
Jaun altsuak saritua!
Indar askorik ez daukat baño
bizirik espiritua,
nere izaera utzi nai nuke
geroko eskribitua.

4

Ezkondu nitzan lagunarekin
bizi izateko ustean,
baño mundua ain da pobrea
alkartasuna austean;
seme-alabak azitzen jardun
naiz bakardade tristean,
baño gaur aiek maite naute ta
kontentu onenbestean.

5

Nik uste nuen ezkondu eta
ongi biziko nitzala,
azkenerako ikusi nuen
iñola're ezin zala;
animaraño sartu zitzaidan
bildurgarrizko itzala,
utsegiteak izan badira
Jaunak barkatu ditzala.

6

Seme-alabak etxean dauzkat
amarik gabe aziyak,
nere ustez zerbait erakutsiak,
kristau modura eziyak;
ortarakoxe botiak ditut
nere izardi guziyak;
okerrenian pasiak dira,
dauzkat laguntzen asiyak.

7

Ume gaixoak baztertutzeko
nik ez det izan barrurik,
aiek etzuten mundu ontara
sortua beste errurik;
zenbaitei edozer egiñ arren
ez dio izaten ardurik,
baño nik ez det gerorako nai
kontzientziko kargurik.

8

Zenbait personek ibiltzen ditu
lasaikeri aunditxuak,
oso arintzat artu oi ditu
gurasuaren pixuak;
nere anparoan bakarrik azi
dira umetxo gaixuak,
asko ikasi gabe zer diran
amaren laztan goxuak.

9

Garai batean ez gendun gaizki
bizitzeko esperantzik,
gertatzen dana gerokoari
aurrez eziñ eman antzik;
lore polita bazan gurean;
izan ez balu arantzik,
ez nun pasako modu artako
egunik eta arratsik.

10

Gure etxean etzan ikusten
eguzkiaren dizdirik,
beti egunak zakar da illun,
iñundik ez poz eztirik;
oiera juan da etzan izaten
lo egiteko astirik,
amaika arrats triste pasa nun
begiak malkoz bustirik.

11

Naiz aukeratu ustez laguna
egokienetakoa,
zerbaiten falta da emen beti
edo geienetakoa;
alkarrentzako maitetasuna
ez bada benetakoa,
bizimodua sufrigarria
da mundu onetakoa.

12

Azalez asko izaten gera
itxura politekuak,
gero barrendik ezagutzean
negar eragitekuak;
alkarren lotsa galdu ezker
ein dira egitekuak,
maitasunaren figurik ez ta
itzak nolabaitekuak.

13

Ezkondu eta bizi diranak
maitasunari lotuak,
gutxi dira ta bear luteke
aiek ongi txalotuak;
txarkeritikan etortzen dira
negarrak eta lutuak,
asko galtzen du bere garaian
alkar ez ezagutuak.

14

Kalte aundiak gauz orrek egin
zizkidan osasunean,
au gertatzen da penaren miñak
bat menderatzen dunean;
urte batzuek triste igaro
ditut illuntasunean,
baño gaur pozik bizi naiz emen
alaben maitasunean.



*"Bide-bazterrean aritz oker zar bat zeukaten utzia,
beste denak botata. An zegoen piñuaren mende,
bakardadean..."*

(Foto Arturo, 1975.IV.23)

ARITZ ZAR BAT

Bein batez, mendi batean naigabetu nintzan.

Baserri bateko aitona bat oso ezaguna nuen, da gazte-denboran aren etxeok ere bai. Urte batzuetan, andik urrutiratu nintzanetik, aien berririk ez nekien, da orain aurreko batean araxe joatea pentsatu nuen igande batez.

Ala, aitona orrekin itzezin nuan da oso triste billatu nuen gizagaixoa: asko nekatutako gizona; urte-sail bat ere bai, ta oso okertua. Ta amona ere era beretsuan. Gazteak kalean lanean, da biak bakarrik etxean.

Aitonak zion:

—Galdu da gure baserria!

Ala, aiek agurtu ta alde egin nuen aien etxetik.

Goraxeagoan, arizti bikain bat zan len; mendi-sail aundi-aundia, dena aritzez betea.

Nik uste nuen an egongo zirala, ta nun ikusten det dena piñudi berria. Bide-bazterrean aritz oker zar bat zeukaten utzia, beste denak botata. An zegoen piñuaren mende, bakardadean.

Ari egin nizkan onoko bertso ta galdeera auek:



1

Txori guziak maite
zaituzten aritza,
aien osasungarri
da zure bizitza;
zu ilko ote zeran
bildurrez dabilta,
izan ere aspaldian
ain larri zabilta;
sendatuko ote da
sartu zaizun gaitza!

2

Zure adar gañetan
txoriak jolasten,
udaberrian kantu
goxoak abesten,
emengo izaera
zer dan erakusten;
zenbaitek begi onez
etzaitu ikusten,
baño zu alegindu
biziari eusten.

3

Zure gerri zarrean
indar dauka untzak,
ezagutzen du beko
baserriko auntzak;
or dituzu txorien
kabi ta izkuntzak,
baño galdu zaizkizu
anaien laguntzak,
negar eragiten dit
gogoratu utsak.

4

Nun dituzu anaiak
galdu zaizkizunak,
nik len sarri ikusi
izan nizkizunak?
Jakingo du ondotik
kendu dizkizunak,
oiek dira kalteak
egin zizkizunak!
Ola dabilta gaurko
gizon jakintsunak.

5

Zure senide danak
eraman dituzte,
zu zartu zeralako
or utzi zaituzte;
ola arkitzerikan
etzenduen uste;
gauzak ezagutuko
baldin bagiñuzke,
eskerrik beroenak
merezi ziñuzke.

6

Inguruan piñua
dizute aldatua,
pagua izan balitz
ziñan salbatua;
beltz orren etorrerak
zaitu ondatua,
ori da alkarrekin
ezin moldatua,
esan leike zaudela
gaitzak baldatua.

7

Okerturik or zaude
bide-baztarrian,
aitona olaxe dago
beko basarrian:
laguntzallerik gabe
erdi negarrian,
etxea eta lurrak
utzi bearrian,
bizi da oraindik baño
juxtu samarrian.

8

Aritza, emen izan
ziñan ongiena,
piñuak artu dizu
inguru geiena;
lur ori zan il ziran
zure anaiena,
kendu dio itxura
euskal mendiena;
orrek ematen digu
miñik aundiena.

9

Zu ziñan lur ortantxe
jaino ta aziya,
orain piñuan morroi
zaituzte utziya;
bota zuten sasoiko
zeguan guziya;
zu're saldu-asmoan
zagon nagusiya,
egokitu balitza
zeñek erosiya.

10

Piñu orrek ekarri
ditu naigabeak:
galdu ditu mendiko
ardi t'abereak,
berdin fruta-arbol da
belar landareak;
bein sartzen dan tokian
lur danak bereak;
akabo baserritxo
errurik gabeak!

11

Aritzak eta pago
garbi ta nobleak,
badakit zeratela
alkar maitaleak;
beti izan ditezen
zuen siñaleak,
txutik iraun zazute
zaudeten aleak;
zuek zerate gure
mendigoizaleak.

12

Piñua, zugatik det
iñoiz galdetua
zergatik zauden danak
ito-zaletua;
baserria daukazu
atsekabetua,
soroz eta sagastiz
zera jabetua;
zu zaude emen geiegi
lotsagabetua!

GABILTZAN BIDEAK

A musical score for the piece 'GABILTZAN BIDEAK'. The score is written on six staves, each beginning with a treble clef, a key signature of two flats (B-flat and E-flat), and a 3/8 time signature. The music consists of a single melodic line. The first staff starts with a quarter rest, followed by a sequence of eighth and quarter notes. The second staff continues the melody with eighth and quarter notes, including a quarter rest. The third staff features a series of eighth notes. The fourth staff includes eighth and quarter notes, with a quarter rest. The fifth staff continues with eighth and quarter notes. The sixth staff concludes the piece with eighth and quarter notes, ending with a double bar line.

1

Kontseju on guziak
ditugu alperrik,
munduan ez da falta
pena ta negarrik;
gure anaitasunak
baluke indarrik,
ez gendukake ola
ibili bearrik.

2

Aundiak mendekoak
nai ditu egurtu,
batzuek txikitu ta
besteak bildurtu;
txikiak ere ezin du
bururik makurtu,
gero gertatzen dana
bizia laburtu.

3

Iñoiz mundu onekin
pentsatzen jartzean,
burruka bat sortzen da
nere biotzean;
emen gizonak alkar
saltzen du utsean,
Jesukristo're josi
zuten gurutzean.

4

Batzuek asi ziran
siñismena galtzen,
geroztik gauza ori
dijua ugaltzen;
ikusirikan nola
guazen zabartzen,
gorrotoa ari da
egua zabaltzen.

5

Mundu triste onetan
zer degu espero
alkar ikusi eziña
gallendu ezkerok?
Jaunari erregutzen
diot egunero
gutaz errukitzeko
oraiñ eta gero.

6

Mundu-zati bat dabil
asarrez betea,
noiz konponduko danik
zail da esatea;
ain da penagarria
olako izatea,
gerrak du mixeriya
eta gosetea.

7

Sua errez piztuta
gero eziñ itzali
gertatzen zaio zenbait
naziyo zitali;
erri eta etxeak
erre ta kixkali,
bideak eta lurrak
odolez estali.

8

Gerrak iñorentzako
azken onik eztu,
jardiñik politenak
oi ditu itxustu;
mendi eta erriak
txikitu ta austu,
eta errugabeak
bertan odol-ustu.

9

Anaiak alkarrekin
gera bigurritzen,
fedearen indarra
ari da urritzen;
ta ori ezpadegu
pixka bat berritzen,
gera ugaritzeak
ez gaitu arritzen.

10


Nun gorde eztakitela,
tiruen bildurrak,
dabiltz errugabeko
guraso ta aurrak;
batzuek diralako
setoso zimurrak,
bear baño len asko
jaten ditu lurrak.

11

Kanpo oietan bada
burruka ugari,
gizonen aundi-naiak
ekartzen du ori;
kristauak ez dio zor
bizia gerrari,
Jaunak eman zion da
Arixe Berari.

12

Bearrik gabe gera
errexera oitu,
kontzientzi-gauzetan
zikindu ta loitu;
iñori gaitz egiñez
nai genduke goitu,
gabiltzan bide onek
konponduko gaitu.



(Leitza'ko Gurutz-bidea)

*"Emen gizonak alkar
saltzen du utsean,
Jesukristo're josi
zuren gurutzean."*

(Foto A.Z., 1975.IV.27)

BAREA TA KARAKOLA

Barea da bitxo maltzur bat. Baratzan landare berririk jartzen badezu, ark probatuko du lenbizi. Zuk egunez egindakoa, ark gauez jango du ixil asko.

Bidean ibiltzen makala da, baño pikaro azkarra. Beti gauza berri billa ibiltzen da ta onenetik jaten, da ez dakit zertarako. Tripak atera edo lepoa ebaki, berdin da; ez diozu odolik ikusiko.

Bareak ez du odolik, eta ez ezurrik ere; ez du. Sinis-teak ere lan du.

Karakola bestea, itxu-aurreko ederra.

Gauez baratza zaintzeko, sereno ederrak dira oiek biak ere.

Nik ondo dakit oien berri; argatikan jartzen ditut bertso auek.



1

Baratz eder bat badet
etxe onduan-da,
bare bat an asetzen
zan gauetz juanda;
baño atzo goizean
ikusi nuan-da,
tripak atera nizkan
merezi zuan-da.

2

Ark an jan zituenak
etzitun bereak,
ezagutzen ditugu
bakoitzak gerek.
Zergatik moztu bear
zituen bareak
Jainkuak neri eman-
dako landareak?

3

Bare orri antzeman
 nion aspalditxo
 neri adarra jotzen
 zebilela geitxo;
 igasi bazijuan
 baño berandutxo,
 nola bidean ere
 ibiltzen dan mantxo.

4

Gaua naikua janez
 pasata baratzen,
 bazijuan sasira
 gorde-esperantzan;
 ikusi ninduen da
 komeriya an zan,
 esan nion orduan
 akordatu al zan.

5

Esaten nun: "Lanean
 alpertsurik ai nak,
 auek dituk egintzak
 bare makal oinak!"
 Nere baratzen ziran
 letxu eta bainak,
 lotsagabe zikin ark
 jan zituen geinak.

6

"Ederki ibili aiz
 aspalditxo ontan!"
 esanez, lertu nuen
 pendizaren kontran;
 pareta-gain bateko
 bi arriren juntan
 sartuta jarri nuen
 ziriaren puntan.

7

Mozten du jaio berri
 dagon landarea,
 eginkizun orixe
 du orrek berea;
 bestela're xeblebre
 utsa da barea:
 bate odolik eta
 ezurrik gabea.

8

Mantxo-mantxo iritxi
 oi da urrutira,
 gaez jan da egunez
 sasira erretira;
 olakoxia oi da
 barearen jira,
 karakola ta biak
 lengusuak dira.

9

Karakol bati ere
artu nion kargu,
bere bizi guzian
jandakoa zor du;
bitxo oiekin ola
ibili bear gu,
langilleak amaika
mantendu bear du.

10

Karakol litxarero
adartsu berdia,
inguruan bazeukan
pitsa ta lerdia;
arri azpi batean
an zegon gordia,
diximuloan baño
alperrik ordia.

11

Indartua zeguan
zezen baten gisan,
nere baratzen jenez
dotore bizi zan;
ikusi ta esan nion:
"I're emen al itzan?"
Barea eta biak
soziyo zebiltzan.

12

Preso sartu nun ura
tomate-potean,
gero josita jarri
ganbarako atean;
an egon bearko du
bolada batean,
erabat usteldu ta
desegin artean.

KATARROA

Bertso-sail onen gaia, aitona zar batena da. Nik eza-gutu nuen aitona ori.

Bere bizitzan lan asko egiña zan; busti-aldi ta tratu txar asko artua, gizagaixoa. Ta ortik etortzen dira gauza txarrak askotan.

Bera sasi-bertsolari olakoa zan. Gustatzen zitzaion kantatzea, ta entzuten ere amorratua zan. Baño azken aldera ezin izaten zuan. Gau ta egun eztulka batean bizitzen zan, arnasik ere artu eziñik.

Berak esaten zuan, birikak ustelduta zeuzkala erabat, eta etzeukala luzaroko bizirik; len ere amaika eraman zuela gaitz orrek berekin; ori larrutzalle aundia zala.

Etzeukan arrazoi gutxi aitonak. Bere buruari ongi antzemanda zegoan zer zetorkion. Gaitz orrek eraman zuan andik laixter, gizagaixoa.

Bere burua estutu ere bai, geroago ta ezin aundiagoa ikusita.

Nik esan nion, orain etzala len garai bateko konturik; gaur egunean, sendagille onak zeudela, ta sendagaiak ere obeak zirala.

—Bai, oiek denak ola izango dira; baña neretzako alperrik! —erantzun zidan.

Bera zartu ta auldua zegoala, ta gizona zenbat eta aulago, gaitza orduan da indartsuago, zion.

Ta aren esaerak bururatu zitzaizkidan, da jarri nizkion bertsoak katarroari.



1

Bertsuak kantatzeko
badet korajia,
txarren-txarrena daukat
barrengo ajia,
katarro zikin batek
betiko lajia;
nabarmendua dago
nere pelajia.

2

Len altutik egiten
nuan nik orrua,
zu laguntzalle txarra
zaitut, katarrua;
ia usteldu dirazu
biriken barrua,
azkenik zuk kenduko
dirazu larrua.

3

Juan dan aspaldian
zeuk nai aña burla
ongi dakizu neri
egin dirazula;
orain lau urte utzi
zidazun eztula,
geroztik nerekin da
juan nai ez dula.

4

Katarrua dalako
indarrak galduta,
petxu-aldea daukat
erabat aulduta;
Zer egiten du neri
ori ustelduta?
Itoko nuke bera
lepotik elduta!

5

Katarrua, etzera
kristauen graziko,
begi onez etzaitu
iñork ikusiko;
makiñatxo bat jarri
dituzu tisiko,
ondaturikan beren
denbora guziko.

6

Orain egonagatik
mediku abillik,
katarro zarrak eztu
sosegu trankillik;
ordu erdi bat ezin
igaro ixillik,
malkua galanki ta
mukiak txintxillik.

7

Atzo're, katarrua,
zurekin burruka
gau guzia pasa det
asi eta buka;
eguna sukaldean
indarka eztulka;
zuk jarri nazu ola,
ez da nere kulpa.

8

Errukirik gabeko
prenda zera zerez,
gaitza geientsuetan
ala oi da berez;
auxe eskatzen dizut,
besterik ezer ez:
pixkat bizitzen utzi
zaidazu meserez!

9

Katarrua, zuk artu
ninduzun mendian,
lengo nere indarrak
ez dakit nun dian;
egunez argitan da
gauetz illunpian
au da musika-otsa
nere barrunpian!

10

Aspaldian zu ta ni
borrokan gabiltza,
nola artu nai dezun
nere nagusitza;
neri bukatzen bazait
munduko bizitza,
zu ere ilko zera,
alperrik zabilta!

BIDE BERRIA

Bidegintza, autopista edo dalako orrek baserria eta soro zelairik onenak txikitu dizkion aitona baten naigabeak agertzen ditut emen, bertso-sail batean. Asko dira ola gertatuak.

Aiton argi bat da bere izatez, baño orain-aldian triste ikusten da oso.

Izan ere, ikusgarria zan aren etxe-aldea, aren laneko txukundadea. Beko erreka ondoan ziran soro-zelai eder aiek, labore-toki zoragarriak izan bear zuten.

Erreka-gaintxo batean zan bere baserri-etxea, ordekatxo batean, atari-alde txukun askoa inguruan zuela, fruta-arbolez betea.

Ikusgarriak ziran ango gerezi-arbol, udare, aran ta piko; ta intxaur aundi bat etxeari itzal egiten ziola.

Saiets aldetik eta aurreko aldetik, berriz, maatsa, etxe pareta guzia artzen zuela, goiko sapairano; ta, erdi parean, egurrezko balkoi aundi bat ikusten zan, dena maatsez dotoretua.



*Artikula aundi, Udarregi bertsolaria bizitu zan
baserria, autopistak botia.*

(Foto: A.Z., 1966)

Ate ondoan ur-aska aundi bat, bere iturri eder bategin.

Egutera aldera begiratuta, sagasti zoragarri batzuek ikusten ziran, ondo zainduak; gaur leku gutxitan ikusten diran bezelakoak. Ospel aldera begiratuta, zer esanik ez. Klase guzietatik aukera ikusten zan. Ain zan pameli jasoa ta txukuna.

Ta gero ango txikizio ura ikusi: soro-zelaiak desegin, etxea beko erreka-zulora bota, ta ango ondamendi arekin pena izatea ez da arritzekoa noski.

Diru piska bat artuko zuen aitona orrek, baño dirua bakarrik ez baita zoriona mundu ontan.

Gañera, berriz, erritik urruti dauden edo mendietako terrenoak, beti merkeago eman bear izaten dira. Ez dago baliatzerik, erri barruko terrenoekin bezela.

Baño arentzako gogorrena izan da, bera jaio ta azi egin zan etxe maitagarri ura botatzea. Negar egiten zuan, da au zion berak:

—Beti baserrian bizitu naiz, eta kalean ezin det etsi iñola ere!

Zar askori gertatzen zaio ori, ta nik sinistu nion.

Kalera bizitzera joanagatik, noiznai antxe bueltaka ikusten da, bere lengo baserri inguruan, txutik gelditu ziran sagasti ta mendi-saillak garbitzen.

Berak ziona: beste iñorako lanerako etzuela balio, zartu zala-ta; ura etzuela iñork artuko, ta aren izateak egin zuela.

Esan nion: bere burua piska bat lasaitzeko; ori baño oker aundiagoak ere izaten zirala.

Ta erantzun zidan:

—Etxean ere orixe esaten didate; baño alperrik da!

Ta onoko bertso auek jarri nizkion, autopistak etxea arrapatutako aitona orri.



*Artikula Txiki, Martin, Mateo ta Jose Krutz, Olloki
bertsolarien baserria, Usurbil'en, autopistak botia.*

(Foto A.Z., 1966)



1

Ene Jaungoiko errukitsua,
gutaz oroitu zaitea,
bizi-lekua galdu degu ta
nago naigabez betea;
egun batean pentsatu zuten
autopista egitea,
ori dalako desegindu da
gure baserri maitea.

2

Baserria zan gure aitari
aitonak utziya lendik,
guk ere ala artu genduen
geure gurasuengandik;
autopista ori sortu ez balitz
txutik zeguan oraindik,
negar eragin zigun utzi ta
aldegin bearrak andik.

3

Aurten udaran an ibili naiz
maldako sagasti baten,
arbol-azpiak garbitzen edo
belar zakarrak ebaten;
len beian ziran soro-zelaiak
sufritu-azten ziraten,
gu azitako etxea nun zan
etzaio antzik ematen.

4

Goiko menditik beko sakontxo
artara begiratzean,
naigabetzen naiz ura ikusita
arpegiya jiratzean;
txori bat ere zapuztu oi da
bere kabiya galtzean,
zoritxarrean ni arkitzen naiz
gaur txori orren antzean.

5

Kanpotar batzuk etorri ziran
makina zarrak arturik,
inguru denak utzi zituzten
txikitu eta lerturik;
etxea an da zulo batean
betegarritzat sarturik,
olako obrak ez dute emen
alaitzen gizon zarturik.

6

Etxe uraxe txutik uzteko
erregututzen nioten,
nik esandako itz bakoitzari
parre egiten zioten;
telltua ta pareta zarrak
laixter bota zizkioten,
or ezagun da mendekuari
zenbat erruki dioten.

7

Agur esanaz utzi genduen
gure baserri prestua,
nai ez gendula aldegin bear
ura zan trantze estua!
Traste guziak atera eta
an gelditu zan ustua,
egun gutxiren barruan zuten
txikitu eta austua.

8

Trasteak artu t'aldegin gendun
denok erdi negarrean,
andikan lau bat egunera jun
nitzan illunabarrean;
pareta-puskak ikusi nitun
beko erreka zarrean,
da esan nion: "O, baserria,
etzaude leku txarrean!"

9

Intxaur-arbola bikain bat zuen
gure etxeak aurrean,
iturri fresko zoragarri bat
alboan oso urrean;
gentozenian eguzki-galdak
beroturik alorrean,
ura edanez goxatzen giñan
bere itzal ederrean.

10

Amaika seme-alaba azi zun
gure baserri laztanak,
zer goxoa zan ez daki ura
bertan bizitu eztanak;
berdin gabeko labore-lurrak
ziran berekin zeuzkanak,
merke asko or eman giñuzen
saltzeko ez genduzkanak.

11

Orain zazpi bat urte egiñik
etxean obra berriya,
barrunpetikan beintzat gendukan
txukun-antzean jarriya;
kontentu bizi giñan garaian
etorri zaigu arriya,
geure gauzekin agindu ezin,
ori da penagarriya.

12

Zorioneko autopist'orrek
badu naikua ixtori,
gauzak olaxe jaiotzen zaizka
zenbait burutsu lixtori;
zer galdurikan etzunarentzat
ongi etorri da ori,
naiz-da terreno-sallak ondatu
guri ta beste askori.



*"...ondo dakigu gure errekak
zergatikan dauden zikin:
karretajian dabiltzalako
jenero ustel guzikin."*

*(Berastegi'tik datorren erreka Tolosa'n)
(Foto Jesus Elozegi, Tolosa)*

IBAI AK

A musical score for the piece 'IBAI AK'. The score is written on eight staves, each beginning with a treble clef and a 2/4 time signature. The melody is composed of eighth and quarter notes, with various rests and phrasing slurs. The first staff starts with a quarter rest followed by a quarter note, then continues with eighth and quarter notes. The second staff begins with a quarter rest and a quarter note, followed by eighth and quarter notes. The third staff starts with a quarter rest and a quarter note, then continues with eighth and quarter notes. The fourth staff begins with a quarter rest and a quarter note, followed by eighth and quarter notes. The fifth staff starts with a quarter rest and a quarter note, then continues with eighth and quarter notes. The sixth staff begins with a quarter rest and a quarter note, followed by eighth and quarter notes. The seventh staff starts with a quarter rest and a quarter note, then continues with eighth and quarter notes. The eighth staff begins with a quarter rest and a quarter note, followed by eighth and quarter notes, and ends with a double bar line.

1

Urumea'ko erreka zan len
betea amorrai piñez,
Oriya'koa uraxe bezin
aberatsa zan gutxiñez;
usteldu eta usandu dira
pabriketako zikiñez,
garbitasuna noiz egingo dan
oraindik iñork jakiñ ez.

2

Garai batean erreka oietan
sortzen ziran amorraitzak,
iñori ezer kosta gabeak
ziran uraren emaitzak;
urte batetik bestera galdu
ditu zikiñaren gaitzak,
negar-zoria sentitzen du au
ikusten duen bakoitzak.

3

Gaurko errekan ez dauka urak
lengo kolore urdiñik,
arrai gaixoak galdu dirala
ez daukagu beste miñik;
len bezelaxe jarriko dala
garbitasuna egiñik
diote, baño ikusi arte
nago siñistu eziñik.

4

Lengo erreka gaixoak zuten
usai atsegiñezkoa,
oraiñ aparra dute estalki
ain lurrun zikiñezkoa;
garbitutzeko artzen ez bada
erabaki ziñezkoa,
oieri gaitza sartu zaiote
sendatu eziñezkoa.

5

Zer etorkizun zeguan ortik
jendeak ondo bazekin,
alare askok berena egin
dute ajola gutxikin;
ondo dakigu gure errekek
zergatikan dauden zikin:
karretajian dabiltzalako
jenero ustel guzikin.

6

Ur orrek nola egiten duen
debalde karretajia,
askok izan du bera zikiñez
kargatzeko korajia;
dana eraman ezinda dauka
asko bidian lajia,
gero ortikan sortu da emen
arrai gaixoen ajia.

7

Arraiz antzutzen omen dijuaz
emengo itxas-ixkiñak,
ondasun danak galduko ditu
gure bizitza ziztriñak;
orain baño len aitortu zuen
gauzak ondo zekizkiñak:
itxasuari kalte egiten
diola errio zikiñak.

8

Errekak artu zikiñak eta
itxasora entregatu,
lenengo bere burua eta
gero ura endredatu;
arraiak bizilekua galdu
ta gaixoak minberatu,
leku askotan gertatzen dana:
txarrak ona menderatu.

9

Beneno txarrak dauzka errekak
usteldu ta egosirik,
zikinkeriak eramateko
beretzako erosirik;
lengo arraien millatikan bat
ez da egongo bizirik,
garai bateko edertasuna
ez daukagu ikusirik.

10

Euria gutxi egiten badu,
egualdia bada legor,
Tolosa'tikan bera datorren
ori zikintzen da gogor;
garai batean kañaz arrantza
asko ibiltzen ziran or,
juan daneko aspaldi ontan
nik ez det ikusten iñor.

11

Batzuek gizagaixoak gera
ta besteak egoskorak,
emen argatik ibili dira
ain buruzpide koxkorak;
sanidadean daudenak dira
mendiko erreka ziztorrak,
amorraiak an daude gaur ere
txikiak baño pizkorak.

12

Urumea'ko erreka ere
alain txukuna izanik,
garai batean zeñek siñistu
ola narrastuko zanik?
Garbitu bear dutela entzun det
gizon batzuek esanik,
ori egia baldin balitza
artuko nuke poza nik.



*Donosti'ko Gros'eko ondartza, zikiñaldi batean.
"Errekak artu zikiñak eta
itxasora entregatu..."*

(Foto Arturo)

ITXUA

Itxuaren bizitza bai tristea nere ustez; penagarria, itz batean esateko.

Itxuak buru argiz izaten du. Gure Jaungoikoak, gauza bat kenduarren, beste bat ematen du aren ordañez, ta Berak jakingo du bakoitzarentzat zer komeni dan, guk baño obeto.

Nik itxu zar bat askotan ikusi det Donosti'ko kaleertz batean; beti toki jakin samarrean egoten da bera, antxe loteriko billeteak saltzen.

Nunbaitetik bizimodua atera bear ark ere. Nolabait ibili egin bear, jateko ogia bilduko badu.

Amaika otz-aldi artu du onezkero gizajoak. Neguko denborale gogorrenetan ere antxe ikusten da.

Nik, itxuaren ibillerak zertsu diran esanez, bertso-sailtxo bat jartzen det emen.



1

Itxua, or zabiltza
buruz giatuaz,
zeure pauso-lekuak
juxtu billatuaz,
betiko illunpean
ezin fiatuaz,
bastoiarekin kale
koxkak miatuaz.

2

Bastoiarekin lurra
juaz kaska kaska,
billa nun dan zuloa
edo nun dan koska;
zere lekura juaten
naiz galanki kosta,
loteri saltzen laixter
asten zera oska.

3

Ez dezula ikusten
argiak pixtean,
ain gutxi gaua juanda
eguna irixtean;
bati begietako
leiuak ixtean,
betiko gelditzen da
illunpe trixtean.

4

Pausua ematen dezu
leku jakiñean,
ez lokatzetan edo
bide zikiñean;
amaika otz artu dezu
kale-ixkiñean,
askotan billeteak
saldu eziñean.

5

Presa izaten dezu
loteri saltzeko,
zeure egon-tokira
txintxo azaltzeko;
norbait badezunean
besotik eltzeko,
ez dezu bildurrikan
bideak galtzeko.

6

Zuretzat eguzkia
dago itzaldua,
denbora luzerako
etzan azaldua;
begien bixta baldin
badauka galdua,
gizona gelditzen da
erabat saldua.

7

Linbuan bizi zera
asko sufriturik,
iñun argitasunik
ezin arkiturik;
arantza zorrotz batek
biotza ukiturik,
zurekin egoten naiz
oso kupiturik.

8

Kristaua nundinaitik
leike aldrebestu,
bixta dunak igual
osasunik eztu;
zerbaiten faltan asko
bizi gera estu,
munduko zoriona
ez da gure esku.

9

Mundua ikusteko
zaude esperuan,
begien bixta galdu
zendun ezkeruan;
Jauna maite badezu
sinismen beruan,
nekeak ordainduko
dizkizu zeruan.

10

Begi bietatikan
egotea itxu,
ori gizonarentzat
bada naiko pixu;
Jaungoikoa da kristau
fedetsuen maixu,
ta bear-orduetan
lagunduko dizu.

11

Zuretzat beiñere ez du
argitzen egunik,
ta ezin dezu kendu
naigabe illunik;
munduko kristau denak
miatzera junik,
iñor ez gera zerbait
falta ez degunik.

12

Beiñere ezin osatu,
au da desgraziya;
beti zerbaiten falta
edo eskasiya;
bixta degunak alkar
ezin ikusiya,
gauza penagarriya
eta itxusiya.

SEMEAK AITARI

Ameriketara artzai dijoan seme batek agurtzen du emen aita bertsoz.

Len, gure txiki-denboran, gazte askotxo joaten ziran Ameriketara, batzuek artzantzara eta besteak beste lantokiren batzuetara, bakoitza al zuan bezela edo egokitzen zitzaion moduan.

Beste asko, berriz, aizkorak eta trasteak artu ta basora lanera.

Garai aietan etzan orain bezelako taller eta paurrika-aukerik, eta zerbaiteri eraso bear, bizimodua aterako bazan.

Seme orrek aitari agertzen dio zer asmo dauzkan, txanpon batzuen billa nola dijoan.

Ta, gero, aitak beste bertso-sail bat jartzen dio, nola ibili bear duen konsejuak emanaz bere semeari.



1

Amerikara nua
diru pixkat naita,
emen ori sobratzen
oso zalla baita;
sei bat urte an pasa
mendian artzai ta
berriz etorriko naiz,
lasai egon, aita.

2

An egiñikan ardi
mordo baten kargu,
zintzoki jokatzeko
asmoa daukagu;
garaian saiatzea
garbi ta ondradu,
nork ez lezake egin
beretzat on badu?

3

Aita, Amerikara
nuala entzunik,
ez artu naigaberik,
ez galdu zentzunik;
andik ere laguntza
egingo dizut nik,
Jaungoikoak ematen
badit osasunik.

4

Etxeko zoriona
degu premizkua,
emengo izaera
daukat begiz jua;
bizimodua beti
estutzen dijua,
ori pixkat errextu
nairikan nijua.

5

Aita, jartzen dirazu
arpegi tristea,
baleike ama ere
negarrez astea;
nere ama da eta
zure emaztea,
ez nuke nai uraxe
gaizki ikustea.

6

Zaindu zere burua
eta zaindu ama,
aita, ori da emen
egin bear dana;
onez aurrera izango
dezute zer jana,
andik bialduko det
sobratzen dedana.

7

Diru-egarri ori
lendikan nuan nik,
ez uste ni bestela
ara nijuanik;
Amerika'ra eta
noranai juanik,
gurasoz ez da azten
biotzik duanik.

8

Lana egin bearrak
ez gaitu samintzen,
ezin leikenik iñork
ez badu agintzen;
zuk kartak egin, aita,
al dezunik maizen,
nik erantzungo dizut
nola bizi naizen.

9

Seme batek, aita on
baten anparoan
arkitzean, ez daki
zeñekin dagoan;
gugatikan nekatu
zera luzaroan,
ta ondo ikusi nai
zaitut zartzaroan.

12

Amerika'n nai diot
artzantzari eldu,
irabazten dedana
aitari bialdu;
ongi portatu danak
ordaña biar du,
alkarren maitasunik
ez dezagun galdu.

10

Aita, zuk artu dezu
tratu txar ugari,
azi eta eskolak
eman arte guri;
ainbat izerdi dezu
gugatik ixuri,
neke oiek ordaindu
nai dizkizut zuri.

13

Eguna argitutzen
duen bakoitzean,
goizetik asiko naiz
Jaunari otoitzean;
berak gogorazten du
artara oitzean,
zu're saiatu, aita,
nitaz oroitzean.

11

Ara, aita maitea,
nere itzak entzun,
badakit ondo asko
zenbat maite nazun;
seme on baten gisan
nai dizut erantzun,
ni azitako penik
izan ez dezazun.

14

Sei urterako nua
jakiñean aurrez,
gero ni an gelditzen
ezta izango errez;
iñoiz ez naiz aztuko,
ez egon bildurrez,
nere gurasoz eta
jaiotako lurrez.



*"Amerika'n nai diot
artzantzari eldu..."*

*(Euskal artzai bat Ameriketean.)
(Foto: National Geographic, 1966.VI)*



*"An egiñikan ardi
mordo baten kargu..."*

*(Euskal artzai bat Ameriketan.)
(Foto: National Geographic, 1966.IV)*

AITAK SEMEARI



1

Nere seme maitea,
Amerikarako
martxa artu dezu gu
pobre geralako;
badegu zer jana ta
oia lotarako,
zer geiago biagu
mundu ontarako?

2

Sei urterako zuaz
diozun moduan,
beti edukiko det
itz ori goguan;
seme, zu nai zaitugu
guk geure onduan,
bizitzan bezelaxe
eriotz-orduan.

3

Seme, nik ez daukat zu
azitako penik,
amak ere ez det uste
izango duenik;
zurekin pasatzia
urte batzuk bēnik,
orixe bakarrikan
desio nuke nik.

4

Badakigu, seme, zuk
maite gaituzula,
laguntzeko asmoak
artu dituzula;
Jainkuak osasuna
ematen dizula,
nik uste det zuk zerbait
egingo dezula.

5

Len ere Amerikan
badira euskaldunak,
zu zuazen bezela
artzantzara junak;
emen gelditzen gera
maite zaitugunak,
zugatik alegiñak
egin ditugunak.

6

Jarraitu nai zenduke
zuk aita sarituz,
artzantzan egindako
lanaren merituz;
au komeria alkar
ezin despedituz,
kristala bezin fiña
zera espirituz.

7

Ama zaintzeko eman
dirazu ordena,
bera izango da, bai,
gauzikan onena;
ura utzi bearrak
eman dizu pena,
or ezagun da alkar
maite dezutena.

8

Zu Amerika aldean
zeran arte artzai,
nik ama zainduko det,
egon zaitez lasai;
beñ ere ez gera izan
gu alkarren etsai,
emen gelditzen da zu
noiz etorriko zai.

9

Amak jakin zunean
artzai zuazela,
negar egiten zuen
aur batek bezela;
pentsatuko bazendu
etortzia bêla,
ementxe daukazu len
azi ziñan gela.

10

Malko beroak ditu
amak masallean,
bera datozkionak
alkarren sallean;
itzik gabe an dago
jarrita sillean,
zer pena ote dauka
biotz ixillean?

11

Ongi nai diozute
zuk gurasueri,
seme denak ez dute
aunditasun ori;
agur esanaz zeure
kabi goxoari,
lartan bat emaiozu
ama gaixoari.

12

Aitaren konsejua,
seme, zuk ez aztu:
euskalduna zera ta
fedean ez oztu;
garbi jokatu beti
naiz ez aberastu,
eriotzik ez egin
da ezer ez ostu.

13

An izaten dirala
tentazio txarrak,
esaten dute lengo
indiano zarrak;
al badezu beintzat ez
zikindu atzaparrak,
emen ez du balio
geroko negarrak.

14

Seme, zu azi zaitu
amak magalean,
nola sortu baitziñan
bere sabelean;
Jaunari eskatzen diot
iñundik alean,
berriz bildu gaitzala
lengo sukaldean.

AMA BATEN NAIGABEAK

The musical score consists of eight staves of music in treble clef. The piece is divided into two main sections by a double bar line. The first section is in 2/4 time and contains the first four staves. The second section is in 3/4 time and contains the last four staves. The notation includes quarter notes, eighth notes, and rests, with some notes beamed together. There are also some slurs and accents. The key signature is one flat (B-flat).

1

Ama tristeak zer itzegiña
badauka bere alabez,
gaixotu da ta orain ez daki
sendatuko dan ala ez;
poza espero zuen garaian
or bete dute naigabez,
lenago ere munduan danak
ez dira galdu zardadez.

2

Ama bizi zan bere alabak
zintzuak diralakuan,
alabak berriz illunpetako
jolasak diran lekuan;
gaztekeriak indar aundia
izaten du alakuan,
beren buruak ondutzen dabiltz
ongi dabiltzalakuan.

3

Alako baten amak jakin du
alabak nola dabilten,
penak biotza lertu dio ta
negarrez ez da ixiltzen;
eta esan du: Pentsatzen nuen
garbi ez ote zebiltzen,
goizeko ordu biak aurretik
etziran etxera biltzen.

4

Saloietara joaten dirala
mutil bizartsuengana,
sarri ikusi dituen batek
dit konfiantzan esana;
kargu artuta alaba batek
erantzun au dit emana:
Guk badakigu zer gabiltzan da
ixilik zaude zu, ama!

5

Alaba ori jarri zitzaidan
arro eta lotsagabe,
erantzun nion: Iñork artuko
ez baldin baziñu obe;
zuk maite dezun tximoso orrek
bera eskaxa bada're,
gixaraxuak egin bear du
prenda ederraren jabe.

6

Gau illunean jolastia ta
pasiatzia kotxian,
beste kezkarik ez da arkitzen
oien memori motxian;
auzokuentzat ibiltzen degu
mingaña libre antxian,
eta askotan gertatzen dana
aldrebesenak etxian.

7

Oien jantzien lujua eta
oien diru gastatzia!
Zertarako da ondo azitzen
orrenbeste kostatzia?
Buru ariña dagon artean
errexia da jostatzia,
usteko dute mutil jatorrak
oientzako gustatzia.

8

Esan liteke etzeratela
burutik ondo osatzen,
bide galduan zabiltzatenik
ez al dezute pentsatzen?
Egunen baten asi bearra
daukat gauzak konfesatzen,
ez pentsa gero errexia danik
beti ixilik pasatzen.

9

Ez nuen uste gure alabak
zebiltzanik olain gaizki,
gaurko gazteak orrek ondatzen
ditu amarretik zazpi;
itxura danez, oien berriak
jendeak ongi dakizki,
gure etxean giro litzake
aitak baldin balekizki.

10

Zuentzat engañagarri onak
dira mutil bizartsuek,
berotu-azten zaituzte nonbait
denak inpernuko suek;
inguratutzen badituzte
zeuen moduko batzuek,
gaur edo biar famelirako
ai zer gurasoak zuek!

11

Gaua galduta emen zatozte
narrastu ta txoratuak,
gu sarri giñan illuntzerako
festatik etxeratuak;
iñoiz aztuko ez diran penak
zaizkit biotzeratuak,
esan ziraten: Zuek zerate
lengo zar atzeratuak!

12

Gaurko gazteak beren ustetan
dauzkagu buruz argiyak,
baño banaka dira oietan
zintzoak eta garbiyak;
aitak jakingo baldin balitu
nik dakizkidan erdiyak,
apartatuko lituzke laixter
akerrak eta ardiyak.

13

Gu're gazteak izandu giñan
naiz orain egon zartuak,
urte batetik bestera emen
dira mudantzak sortuak;
gaurko gazteak bizio txarrak
dauzka mendean artuak,
ikusten dira buruz aurrera
lokaztegian sartuak.

14

Euri-denboran oñetan jazten
giñuzen abarka gomak,
aiekin galtzerdi lanazkuak
eskuz egiñak amonak;
belaun koskorak itxurantzean
tapatzen zituzten gonak,
alare ederki ematen zuen
garbi jantzita zegonak.

MUTILZAR BATEN NAIGABEAK

Gaztetan izan omen zuen ezkontzeko aukera ederra; baño orduan errex xamar utzi, ta diruz ere urri antxean arkitzen omen zan.

Beste aldetik, berriz, libertade pixka bat ere gustatzen, da gazte-denbora pixka bat luzatu egin nai; gero ere izango zala ezkontzeko denbora, pentsatzen omen zuen.

Da azkenean berandu egin gizajoari; askotan gertatzen dana.

Astoak bezela lana egin da orain diruz dexente jantzia egon bear du, baño bakardadea sentitzen gero ta geiago.

Baserri batean, an bere auzoan, bai omen daude bi neska, oso gazteak ez diranak aiek ere, ta bietako batekin ia ezkontza moldatzen ote zuan da joan omen zan zer asmo zeukan esatera. Entzun omen zituan bereak eta bi!

Ara emen zer dion mutilzarrak bertsoan.



1

Emen ezkondu gabe
gelditzen errez-tek,
gure urte apurrak
ola zijuaztek;
mutilzartzea baño
tristegorik eztek,
orren berri etzekik
probatuak bestek.

2

Gaztetan ezkontzeko
egon nitzan dudan,
ara nere izatea
zertan gelditu dan;
zintzoki lan egiñez
neguan da udan,
eskerrak txanpon batzuk
sobratu ditudan.

3

Akaso ondo biziko
nitzan ezkontuta,
ori gure erriyan
askok esan du-ta;
aspaldian aukerik
eztet izandu-ta,
bakarrik emen nago
erdi lizunduta.

4

Bi aizparen etxera
bein jua nitzan aurten,
galdezka ezkontzeko
asmorik bazuten;
andik ere aurrean
bialdu ninduten,
ara emen mutilzarra
zenbat maite duten.

5

Laixter arrotu ziran
neskatxa sakatsak,
arpegira esanaz
nik neuzkan akatsak;
batek bota zizkidan
enbido minkatzak,
bildurra ematen du
alako makatzak.

6

Neska beltzak jarraitu
zuen armoniyan,
esanaz: "Zer nai uan
pentsatzen geniyan!
Irekin gustatuta
ezkondu-premiyan
egon bagiña, zerbait
neuk esango niyan!"

7

Len utzi ualako
artu ezakena,
bakarrik gelditu aiz,
mutilzar zekena!
Au dek azken tristea
etorri zakena,
orain iñork konpondu
ezin lezakena!"

8

"Arrazoia eman dezu
bete-betekua,
kasketa artu nuen
neure kaltekua;
andregai bat utzi nun
ogei urtekua,
pena ori det bizi
naizen artekua.

9

Neskatxak, ibilita
umil da zintzoki,
zer pena artu zuen
Jaungoikoak daki;
orduan banitzan ni
gaur aña gizaki,
baño diru aldetik
pobrea izaki”.

10

“Sasoian egin zendun
joera ergela,
zer uste zenduen zuk
mundu au zer dela?
Orain andrea ez dezu
billatuko bela,
txarrena daukazu zuk
urtien pardela”.

11

“Neskatxa, kontseju bat
emango nizuke,
gerorako mesede
egingo lizuke;
lenbailen saiatzea
obe dezu zuk e,
bestela gauza bera
gerta litzaizuke.

12

Lenago ez nekien
lagun-falta zer zen,
saso duen artean
bat ez da oartzen;
ia zu ere iñork
etzaituen artzen,
aukera izateko
ari zera zartzen”.

NAPARROA

**Naparroa'k badu bere nortasuna; badu bere aberas-
tasuna.**

**Berak ematen digu jateko ogia; berak ematen digu
ardoa. Ain ugaria da, izan ere, maatsez eta gariz, ta olio-
ere osatzen dana da. Beraz, gauzik bearreneko batzuek
berekin ditu. Erribera aldean artzen diran kosetxak dira
oiek.**

**Eta asi zaitetz or Lekunberri ta Arruitz aldetik barrena.
Jo zazu Ultzama aldera. Ikusiko dezu ganadu-talde ede-
rrik; ukullu-alde txukun askorik ere bai.**

**Or baserritarrak esnera ta aragitara jotzen dute.
Esnea bildu ta txekorrak azi, alegia. Or baserria oraindik
txutik dago. Or nekazari jende langillea da oso, ta lanetik
dago zerbait. Ortik da gure etorkizuna, ta orri eutsi bear
diogu, al degula beintzat.**

**Gero, berriz, Baztan alde ori ere lurralde polita da
berez. Or, Elizondo aldetik asi ta inguru oietan, erri polit
asko da.**

**Orko nekazariak txerrira jotzen duela uste det geien-
bat: txerrikumeak azi ta saldu. Bei-ganadua gutxiago
ikusten da beintzat alde ortan, nere ustez. Lurralde
bakoitzak bere oiturak izaten ditu ta bere bizi-posturak.**

**Ardi-ganadua, berriz, asko da Naparroa'n; danean,
esate baterako. Mendi-sail aundiak baititu. Ardiak men-
dia bear du; libre, berak nai duen tokira joan dedilla ta jan**



Naparroa'ko pagadi bat.

(Foto A.Z., 1975.IV.27)

dezala lasai. Ardiak orduan ematen du etakiña, ta onetik eman ere gañera.

Arkumeak bere garaian tira edo ixtimazio aundia izaten du, ta gazta onak zer esanik ez. Ardi-esnea, berriz, beti arrapazka ibiltzen da. Nai aña billatu ezin.

Illea ere ala izaten zan len; urte auetan pixka bat sobratuxeago ikusten da ori baña.

Len esan dedana, mendi onak diran tokian, ardiak asko ematen du; bei-ganaduak aña lan ere ez baitu.

Egurrez ere ondo aberatsa da, ba, Naparroa. Lengo urtean ibili giñan or, San Migel aldetik asita, mendi batzuek ikusten, da bada alde ortan pagadi ederrik. Ori da zoramena mendiena! Ori da edertasuna! An ikusten ziran larrean nunai bei ta beor ta ardiak, eta lasai asko, terreno denak beren mende zituztela.

Piñudiak diran mendietan, ez dago olako lasaitasunik. Emen, Gipuzkoa aldean, orrek galdu du mendietako ardi ta ganaduen izatea: piñuak.

Industri edo kaleko lan-toki oietatik egon bear du Naparroan erri txiki jende ori motz antzean, esaten dutez. Ta ala ikusten da.

Orain Leitza'ko *Sarrió*'ra etortzen omen da jende asko lanera erri txiki oietatik. Nun irabazirik gabe zeudentzako, ondo etorriko zan ori.

Len Naparroa'tik Frantzi'ra joaten zan jendea asko basora lanera, ta oraindik ere gazte jendea asko joaten dala uste det.

Baño baso-lana, urte askoan ibiltzeko, lan gogorra da, ta oiek gelditzen asiko dira emen, bertan lan-tokia aukeran ikusten badute.

Lantokia errian edo erritik bertan izatea gauza ederra baita personarentzat; norbere etxera egunero erretiratze-ko moduan izatea.

Bizi-leku atsegiña da berez Naparralde ori. Jende sanoa ta garbia. Euskalerra mamitsu ta jatorra.

Lengo guraso zarrak oso euskaldunak ziran Naparroa'n. Orain, urte auetan, dexente atzenduta egon dala uste det euskera, nunai bezelaxe.

Baño berriz ere asi dala esan diteke kimu-berritzen. Ikastolak ugaritzen ari dira, ta siñale ona da ori. *Principe de Viana*'k ere bere aldetik lan asko egiten duela uste det; eta, gazte jendeak gogoa artzen badu, zerbait iritxiko da.

Nik itxaropen orrekin jartzen diot bertso-sail bat Naparroa'ri.





*"Lur lantzalle ona da
or nekazariya,
nunai oparo dute
matsa ta gariya..."*

(Foto A.Z., 1975.IV.27)

1

Naparrua'ri diot
maitasun itzala,
nola dan jende ona
eta serbitzala;
poz bat daukat nerekin
an jaio nitzala,
bertsuak jartzen dizkat
ikasi ditzala.

2

Naparrua lurralde
goxua da egiz,
ori aitortzen diot
errespeto aundiz;
arkitzen geranean
gosez ta egarriz,
berak asetzen gaitu
ardoaz eta ogiz.

3

Lur-lantzalle ona da
or nekazariya,
nunai oparo dute
matsa ta gariya,
baita ere esnea
eta aragiya;
Naparrua danetik
degu ugariya.

4

Zer degu ardo ona
añeko edaririk
da jateko ogia
bezin ugaririk?
Etxean ezpada're
beste zer jarririk
oiek dauzkanak eztu
gose-egarririk.

5

Ango gari-soroak
da ango mastiyak,
mendiko pagadiyak
eta ariztiyak!
Urri xamar dauzkanak
dira industriyak,
ori esaten dute
jakintsu guztiyak.

6

Euskerak e oraindik
badu osasuna,
orrek ematen digu
guri poztasuna;
Naparrua, zuk gorde
zeure nortasuna,
ori da erri baten
aberastasuna.

7

Naparrua'k euskera
beti du beria,
antxe ikasia det
nik ere neria;
ori da berdiñikan
gabeko loria,
emango bagenio
bere baloria.

8

Aldi batean urri
ibili da lendik,
laguntzarikan nola
etzuen iñondik;
orren gaitza sendatu
liteke oraindik,
indarra artzen badu
jakintsuengandik.

9

Leku batzutan zegon
pixkat zapaldua,
berriz kimu berria
digu azaldua;
gaur nonai ikastola
dago zabaldua,
ia billatzen degun
lenago galdua.

10


Nere iritzian da
Principe Viana,
euskerari laguntzen
asko ari dana;
borondate aundian
egiten du lana,
euskaldun izan dedin
Naparrua dana.

11

Jende azkarra bildu
oi da Iruñe'ra,
euskera zabaldu nai
du erri-muñera;
arnas-berrituko da
ta azkar gañera,
sartzen bada gaztien
biotz biguñera.

12

Euskaldunak giñuzen
guk aurretikuak,
euskera edan genduen
aurtxo titikuak;
gaurko zarrak ez gera
emen betikuak,
zuek orain ikasi,
nexka-mutikuak!



Naparroa'ko Gaintza.

(Foto J. Elozegi, 1963. IX. 22)

GIZON MOZKOR

BATI BERE ANDREAK



1

Emazteak arrazoi
ta senarra sutan,
ola gabiltza beti
edo geientsutan.
Ez al dakizu zenbat
laguntzen dizutan?
Ondogi egitea
kalte da batzutan!

2

Sosik ekarri gabe
amazazpi aste,
alare zeuk arrazoi
daukazula uste;
dendan atea laixter
itxiko dituzte,
zer janik ez degula
utziko gaituzte.

3

Mozkortzean joko
du bere gogoko,
ori bizio txarra
da eguneroko;
etorkizun ederra
daukagu geroko,
urte asko ez ditu
ortan igaroko.

4

Atzo're kalean zan
bazkaldu ta bela,
ni baño maiteago
dauka ardangela;
goiz aldera etorri zait
oso min duela,
nik uste nuen bertan
ilko ninduela.

5

Irurak aldean or
dator zarrastaka,
zapata bat galdu ta
galtzak arrastaka;
ardo-pitsa ezpañak
bera parrastaka,
txutik egon ezinda
neri purrustaka.

6

Mozkortzen dan guzian
etxean kamarra,
edoziñi erasten
digu atzamarra;
orren joera dago
ikusi samarra,
aazorako ohea
olako senarra.

7

Umeak ere dauzka
oso baztertuak,
aien biotzak daude
negarrez lertuak;
gure nekeak beti
gaizki eskertuak,
bizimodu onekin
gaude aspertuak.

8

Txarrerako dun griña
balu onerako,
gogo geio izango
luke lanerako;
etsai biurto zaigu
gutxienerako,
ai zer laguntzallea
aldamenerako!

9

Kurpillak darabilzki
bigurri-antzean,
oso kolokatuak
dauzka ardatzean;
naiko balantza bazun
atzo arratsean,
eskerrak lo artu zun
bere narratsean.

10

Gure bizitza ezta
irriparrezkua,
senarraren biotza
da zigorrezkua;
ta nik aguantatzia
derriorrezkua,
batek obeditzea
da biarrezkua.

11

Ez daukat laguntzikan
aurrak azitzeko,
eskolak erakutsi
eta ezitzeko;
senarrak danak eskax
berak luzitzeko;
pazientzia bear
ola bizitzeko!

12

Berotzen diranian
orren mutur-mintzak,
malkoak sortzen dizkit
negarraren intzak;
ez dakigu tximixtak
diran orren itzak,
edo saltatzen zaizkan
matrall-ezur-printzak.

13

Askotan entzun dute
nere belarriak
ori eztala egongo
beti egarriak;
zentzun gabeko gizon
buru-elbarriak
asko izaten dira
etxe-galgarriak.

14

Entzun izan diotet
nai baño geiori
bizimodua galdu
zaigula biori;
tabernan mozkortu ta
kalean erori,
gizon buru gabeak
egiten du ori.

MAITASUNAREN POZA

Maitasunaren poza ez da txantxetakoa inñolaz ere. Ala esaten du emen mutil batek.

Berak gutxiena uste zuen neska gazte batek esan omen dio, kalean alkar billatu duten batean:

—Egun on!

Da:

—Baita zuri ere! —erantzun zion mutillak.

Eta jarraitzen dute aurrera izketan biak, da mutil ori pozik jarri omen zan alako lore batek itzegitearekin baka-
rrik ere.

Baño neskatxak, oiek denak baño gauza aundiago bat esan omen zion berealaxe mutil orri:

—Nik badet benetan sentitzen dedan gauza bat zuri esan bearra.

—Zer dezu bada? —galdetu omen zion mutillak.

Eta:

—Ni zurekin ezkonduko nintzake pozik, zuk nai izan ezkerro!

Laixter eman zion noski baiezkkoa mutillak. Nola etzion, ba, emango, berak geienbat maite zuen neskatxa batek itz ori esanda?

Ori da txoria eskura etortzea goxotasunean.

Da mutil onek, pozaren pozez, bertsoak jartzen diz-
kio.



1

Dama bat agertu zait
ni maite nagona,
olakuak alaitzen
du triste dagona;
atzo nintzan berari
begira egona,
ura zan aingerutxo
polita zegona!

2

Nerekin bazuenik
olako ametsik,
ez nuen siñistuko
berak esan ezik:
Ezkonduko nintzake
naiz izan ez sosik,
besterekin ez baño
zurekin bai pozik!

3

Ikusi nagonean
bakarrik nagola,
laguntza egin nai dit
naiago det ola;
bion arte txertatu
dezagun arbola,
euskerari frutua
eman dezaiola.

4

Ni senartzat artzia
zaizu gogoratu,
itz orrekin ez nazu
gutxi meioratu;
ara nere arbola
berriro loratu,
maitea, ez dakit zu
nola adoratu.

5

Itz ori entzunikan
asi naiz bertotan,
zurekin bizitzeko
esperantz osotan;
agintzen badirazu:
"Ar nazu besotan",
baietz esango dizut
irripar gozotan.

6

Gauzak garbi dizkiot,
ez nabil lardaskan,
frutu eder asko da
euskaldunen kastan;
olako lore batek
emateko laztan,
ez dakit suerte au
neretzat nolaz-tan¹.

7

Nerekin ezkontzeko
zuk ainbat enpeño,
iñortxok ez du egin
orain arteraño;
ez nuen uste, zerbait
banekien baño,
zuk maite ninduzunik
orrenbesteraño.

8

Ortarako ez det nik
kezka ta ardurik,
etxean ez dirate
artuko kargurik;
zuk izentatzen dezun
egun ta ordurik
neri etzait aztuko,
ez izan or dudik.

¹ Nolaz-tan: nolaz dan.

9

Ezkontzeko asmoak
artu dituzu-ta,
maitale bat nai dezu,
arrazoi dezu-ta;
prestatuko naiz, noizko
esan zaidazu-ta,
emendikan aurrera
zeuria nazu-ta.

10

Amets bat egin nuen
oraindik oraintsu:
zure aldemenean
nintzan zoriontsu;
Jaunak zaindu gaitzala
biok osasuntsu,
bizitzeko luzaro
eta maitasuntsu.

ERNIO'KO IBILLERAK

Orain aspalditxoan ez naiz izan ni, baño garai batean bazuen Ernio'rako joera jendeak. San Juan txikietatik San Migelak arte, lau igandetan edo ola izaten zan ango ibillaldia. Izugarrizko zoramena izaten zan.

Gauetz ateratzen ziran jendeak etxetik, urrutitik etorri bear zutenak beintzat.

Or Donosti aldetik eta inguruetatik zetozenak, goizeko ordubiak edo irurak aldean pasatzen ziran Aia aldean gora, soñua ta panderoa joaz ta irrintzi galantak egiñez, neska ta mutil-sail ederrak.

Eguna zabaltzerako Ernio'ra Zelatun'dik gora, kalbarioak erreztatuz, otoitzak egiñez, antxe arri-gañetan belaunikatuaz. Beti izaten ziran persona edadetuak ere, erreztatzen ondo zekitenak.

Goiko gurutzera irixtean, burnizko uztai batzuek izaten ziran, da aiek burutik bera sartu ta gorputzean pasa. Ori zan lengo oitura.

Andik Zelatun'era jetxi ta an salda beroa artu ta gosaldtu. Nunai egoten zan salda ango txaboletan. Pertz aundi batzuetan ollo zar aundi batzuek egosten jarri ta salda. Bukatzen ziranean, berriz bota ura gañetik, eta, irakiten zuenean, berriz naiko salda.

Sua egiteko ere, egur-paltik etzan izaten; da ollo zarrak, berriz, ez gaurkoak bezelakoak, leporaño gantzez beteak.

Beste askok etxetik eramaten zuten jatekoa, ta gosaldtu an, mendiko sanidade ederrean.

Gero, erromeria egiten zan Zelatun'en bertan. Zelai ordeka eder bat bada an, da soñu-jolea ere aukeran izaten zan egun oietan, da gazte jendeak dantzaldi batzuek egiten zituen.



"Goiko gurutzera irixtean, burnizko uztai batzuek izaten ziran, da aiek burutik bera sartu ta gorputzean pasa."

*(Foto Luis Pedro Peña-Santiago,
1974'eko San Juan txikieta.)*

Eguardirako bera, Iturriotz'a ta Muatz'a, bazkaltzera; ta arratsaldean oietan erronomia izaten zan. An ere beste jolasaldi batzuek egin.

Illunabarrean etxe aldera, zarrak lentxeago ta gazteak geroxeago.

Olaxe izaten zan orko ibillera, ta nik argatik egiten dizkiot aitonatxo bati galdera batzuek: ia lengo oitura ederrak bizi ote diran. Da aitona samindua billatzen det, eta bertso batzuek jartzen ditut Ernio'ri buruz.

The image shows a musical score for a song. It consists of ten staves of music, all in E major (one sharp) and 2/4 time. The melody is written in a single voice line. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 2/4 time signature. The music is a simple, folk-like melody with a mix of quarter and eighth notes, and some rests. The piece concludes with a double bar line and repeat dots at the end of the tenth staff.



*"Garai batean gure Ernio'n
ikusten zan ainbat gazte,
belaunikatu arkaitzean da
Jaunari zorion-eske..."*

(Foto Boni Otegi, Erreenteri, 1962'an.)

1

Aia'ko aitona batek lenguan
egin dit neri bixita,
ura zan poza, alkar ez gendun
aspaldian ikusi-ta!
Noiz ixildu're ez gendekigun
biok izketan asita,
etxeratu zan bere barrengo
penak adierazita.

2

Aitonak dio: "Eldu gera gauz
xelebreak ikustera,
mudantza aundiak ditugu emen
urte batetik bestera;
eleizak ere iritxi dira
geienak erdi usterak,
bi gauz onenak galdu zaizkigu:
siñismena ta euskera.

3

Mendietako ermitak ere
erori zaizkigu oso,
abandonuan ikusi arren
alerik ez degu jaso;
ola jokatu baldin balira
aurreko zenbait guraso,
gu ibiltzia zaill izango zan
gabiltzan bezin eroso".

4

Alako baten aitona orri
galdera auxe egin nion:
"San Juan txikiz len ainbat
[jende
biltzen ote da Ernio'n?"
Sentimentuzko begirazun bat
alkarri egin genion,
erantzun ziran: "Juan bazera
zeuk antzemango zenion.

5

Garai batean gure Ernio'n
ikusten zan ainbat gazte,
belaunikatu arkaitzean da
Jaunari zorion-eske;
lengo oitura zoragarriak
oso galtzen dijuazte,
utsa litzake obeaguak
asmatzen balijuazte.

6

Siñismentsua izan da iñoiz
batzuen gazte-denbora,
ez dakit berriz orren indarra
iritxiko dan lengora;
kalbariyuak errezatuaz
denak Zelatun'en gora,
esan ziteken juaten zirala
zeruko atal ondora.



*"Kristok odola gurutze baten
gugatik zuen izuri,
Ernio'koak au erakusten
digu neri eta zuri..."*

*(Foto Boni Otegi, Errenteri; 1963'eko Ostiral santu
egunbatean.)*

7

Len gurutzeak ugari ziran
gure arkaitz gordiñetan,
siñismenaren siñalagarri
jarriak mendi-gañetan;
belaunikatu ta otoitzean
gurutzearen oñetan
iñoiz Ernio'n jardunak gera,
baño ez bear añetan.

8

Kristok odola gurutze baten
gugatik zuen ixuri,
Ernio'koak au erakusten
digu neri eta zuri;
aize zakarrak astindu arren
beiñ ere ez da erori,
mendi gañetik ardiak zaintzen
dagon artzaia diruri.

9

Zerua urdin dagueanean,
gure Ernio mendira,
berak dei egin balit bezela,
egon izan naiz begira;
eguzkitara ikusten badet
gurutzearen dirdira,
itxaropen bat goxoa sortzen
zait biotzaren erdira.

10

Goiz-argietan iñoiz jeiki ta
otoitz egiten asteen,
Ernio mendin gurutz aundi bat
beso zabal ikustean,
pentsatu izan det: Jaunari ari
zaio guretzat eskean,
nork daki berak zenbat mesede
eskuratu lezazkean?"

11

Aitonak dio: "Guk nai badegu
zeruraño irixtia,
ez da komeni lasaikerian
geiegirik errextia;
Jaunak pentsatzen badu zerutik
gu epaitzera jextia,
pena litzake bere ardiak
bi pusketan berexxia.

12

Guztiok gera pekatariak,
alaxe iduritzen zait,
da azkenean damutasuna
sortzen bazaigu an nunbait;
barruan degun xomorro batek
beti esaten du zerbait,
or ezagun da gure aldean
aundia badala Norbait".



Iturriotz'ko benta

(Foto A.Z., 1975.IV.29)

ORIO'KO ARRAUNLARIAK

1974'garren urtean jokaturako estropalariak, oriotarrak, auetxek izan ziran: Jose Ramon Lizarralde, Migel Solaberrieta, Jose Inazio Perona, Jesus Mari Perona, Juan Atxega, Jose Agustin Irastortza, Jose Luis Zinkunegi, Luis Mari Olasagasti, Jose Manuel Bereziartua, Jose Luis Bereziartua, Antonio Elizalde, Andres Iburguren, Jose Benito Brit, Dionisio Redondo.

Suplenteak: Jose Ramon Olasagasti, Martin Perona, Jabier Puertas, Joakin Manterola, Jose Manuel Urkizu.

Patroia, berriz: Juan Lizarralde, *Altxerri*.

Auek dira nere ustez, oker ez banago, lengo urte ontan estropadan ibilitako jendea.

Ta, ainbeste estropada irabazi zutelako, Azaroaren 10'an, omenaldi bat egin zioten mutil oieri erriak.

Ta nik orduan bertsoak jarri nizkien.



*"Berdin gabeko lana
gizon sail batena
da aurten arraunean
egin digutena..."*

*(Orio'ko arraunlariak, 1974)
(Foto Sánchez, Orio)*



1

Berdin gabeko lana
gizon-sail batena
da aurten arraunean
egin digutena;
gero omenaldi bat
da izan dutena,
ondra guziarekin
merezi zutena.

2

Gure arraunlarien
berotasun-garra
derriorrean zegoen
omendu bearra;
aurtengo Azaroko
illaren amarra
pasa genduen egun
dotore samarra.

3

Banderak bedeinkatu
lenengo elizan,
ondorean estropa
ederra ikusi zan,
gero erri-bazkaria
oitura dan gisan,
egun goxoagorik
ezin leike izan.

4

Santiyo inguruko
illunabar baten
mariñel zar bat jardun
zitaidan esaten:
"Oriyo España'n
txapeldun da aurten!"
Ark esan bezelaxe
dira gauzak erten.

5

Ion Altxerrik bost urte
patroi daramazki,
zuzendari-karguak
berak derabizki;
ez det uste portatu
zaigunikan gaizki,
eskertzeko badegu
motiborik aski.

6

Bera da arraunean
bikain ikasiya,
amasei urterekin
lan ortan asiya,
bandera eta kopa
asko irabaziya;
argatik da erriyan
ondo ikusiya.

7

Txalupa eder ortan
mutil bat bakarrik
ez omen du ikusi
nagi ta baldarrik;
bere kuadrilla asko
maite du Altxerrik,
artzai onarentzako
ez da ardi txarrik.

8

Batzuek lenbizitik
asten ziran joan,
Oriyo gerora ta
sasoi obegoan;
ederki erakutsi
dute aurtengoan
jakinduria eta
gatza nun dagoan.

9

Asieratik mantxo,
gerora gordindu,
bear danean jo ta
bentajak berdindu;
Altxerrik ori aurten
askotan egin du,
patroi onak badaki
lana noiz agindu.

10

Txalupa ortan bazan
indarra ta gatza,
lenaz gañera Oriyo
oiek dute altza;
erriarentzako zan
urte aberatsa,
arraunlarientzako
gogorra ta latza.

11

Kintoz bekuak ziran
zazpi mutil gazte,
oiek ondo dirala
gora dijoazte;
aurtenguan geienak
arritu gaituzte,
sei banderatikan bost
ekarri dituzte.

12

Indar biziya eta
jakinduri mañak
estropan premizkuak
ditu itxas-gañak;
ederki tiratuaz
gorputzeko zañak,
egin ditu Oriyo'k
olako azañak.

13


Auxe esango nuke
oraingo bertsuan:
Oriyo'k lana egin
du fede gartsuan;
Michelin ere zegon
sasoi indartsuan,
ari irabazteko
ona bear zuan.

14

Lenago're Oriyo'n
indar-paltik etzan,
urteak pasa ditu
arraun-erregetzan;
lenaz gañera berriz
aurtengo au zer zan?
Gizon baten mingañak
ez lezake esan.

15

Orain onak ditugu
ta onak languak,
Oriyo'n ez dauzkagu
zarrak atzenduak;
oraindik bizi dira
aitona senduak,
gaztetan arraunlari
latzak izanduak.



*"Orain onak ditugu
ta onak languak
Oriyo'n ez dauzkaqu
zarrak atzenduak..."*

*(Orio'ko arraunalariak, 1925 urtean)
(Donosti'ko Iñaki Agirre'ren artxibotik)*

GAU EDER BAT

Gauean mendia tristea dala esan oi dute askok. Ez beti; izaten dira gau-giro eder askoak, da alakoetan gustora ibiltzen da mendian ere.

Ni egokitu nintzan, lengo San Juanak inguruko illunabar batean, nere lagun baten baserri-etxera joanda, geure arteko itzegin bear batzuekin.

Etxeke nagusiak esan zidan, alkarrekin apaldu bear genduela, aspaldiko partez. Ala, apaldu genduan alkartasun ederrean; itz aspertu bat egin ere bai.

Abiatu nintzan, ba, etxe aldera, puru bat pixtu ta lasai ederrean.

Illargi ederra zegoen. Lañorik etzan iñun ikusten. Zeru aldea, dena izarrez josia zegoen.


Ala, banentorren menditxo batean bera, ta iritxi nintzan erreka-txulo batera.

Bidearen ondoan, iturri eder bat ari zan ura txorroan ematen, zugaitz aundi baten azpian, gaixoa.

Inguruan, beste arbola-sail aundi bat, zerutik zetorren intza tantaka zutela.

Ta entzuten zan errekan bera zijoan uraren otsa, ta usai garbi ta sanao.

Iturri artan ur-trago bat egin, bertan arri-gain batean exeri ta egin nuen egon-aldi bat; eta gau aren edertasunari buruz jarri nituen bertso auek.



1

Gaueko amabiak dira ta
nabil etxetik kanpuan,
nere biotzak goxotasuna
sentitzen duen lekuan;
txoriak lotan dauden artean
astera nua kantuan,
gero etxera aldegingo det
oiek esnatzerakuan.

2

Gau-giro onez sarri mendia
bixitatuko banuke,
nere osasun dudako onek
alde ederra baluke;
gauzez mendia tristea dala
batzuek pentsatzen dute,
naiago nuke edertasun au
ikusiko bazendute.

3

Izar argiak ikusten dira
zeru urdiña betean,
ta illargiak ura brillua
arunzko mendi tentean;
ixil zaudeten anai-arrebak
maindare txuri tartean,
lo egizute kezkarik gabe
zorian goxo batean.

4

Jauna or ari da intz ederra
zerutik bera botatzen,
eta loreak buru-makurka
beren xorruak betetzen;
gau eder onen goxotasuna
ez dute gutxi maitatzen,
gaixuak ari dira biarko
gorputzak alimentatzen.

5

Gau eder onek al dakit zenbat
gauz gogorazten dizkitan?
Zenbat aingeru ote dago lo
goxo estalki azpitan?
Etxe barrua eta kanpua
biak daude poz ez-titan,
obe litzake zorian auxe
bagendu leku guztitan.

6

Ez da ikusten odei illunik
eta ez dabil aizerik,
lore guriak intza txupatzen
iñola ezin aserik.
Noiz izaten da gaurkoa bezin
arrats goxo ta ezerik?
Sufrimenturik ez dan tokian
ez da bizitza luzerik.

7

Tximistak eta turmoiak ez du
gaur iñoiz ainbat danbarra,
oraindik ere zero goi ortan
pakeak badu indarra;
mendi basuen ixiltasun au
da arrigarri samarra,
nabaitzen dana da bakarrikan
errekatzuen marmarra.

8

Illunabarrez gordeko ziran
txoriak sasi-tartera,
lo goxo orrek ase artean
andikan ezin atera;
biar goizean altxako dira
argiarekin batera,
sortu dan egun maitekorrari
zorianak ematera.

9

Zerua urdin da eder dago,
izar argiak kiñuka,
laño traketsen artean ez da
askotan ainbat burruka;
gauean ontza baso-zulotik
jardun izan da oiuka,
gaur ura ere ixilik dago,
nunbait lo goxua dauka.

10

Intzez bustirik daude arbolak
ura tantaka dutela,
iturri eta errekatxoak
lurruna dariotela;
ikusirikan arnas berri bat
nereganatu detela,
mendian nago Jainkua nola
eskertu ez dakitela.

11

Gau eder onen zumu gozoa
nola baidedan bazkatu,
buruko kargak arindu dizkit,
korapilluak askatu;
espiritua oso berritu
eta barrena preskatu,
nik Jainkuari geiago ezer
ez nezaioke eskatu.

12

Arri gañean exeri eta
zugaitz baten inguruan,
mendi-sakontxo batean nago
ustez leku seguruan;
nik une ontan pentsamentu bat
bakarra daukat buruan:
gaur arratsean zer goxotasun
ote dagueen zeruan.

ORIoTARRAK

Orio au erri aipagarri bat da. Itxas-egaleko erri txukun da garbi bat berez. Jende mardula ta bikaiña.

Itxasotik mantentzen da erri au. Andik ateratzen dute bizimodua, geientsuak beintzat.

Gizon sendo asko da emen; ama bulartsuen magalean azitako seme pizkorrak alegia.

Itxasora dijoazenean ere, langille latzak izan bear dute; itxaso gogorrarekin ere gutxi bildurtzen diranak. Argatik ibiltzen dira arrantzan beti aurreko puntan oriotarrak. Arrairik arrapatzen ez badute, esan liteke arrairik ez dala itxasoan.


Oiek egin oi dute, lanera joandakoan, lana; ta, jai egin bear danean, jai.

Barkuak edo itxas-ontziak ere, alaxe prestatuak dauzkate. Punta-puntakoak egongo dira ogei ta zortzi bat barku Orio'n, ni oso oker ez banago.

Ontzi oiek denak errian diranean, ikusten da edertasuna erriotan. Zubian pasatzen dan jendeak begiratzen diote.

Baño oiek geldirik or egonda, ez dago ezer; oiek itxasoan ibili bear dute, al dan guzian.

Udazkenean, atunetako kostera edo lana bukatzen



Orio'ko Goiko kaleko ate-buru bat.

*"Emen bakoitzari berea eman bear zaio, ta oriota-
rrak benetako itxas-gizonak izan dira beti..."*

(Foto Arturo, 1975.IV.23)

dutenean, artzen dute atsedeen-aldi bat, iru bat illabete-koa edo ola gutxi gora-bera.

Arrantzalearen bizimodua gogorra da nere ustez: gau ta egun, egualdi txar da on, lanean da arrixkuan, da askotan igandeak ere aste, atun-denboran beintzat; baño ala ere segi egiten dute.

Emen bakoitzari berea eman bear zaio, ta oriotarrak benetako itxas-gizonak izan dira beti; urekoak, itz batean esanda.

Ni askotan arriturik egon izan naiz emengo mutil koxkorreri begira. Oso ume dirala asten dira arraunak artu ta batel zarretan arraunean ikasten.

Gero, argatik ateratzen dira oiek, ateratzen diran bezelakoak.

Emen agertzen ditudan gai aueri buruz, bertso-sail bat jarri diet oriotarreri.

Baño bertsoen aurretik itz bi egin nai nituzke, urrengo argazki orretan agertzen diran bi arrantzale sendo oietaz. Aita-semeak dira: Gregorio Manterola eta bere seme Julian. Argazki ori, 1910'garren urtean aterea da, arrantzaz saioa egin da etxera zetozela.

Garai artan, itxura danez, etzan gaur bezelako barku edo itxas-ontzirik. Arraunean egiñez ibiltzen omen ziran arrantzan.

Beren ontziak arraiz betetzen zituztenean, emen Orio ta Getari inguru edo arkitzen ziran tokietatik Donosti'raño joaten omen ziran arraunean, arraiak eramatera; ta an ontziak ustu ta berriz, arraunean egiñez, Orio'ra.

Gregorio Manterola Donostia'n jaio omen zan 1870'garren urtean, eta Orio'n il 1958'garrenean.

Orio'n 1901'garren urtean, balea arrapatu omen zuten. Bost treneru izan bear zuten, da aietako batean patroi omen zan Gregorio zana.

Bere emazte zana ta biak bizi zirala, larogei ondorengo beren fameli artekoak ezagutzera iritxi omen ziran: zortzi seme-alaba, billoba ta aien urrengoak.




*Gregorio'ko Gregorio ta Julian Manterola, aita- semeak.
1910'eko argazkia.*

Julian Manterola, berriz, Orio'n jaioa izan bear du, 1896'garren urtean. Irurogei ta bederatzi urte zituen arteraño jarraitu zuan itxasoan patroi-lanean. Ontzi txi-kietan da aundietan, danetan ibilia da. Ni entzunda nagoenez, emen ezagutu dan patroirik zarrena, Julian Manterola izan da.

Ementxe bizi da Orio'n, aitona bikaña, bere irurogei ta emeretzi urterekin.





"Arrairik arrapatzen ez badute, esan liteke arrairik ez dala itxasoan."

(Foto Iñaki Agirre, Donosti)

1

Jaun Zerukoak indartzen badu
nere memori urriya,
Oriyo, zuri itzegiteko
daukat kasketa jarriya;
beti zurekin daukat biotza
ain zera maitagarriya,
amaika seme sendo ta jator
azi dituzun erriya.

2

Nolabait ere azaldu naian
neuzkan maitasun gartsuak,
au det modurik onena eta
jarriko ditut bertsuak;
Oriyo'n beti nik ezagutu
ditut ama bulartsuak,
gero argatik azitzen dira
emen seme indartsuak.

3

Beti baditu arraunlariyak
Oriyo maitagarriyak,
len dabiltzanak aspertzera
badatoz gazte berriyak;
zuzendu anak, luza besoak
eta bigundu gerriyak,
izen on ori luzaro gorde
dezala zuen erriyak.

4

Ni Oriyo'ko mutikotxoak
arritu oi naute, jaunak,
eskolatikan irten da ikusten
ditut erriyora junak;
ume dirala artzen dituzte
batelak eta arraunak,
gero baditu bere bentajak
gazterik ikasten dunak.

5

Ainbeste gauza esan nezake
nik Oriyo'ren gorantzan,
nola bainagon ontzat artuko
dizkiraten esperantzan;
ikusten dana aitortuko det,
ez naiz egongo zalantzan:
oriotarrak maixuak dira
arraunean da arrantzan.

6

Arrantzaleak jatorrak dira
ta biotz samurrekuak,
nik ezagunak baditut emen
aspaldi samarrekuak;
aitortu bear genduke oiek
dirala bearrekuak,
bestela arrai freskua nola
jango du legorrekuak?

7

Arrantzalea ez pentsa danik
alperra eta nagiya,
noiznai listo da itxasorako
ikusten badu premiya;
guraso batek etxean luke
bere maitasun-kabiya,
baño nolabait ekarri bear
pamilirako ogiya.

8

Arrantzaleak ez balituzke
lanaren ardurapenak,
askotxo gera erdi gosiak
bizi bear gendukenak;
oiek dirade jai eta aste
lana egiten dutenak,
oiek ditugu gure erriya
aberasten digutenak.

9

Ez uste izan edoziñentzat
ona danikan arrantza,
an nekosuak izaten dira
eguna eta arratsa;
itxas-gizonak egin bear du
udaran bizitza latza,
gero negua izango bada
alaia ta aberatsa.

10

Gure arrantzale maitagarriak
lanikan asko badute,
barku aundiak eginda orain
aiek arraiz ezin bete;
itxas aldean urritu dala,
batzuek ala diote,
oieri ere bizimodua
estutzen ari zaiote.

11

Bare ta urdin dagueanean
polita da itxaso,
berak ematen du etakiña
ederra ta ditxosoa;
baño zakartutako garaian
ez da alaja gozoa,
ez du galdetzen zein dan semea
eta zein dan guraso.

12

Kulpa gabeko askori orrek
diote bizia kendu,
ortaz oroitu bear genduke
biotzik baldin bagendu.
Arrai gaiztoak txikia nola
arrapatu ta jaten du?
Itxaso txarrak arrantzalea
alaxe menderatzen du.

MANTEROLA'TAR LUXIANO


Arraunlarien ezbear edo azidente bildurgarri au izan omen zan Zaragoza'ko probintzian.

Orio'tik ara sei bat orduko bidea egon bear du, ta urrengo egunean estropada jokatu bear ta bezperatik zijoazen Oriotarrak, denbora artuta, patxadan ibiltzeko moduan ustez; bidean gelditu-aldiak egiñez, zerbait jateko edo edateko ta abar. Ta, bidean beren kotxean zijoa-zela, illunabarreko zazpirak aldean izan zuten okerra.

Kamio extua izan; beste kotxe-zale bat izugarrizko indarrean sartu ta aurrera pasatzen asi, ta lekurik ez. Ta, berak jo ta botako ez bazituen, oriotarrak geiegi bazartu ta mendiak bera erori.

Ta beste kotxe-zalea aurrera igesi, zer egin zuen jakinda. Uraxe ere izango zan norbait!

Gero, atzetik zetozen kotxe-zaleak, batzuek ikusi ta gelditu ta lagundu omen zioten, anbulantziak ekarri ta ospitalera eramaten. Baziran iru min artuak, baño beste biak laixter sendatuak ziran. Luxiano izan da ezbear arekin kargatuta gelditu dana. Ta berari jartzen dizkiot bertsoak.



*"Luxiano zan arraunlari bat
ederra eta trebea..."*

*Goitik asita: Juan Lizarralde, Jose Ramon Lizarralde,
Luxiano Manterola, Estanislao Sarasua ta Bizente Korta,
1968.V.4'an.*

(Foto Alcoba)



1

Manterola'tar Luxiano da
seme jator da prestua,
Jaun Zerukuak biotzez eta
memoriz aberastua;
orain bi urte t'erdi izan zun
azidente bat estua,
geroztik dago bi anketatik
erabat aldrebestua.

2

Irurogei ta amabian zan
Aperillaren zortziya,
oso juxtutik salbatu zana
Luxianoren biziya;
gerriz goikua sano du eta
eskolaz ere jantziya,
bizimodua aterako du,
badaukat segurantziya.

3

Luxianoren okerra izan zan
Zaragoza'ko partean,
aztuko etzaion egun triste bat
bizirik duen artean;
gaixotegian egon da iya
beatzi illabetean,
Gabon-bezperan bildu zan berriz
gurasuen alkartean.

4

Kotxea beterik zijoala
berdin gabeko mutillez,
mendiak bera joan zan bidetik
erten zanean kurpillez;
berak azpian artu ziñuzen
baño ala ere ill ez,
nunbait Jainkua errukitu zan
zure izate umillez.

5

Kotxea dana txikitua ta
Luxiano eritua,
an arkitu zan pozak galdu ta
naigabez ugaritua;
pare gabeko seme ederra
pizkor da atrebitua,
orain or dago txutik ibili
ezin dala gelditua.

6

Joxe Ramon da Iñaki ere
ziran naikua etsiyak,
batek golpeak eta besteak
berriz ezurrak autsiyak;
baño aiek laixter ziran berriro
osasunetik jantziyak,
Luxianori zizkan egun ark
ezbear txarrak utziyak.

7

Presaka aurrera zijuan batek
bide guziak itxita,
zuek an larri kotxe ta guzi
mendiak bera jetxita;
izanez ere kamiyuetan
da segurantzi gutxi-ta,
len ere amaika gelditu dira
bizia bertan utzita.

8

Kotxe-zale ark izan bazuen
bear zan aña talentu,
egin bear zun pasa ziteken
ikusí edo galdetu;
leku txarrean aurrera sartu,
geiegi lotsagabetu,
eskerrak gero beste batzuek
ziran zuetaz jabetu.



*Ezkerretik: Bizente Korta, Estanislao Sarasua,
Luziano Manterola, 1969.II.8'an.*

(Foto Alcoba)

9

Txoferrak ere iñoiz ibili
oi dira sena galdurik,
da alakuan kotxeak ez du
jokaera segururik;
emen batzuek ez dutelako
biotzik edo bururik,
gero besteak ezin igaro
gustoko bizimodurik.

10

Zu, Luxiano biotzekua,
zauritu ziñan orduan,
guk ez genizun lagundu baño
asko sentitu genduan.
Zer naigabea ote zan zure
gorputz bikain da senduan?
Zeuk bakarrikan jakingo dezu
zenbat sufritu zenduan.

11

O, Luxiano, garai bateko
seme indartsu mardula,
lau kurpilleko sillan or dabil
aita laguntzalle dula;
esaera da lur ontan danok
sufritu bear degula,
eta askotan sufritzen degu
zergatik ez dakigula.

12

Nik ikusten det sillan lanetik
etxera datorrenean,
aitak zainduaz aur bat bezela
aurrean dakarrenean.
Zenbat naigabe izan ote da
aita orren barrenean,
bere seme bat ola ikusita
sasoirik ederrenean?

13

Luxiano zan arraunlari bat
ederra eta trebea,
orren gorputzak garai batean
bazuen abildadea;
bear zanean lan egiteko
pereza aundirik gabea,
biotzez berriz itz baterako
ogia baño obea.

14

Asko txoratu oi ziran zure
arraunketa kuriosoz,
beti trebeki agertzen ziñan
eta borondate osoz;
gorputz librea ta egokia,
zuzena ankaz ta besoz;
zuk izan dezun edertasuna
zalla da esaten bertsoz.

15

Bizia bestek eman zigun da
badegu zeñek kendua,
zuk oraindikan zeurekin dezu
ta ori da lenengua;
mundu ontako gure izaera
da utsaren urrengua,
pazientzia artzazu, lagun,
biotzaren barrengua.

ONDAR GAÑEKO LORE BATI

Bertso-sail au jarri nion neskatxa bati lengo udaran.

Igande-eguna zan da denborale ederra zegoan oso, ta atera nintzan ni ere etxetik, ondartzza aldera joateko asmoan.

Bidean bi mutil gazte kotxearekin; gelditu ziran nere parean da esan zidaten:

—Nora zoaz, Lasarte?

Esan nioten:

—Ondartzza aldera, denbora pasa.

—Sartu kotxean, gurekin joango zera-ta!

Ala joan giñan, da iru neskatxa gazte zeuden an, uretan bañatzen ibili ta ondar gañean etzanda, eguzkia artzen.

Aiek ere ezagutu ninduten; ez da arritzekoa euskaldunak gu ezagutzea-ta. Esan zidaten nungoak ziran da zein famelitakoak eta dana. Ta nik aien gurasoak ere oso ezagunak ditut.

Neskatxa aietako batek, bertso pare bat kantatzeko aieri, eskatzen zidan.

Esan nion, beiñere ez nintzala plaian bertsotan jardun da barkatzeko; beste egunen batean bearke zuela.

Baño berriz ere esan zidan nere bi bertso entzun nai zituztela; nai nuen modukoak kantatzeko, baño mesedez orixe egiteko.

Nerekin joan ziran mutil gazte oiek ere, asi zitzaizkidan kantatzeko esaten.

Kantatu nizkioten, ba, bi bertso, ta ura zan poza aiena!

Orduan esan nion neri bertsoak eskatu zizkidan neskatxa orri:

—la oraindik bertsoak jartzen dizkizuten nik zuri!

Ta esan zidan, jartzeko nai nuen bezelakoak.

Ura gaur edo bigar ama egiten bada, aren seme-
alabak etxean izango dute ikastola, ta ori da bearrezkoa.

Poz eman zidaten neskatxa-mutil aiek.

Nik alde egin nuen, agur esanda, etxe aldera; ta
nerekin joan ziran mutillak eta neskatxak, alkarrekin an
gelditu ziran ondartzan. Da neskatxa orri bertso auek jarri
nizkion.



1

Lengo egun batez dama gazte
[bat
plaian zeguan patxadan,
araño juanda zer nebillen ni
galdetu zidan pasadan;
erantzun nion: Zu ikustea
ez dakizu zer ditxa dan,
gai bat polita eman didazu
bertsoak jarri ditzadan.

2

Lenaz gañera pentsatu dezu
zuk azalez edertzia,
ondar gañeko eguzkia ta
itxas-bañuak artzia,
zerezko azal txuri-gorria
pixkat beztuta jartzia;
zenbatentzako ote da poza
zu onera etortzia?

3

Begien argitasuna dezu
izarrak baño obia,
ta gorputzeko guritasuna
txukun berdiñik gabia;
bearrezkua dezunik ez det
uste itxas-koloria,
egunsentiak maite zaituen
udaberriko loria.

4

Sedazko illea ez dezunikan
zeñek esan burukua?
Lili-usaia bezin goxoa
da orren ingurukua;
gorputza guztiz ondo egiña,
eder paregabekua,
ta arpegia eguzkia're
lotsatzeko modukua.

5

Lore ederrak azitzen dira
iñoiz zenbait baratzetan,
sufrirentua jartzen dutenak
ainbat biotz beratzetan;
orrelakoak sortzen badira
lurralde aberatsetan,
pobre diranak egoten dira
itzegiteko lotsetan.

6

Izarra pranko ikusten degu
gure ondar-zelaietan,
baño ez zure antzik duenik
Euskalerriko plaietan.
Zenbat oroitzen ote da zutaz
egunsenti alaietan,
amets goxoen tentaziyua
etortzen dan garaietan?

7

Etxe onean bizi zera 'ta
zaude eder eta guri,
zure arbola berdin gabeak
Gernika'koa diruri;
arbola ortan kabi polit bat
urrutira da agiri,
txorikumeak ateratzeko
asmoan al dezu ori?

8

Zure arbola edertuko du
zerutik datorren intzak,
tentaziua emango dio
ikusten duen bakoitzak;
Euskalerrian komeni dira
orren moduko zugaitzak,
kaso egiozu, maitea, ongi
ondata ez dezan gaitzak.

9

Norbaiten esku jartzen danean
zure aberastasuna,
amaika gaztek pasa bear du
penaren estuasuna;
garai onean etxeratzea,
au da komeni zaizuna,
gau txarren batek galdu ez dezan
lorien edertasuna.

10

Atzetik brillu egiten dizu
espaldak edo bizkarrak,
era berian dauzkazu guri
petxua eta iztarrak;
zeruan egon leizke bakarrik
zure antzeko izarrak,
gaurko eguna oroigarri du
emengo itxas-baztarrak.

11

Berriz putzura salto eginda
asten bazera igari,
zeure inguruan izango dezu
mutil gaztea ugari;
lurralde ontan Jaun Zerukuak
egin du ainbat mirari,
zuk ere uste det edertasuna
zor diozula Berari.

12

Zu begi askok ikusten zaitu
txoragarria zaudena,
ez al dakizu mutil guztiak
zeuri begira daudena?
Lentxego batek neronen bistan
au da esaten zuena:
"Etziok gaizki aingeru orrek
biotzez maite duena!"

BASERRIKO AITON BATEN PENAK

Aitona onek eta biok alkarrizketa bat izan genduan orain aurreko batean.

Iru txekor eder eraman zituan arategira; erralde asko ziranak txekor aiek, edozein modutara ere. Nik ikusi nituen pasadan, eta bikañak ziran oso.

Gero, andik etxerakoan, pardel txiki bat eskutik txin-txilik eta sokak bizkarrean zituela ikusi nuen aitona ori, ta onela esan nion:

—Arratsalde on Jaungoikoak, aitona!

Ta:

—Baita zeuri ere: alaxe eman deizula! —erantzun zidan.

Ala, zerbait esan bear ta esan nion:

—Diru-mordo ederra artuta joango zera gaur ere zu etxe aldera!

Ta esan zidan:

—Nere txekor-diruak almazenean gelditu dira geienak, seme! Gibel pixka bat deramakit pardelean; gañontzean gauza gutxi!

“Txekor onak aziko badira, pentsua bearrezkoa da, ta ori dago oso galezti. Nik, aspalditxo ontan, asko xamar eraman ere egin det, eta aiek ordaintzera joan naiz eta arindu naute ederki!

“Oraintxe galdu da gure baserria ta baserritarrak! Gu zartu gera; gazteak etxetik alde egin digute, eta, gu iltzen geranean, akabo baserria!

"Izan ere, baserrirako iñork andrerik ezin du billatu. Neskatxa batek ez du ezkondu nai baserrira, ta, onek ola segitzen badu, ez dator gauza onik.

"Len, gure gazte-denboran da gero ere, etzan olakorik. Baserriko maiorazkoa izatea naikoa zan andre-aukera izateko. Batez ere, etxe-alde on samarrekoa bazan. Baño gauzak ederki aldatu dira!

"Gu bizi geran etxean, len maixterrak giñan. Gero nagusiak etxea saltzera atera zuan. Erosi genion, dirua al zan bezela billatuta. Uraxe gereganatu eziñik ibili gera lanean, geure osasunaren errukirik gabe, ondorengoen-tzako izatearren, da ara ixtimazio ederra or! Orain iñork jarraitu nai ez!

Aitona ain triste ta goibel ikusirik, bertso auek jarri nizkion.





1
 Mendiko gazte jendea dago
 kalera naian jarria,
 nekatutako gurasuentzat
 ez da gauza pozgarria;
 laguntzallerik ez duelako
 galtzen bada basarria,
 andik aurrera ikusiko da
 gosea ta egarria.

3
 Gazte bikañak askotxo dira
 baserriz etsitakuak,
 guraso zarrak baztertu eta
 kalera jetxitakuak;
 len ere oien laguntzak izan
 dira urte gutxitakuak,
 gero berentzat naiko dituzte
 guk emen utzitakuak.

2
 Baserriari beso-indarririk
 ez badago ezin eutsi,
 morroirik eztu iñork billatzen,
 neskamerikan ain gutxi;
 etorkizunik ez dagolako
 diote batzuek utzi,
 piñu sartuta edo bestela
 saldu ta kalera jetxi.

4
 Baserritar bat keja zan atzo
 ezin leikela bizi-ta,
 arategira etorria zan
 iru txal eder azita;
 il da kobratu zituenian
 pentsu-etxera bixita,
 andik irten zan aien diruak
 geienak bertan utzita.



*"Mendiko jende gaztea dago
kalera naian jarria,
nekatutako gurasuentzat
ez da gauza pozgarria..."*

(Foto Arturo)

5

Esne-bei eta txekorrentzako
belar utsa da motela,
pentsua berriz badakit oso
galeztitu zaiotela;
baño uste det bizimodua
oraindik balegokela,
ondo pagatzen balizkiote
esnea eta okela.

6

Ola jarraitu zuen izketan
aitona gixarajuak:
Alper aundiak mantentzen ditu
emen langille bajuak;
oraingo martxan baldin bñaguaz
gu laixter gera lur juak,
mundu guzia galdu bear du
bizio eta lujuak.

7

Pentsu-zalea argi jarri da
ni zartu naizenerako,
bat poztu leike ganadu onak
azitzen zaizkanerako;
gibel pixka bat etxerako ta
txalak almazenerako,
baserritarren irabazia
ola da azkenerako.

8

Aitonak zion: Baserrietan
ez da bizitza lasairik,
iñun ez degu laguntzallerik,
guretzat ez da artzairik;
ezkondu nai ta iñork ezin du
billatu emaztegairik,
argatik dabiltz maiorazkuak
etxetik aldegin nairik.

9

Sei ume azi giñuzen eta
etxean degu gaztena,
ark ikusten du beste guziak
kalera dijuaztena;
iñork etxean gelditu nai ez,
ori da gauzik tristena,
oraingo martxan laixter da gure
baserriaren azkena.

10

Gure aurreko aitonak bota
zuten amaika izerdi,
sasitegiak biurtzeraño
soro, baratz ta belardi;
orduan etzan izango orain
aña gazte buru-argi,
baño langille geiago askoz,
ori ikusten da garbi.

11

Jende guzia igesi asi
da baserriko lanetik,
ez dakit emen bizimodua
dijuan bide onetik;
laguntzarikan iñundik ez ta
eskabidea danetik;
mudantza pranko ikusi degu
gu gazteak giñanetik.

12

Esnearekin negoziatzen
dute batzuek errezi,
baserrietan gutxi pagatu
ta berak saldu galezti;
lanean asko beartu gabe
pasian kotxe ta guzti,
zeñek egiña duten artean
oiek ez dabilta gaizki.

13

Itzik esaten baldin badegu
jabetzen zaizkigu bela,
izugarrizko laguntzak egin
balizkigute bezela;
ikusten degu oiek konseju
ugariak dituztela,
usteko dute gezurrarekin
engañatzen gaituztela.

14

Guk lan eginda beste batzuek
gizendu eta guritu,
jokera orrek ez ditu gure
biotzak gutxi zauritu;
esango nuke emen alperra
zergatik dan ugaritu:
langille onik ez dutelako
bear bezela saritu.

ANDRE ALARGUNA

Itxas-gizonen andre asko da alargun gelditua, zori-tzarrez.

Itxas-denborale txarra egokitzean, gaizki ibiltzen dira arrantzaleak.

Gure errian bertan bada andre bat alargun dagoena. Oraintxe iru bat urte inguru, gutxi gora-bera, galdu zitzaion bere senarra.

Olatu zakar batek barku gañetik artu ta eraman, da etzuten gorputzik ere billatu geiago. Ori da tristea!

Nik oso ezaguna nuen, da aurreko egun baten jardun omen zitzaion esaten gure lagun bati, itxasoan aspertua zegoela ta gelditu bear zuela laixter.

Ara nun gelditu zan.

Edadez ogei ta amar, ogei ta amabi urte ingurua zituen. Oso gizon ixilla ta txukuna zan.

An joan zan andrea bi aur txikirekin utzita.

Ta nik bertso auetxek jarri nizkion.



1

Andre gaixo bat beltzez jantzita
 ikusten da illundurik,
 barrengo miñen gogortasuna
 iñun ezin bigundurik;
 senarra urak ito zion da
 bizi da alargundurik,
 ume txikiak azi bear da
 ez du zeñek lagundurik.

2

Aurtxo gaixuak pozik entzuten
 zuten aitaren itz-otsa,
 ixildu zan da aren gorputza
 itxasoan da illotza;
 uste gabeen bakoitzarentzat
 irixten da eriotza,
 da orrek sarri minberatzen du
 fameliaren biotza.

3

Andrea t'aurrak agurtu eta
goiz batez joan zan barkura,
zer zetorkion jakin bazuen
utziko zuen ark ura;
gizagaixua, nun etorriko
arraiz beterik portura,
urak ito ta eraman zuen
berak nai zuen lekura.

4

Ain zan jatorra, berak etzuen
iñun egingo kalterik,
fameli ona zeukala eta
bizi zan pozez beterik;
ainbeste neke egin ondoren
alako errematerik
gizagaixuak etzuen uste
itxasuan ematerik.

5

Amari gonetatik tiraka
aurtxuak ainbat biderrez
aitatxo nun dan galdezka asten
zaizkio illunabarrez.
"Urruti da ta etorriko da!"
esanaz obe-bearrez,
sukaldetikan ama gelara
ezkututzen da negarrez.

6

Aita etxera ez datorrenik
aurrak ez dute siñixten,
lotarakuan "Aitatxo!" oska
gogotik zaizkio asten;
negar batean ari da ama
aurreri lo arrerazten,
maite zuena falta du eta
beiñere etzaio azten.

7

Lo goxo ura eginda aurrak
berriro amarengana
joaten dira ta lenengo itza:
"Aitatxo noiz dator, ama?"
Gaixuak aspaldian ori da
izaera deramana,
esan nai-ezik aita nola dan
itxasuak eramana.

8

Daneri laztan bana emanda
zan etxetikan ertena,
ura izan zañ azken eguna
alkar ikusi zutena;
biotz goxo ta xamurra zuen
guraso jator batena,
bere emazte ta aurreri iñoiz
aztuko etzaiotena.

9

Barku gañean omen zan eta
itxas-olatuak eldu,
golpe txarren bat emango zion
eta erabat makaldu;
bere lagunak jakiñagatik
nuntsu zitzaioten galdu,
auskalo nora eraman zuen,
gorputzik etzan azaldu.

10

Ur orrek gizon indartsu asko
ditu betiko lotuak,
asarretzian bildurgarriak
dira itxas-olatuak;
barkuak ere badira iñoiz
bertan erregalatuak,
arroka zarrak jo-erazita
txikitu ta doblatuak.

11

Ainbeste neke egin ondoren
bere bizitza osuan,
pena izan zan ura iltzea
ain era lastimosuan;
gorputz tristea arrai gaixtuak
janagatik itxasuan,
aren anima Alguztidunak
zerura jasoko zuan.

12

Pensatzen degu jaio giñala
beti emen ibiltzeko,
bizi-moduan asi oi da bat
uste baño len iltzeko;
zeruan era izango al da
negar oiek ixiltzeko,
suerterikan izaten bada
alkarregana biltzeko!

GIZATXAR BAT

Erri batean ezagutzen det gizatxar bat. Olakoak ere izaten dira bakar batzuek, eta gure moduan ibiltzen danak ezagutzen ditu askotan.

Sentitu det gizon ori gogor xamar itzegiten; baño egun batean geiegi ari zan da etzitzaidan batere gustatu.

Esaten zuan, gaurko bertsolariak ez degula ezer egiten; jan da edan bapo ta lau txorakeri esan, diru-pilla bat artu ta etxera; orixe bakarrik egiten degula; jendeari gusto geiago eman bear zaiola.

Erri artara dijoan bertsolariak, aren esanak egiten astea naikoa du beste danekin gaizki gelditzeko.

Ark nai du, berak esaten atrebitzen ez dan gauzak, bestek esatea.

Erri artan askotan izan gera, baño ark deituta beiñere ez; ari ez diogu beiñere ezer kendu, guk dakigula.

Gauza batekin nago konturatua: beti norbaitentzako gaizki itzezin bearra baduala, ta bere errian beti bakarrik ikusten dala; ark ez daukala lagunik, eta orixe aski da zer gizon dan jakiteko.

Nik bertso auek jarri dizkiot.

A page of musical notation consisting of ten staves of music. The music is written in a single melodic line on a treble clef staff. The key signature is B-flat major (two flats: B-flat and E-flat), and the time signature is 3/4. The notation includes various note values such as quarter notes, eighth notes, and sixteenth notes, along with rests and bar lines. The piece concludes with a double bar line at the end of the tenth staff.

1

Etzazu jarri trabik
edo oztoporik,
etzait gustatzen gizon
salsa askokorik;
bertsolari gutxi da
griña gaiztokorik,
iñor ez gera jaio
neurri juxtokorik,
gero're ez da izango *(bi aldiz)*
danen gustokorik.

2

Lendik antzeman nitzun
gaizki zenbiltzala,
zure pentsamentuak
arin zebiltzala;
errex esaten dezu,
nunai zabiltzala,
gaurko bertsolariak
tranpan dabiltzala,
bestek egindakua
jaten gabiltzala.

3

Entzuten egon nitzan
lengo egun baten,
jardun ziñatenean
gauz auek esaten;
kuadrillan zu ta beste
bi arin ziñaten;
deitu gabe ez gera
gu iñora joaten,
besteri kendu gabe
badakigu jaten.

4

Ez gera bizi bestek
egiña jateko,
odolak txupatzera
iñora joateko.
Zeuk asko al daukazu
ola emateko?
Buru arin bat zera
garbi esateko,
asko falta dezuna
jatorra izateko.

5

Len e zure berriak
batzuk bazekizten:
azpitik zenbiltzala
nunai sua pizten;
naiz santu-papela egin
jendearen bixten,
iya ez dizu iñork
itzikan siñixten,
ezagueratik nola
etzeran irixten.

6

Esanez ari ziñan
zu neurriak artzen:
bear dan lekuetan
ez gerala sartzen;
gizon egin baño len
ari zera zartzen;
ola baldin bazabiltz
sesioak jartzen,
ez daukazu errexa
gurekin alkartzen.

7

Erria ikustean
 asarrez betia,
 litekiena da zu
 pozik egotia;
 zure lana atzetik
 sua ematia;
 zeu atrebitzen ez ta
 bestek esatia
 nai zenduke; ori da
 txarra izatia.

8

Zaude zere tokian
 aizeak lagata,
 arrastuan sartzeko
 garaia bada-ta.
 Zertan darabilkizu
 ainbat zalaparta?
 Gorputzean badezu
 osasun aparta,
 baño buru gutxitxo;
 bearrena palta!

9

Ni ez naiz iñoiz izan
 gizon jakintsuna,
 baño esango dizut
 len etzekizuna:
 oso martxa txarra da
 darabilkizuna,
 zu ustez emen zaude
 asko dakizuna,
 iñork ezertarako
 deitzen eztizuna.

10

Ondo erakustea
 da bearrekua,
 zu ortarako ai zer
 itxu-aurrekua!
 Zentzun gutxikua ta
 mingain errekua,
 barren gogorra eta
 odol txarrekua,
 zu etzera euskaldun
 lege zarrekua.

11

Nere biotza jarri
 dezu printzaturik,
 burugabekeria
 ainbat mintzaturik;
 ez dezu uste baño
 zaude mantxaturik,
 gauzak errex esaten
 gutxi pentsaturik;
 ez daukazu mingaña
 zertan dantzaturik.

12

Batzuek badaudela
 gurekin minduak,
 orain baño lenago
 gera jakinduak;
 edozer esaten du
 mingain zikinduak;
 ez gaude orrenbeste
 buruz arinduak,
 guk egin oi ditugu
 bestek aginduak.

MOJA DIJOAN ALABA

Gai au jarri zidaten Donosti'ko Anoeta pelota-lekuan, orain aurreko batean.

Bertsolari zarren omenaldi bat izan zan, irurogei ta amar urtetik gorakoena, 1974'garrenean, Azaroaren 17'an, eta gai-jartzalleak, Joxe Mari Iriondo'k, au esan zidan:

—Zuk, Lasarte, kanta izkiozu bi bertso edo iru, zure alaba moja dijoanari.

Bi bertso kantatu nizkion, da nere gustokoa egin zitzaidan gaia.

Andik etorri nintzan etxera, ta gau artan bertan jarri nituan bertso auek.

Len, garai batean, moja joateko, dotea bear izaten zuten, moja-klase batzuek beintzat, eta alaba asten da, aitari moja dijoala esanez eta dirua eskatzen.

Ta aitak, bere erantzunak ematen dizkio.



1

"Aita, asmua artu det
moja juateko,
Jaunaren serbitzari
antxe izateko;
kezka eduki det au
zuri esateko;
diru-pixka bat nai det
ara eramateko:
aita, bai al daukazu
neri emateko? *(bi aldiz)*

2

Alaba zebilela
bide onetikan,
aitak antzeman zion
bere esanetikan,
ain izan da umilla
jaio zanetikan.
"Diru asko egiten
zail da lanetikan,
baño etzaizu faltako
nik dedanetikan.

3

Ikullua or dago
 ganaduz betia,
 diru gutxi det baño
 ez naiz arlotia;
 laixter prestatu leike
 zuretzat dotia,
 ta komeni bazaizu
 ara eramatia,
 pozik emango dizut,
 alaba maitia.

4

Gure alabak sartu
 nai du mojetara,
 Jaungoikoak agintzen
 dizkan lanetara;
 txintxo makurtu nai du
 bere esanetara;
 itxaropen bat dator
 aita-ametara:
 entregatzen degula
 esku onetara”.

5

“Moja juatia zait,
 aita, bururatu,
 Jaungoikoarengana
 nai det inguratu,
 Bera zalako nola
 nitzan munduratu;
 ta geroko bizitza
 nai det seguratu,
 ortarako anima
 bear zeruratu”

6

“Ez dizut galerazten
 moja juaterik,
 baño ez nuke nai zu
 gaizki izaterik;
 nun zer gerta liteken
 ez dago esaterik,
 an arkitzen bazera
 naigabez beterik,
 etorri, ez dizugu
 itxiko aterik.

7

Doai ori badezu
 Jainkuak emanik
 etzazu pentsa txartzat
 artuko dedanik;
 ez nuen uste auxe
 gertatuko zanik;
 amak zer ote zion
 zuk ori esanik,
 alaba bakarra ta
 maitea izanik?”

8

“Amak aitortu zidan
 ontzat artzen zula,
 ta aditzera zuri
 emango zizula;
 nik erantzun nion neuk
 esango nizula;
 siñistu zazu, aita,
 poztutzen nazula,
 ikusi baitet biotz
 aundia dezula”

9

“Emen kontzientzia
dijua aldatzen,
alaba, saia zaitez
zeurea salbatzen;
gorrotua ari da
mundua ondatzen,
lagun zaiguzu guri
fedea sendotzen,
penaz gaixorik dauden
animak sendatzen”.

10

“Bizitzan beti daude
neke-arazuak,
uste gabeen datoz
ekaitz-erasuak;
aita, indarrik badu
nere errezuak,
Jaunak izango ditu
zerura jasuak
batez ere ni azi
nauten gurasuak”.

11

“Orain arte izan gera
etxian alkartsu,
paradisuan edo
kasikan alatsu;
alabatxo maitea,
muxu bat ekatzu;
ain zera zu goxua
txoratzen gauzkatzu,
gurasuen biotzak
zeurekin dauzkatzu”.

12

“Aita onari muxu
ematen asita,
ama gaixua lertu
zan gu ikusita;
biak antxe negarrez
neuri itsatsita,
esan ziraten: Sarri
egizu bixita,
zu ikusi gabe ezin
giñezke bizi-ta.”

BODEGON ALEJANDRO

Bodegón Alejandro, Donosti'ko parte zarrean dago. Ango nagusi jauna, Martin Berasategi da aspalditxoko urte auetan.

Euskalerrian bertsozale asko da, baño Martin ori berdintzekorik, ez dakit zein izango dan.

Ark ez du beste deporterik eta festik; arentzako ez da bertsoa bezelako gauzik. Aren moduko asko balira, lanik egin gabe biziko lirake bertsolariak.

Amaika bider gertatu zaigu, sartu bere bodegan, jan eta edan egin nai danetik, eta kontua galdetu ta dana egiña dagoala erantzuna.

Bertsolariekin ez du irabazi aundirik egin Martinek; baño noiz edo noiz bertso-saio bat egin ezkeru, urrea baño geiago ixtimatzen du berak.

Da gizon-klase bat biotz aundikoa; borondate geiegi-koa.

Amaika une goxo pasa degu bodega-txulo artan, da bertso auetxek jarri nizkion:



Lasarte ta Martin Berasategui, Bodegón Alejandro'ko nagusia.

(Foto Arturo, 1975.IV.23)



1

Bodega batek euskaldun sendi
jator bat badu beregan,
ara juatean lasaitasun bat
sentitzen det nik neregan;
bertsolarien kabia dago
Alejandro'ren bodegan,
txoria banintz beti araxe
juango nintzake ni egan.

2

Badakizute bodega ori
Donostia'n daguala,
urte batzuek badira bera
ezagutu genduala;
iturritxo bat beti an dago
ardua pil-pil duala,
esan liteke Kristok odola
antxe ixuri zuala.

3

Bodega ori ezaguturik
ez genduen asko galdu:
lagun batzuek geiago egin
da konfiantza ugaldurik;
nai izan arren merezi ainbat
ezin nezake goraldurik,
baño onoko bertso auetxek
nai nizkioke bialdurik.

4

Alejandro'ren bodega baño
leku oberikan non da?
Nunai lagunak baditugula
au da euskaldunen ondura;
Martin gustora da bizimodurik,
ori aitortzia on da,
emaztea're alakoxia
egokitu zitzaion-da.

5

Martin Berasategi ez degu
memori argalekua,
doai eder bat badu berekin
amaren magalekua;
gizatasunez ondo betea
ta biotz mardulekua,
gure euskerak aren etxean
du bere gordelekua.

6

Sartu zaitea Alejandro'ra,
lagun, eskallarak bera,
jetxi ta bertan kabi goxo bat
dago eskubi aldera;
Martiñek laixter egingo dizu
zer nai zenduken galdera,
ezeren faltik ez dezu izango
euskaldun fiña bazera.

7

Nere moduko ezjakin batek
olako itzaldi baten
ez da errexa gure Martiñen
biotza zer dan esaten;
egarri danari edaria,
goseak danari jaten,
askotan daki xentimorikan
kobratu gabe ematen.

8

An ase gabe ez da gelditzen
goseki ta egarberik,
aukera dana egoten baita
kanpotarrentzat gorderik;
joan bedi azkar baldin badago
len ezagutu gabetik,
euskaldun batek ezin lezake
arkitu leku oberik.

9

Kabi artara sartu orduko
ardo bikaña eskiñi,
guri bezela egingo dio
noski beste edoziñi;
mama goxozko iturri ura
an zigulako ipiñi,
gure eskerrik biozkorrenak
zor dizkiogu Martiñi.

10


Denborarekin iritxi zaizka
poz ta erosotasunak,
gutxiagorik etzun merezi
Martiñen gizatasunak;
an arkitzen dan lagun-arteak
da ango goxotasunak
neuri're iñoiz aztu-arazi
oi dizkit gaixotasunak.

11

Dozenatxo bat bertso egitia
auxe pentsatu det orra,
alare ez det nik ordainduko
berari diotan zorra;
laguntzallea da Martin oso
eta euskaldun jatorra,
on egitiagatik emango
luke soñeko atorra.

12

Amaika trago eman diguzu
guziz oparo ta merke,
zure iturria txarra danikan
ez du esango iñork e.
Ene bodega maitea, zuri
nik nola itzegin torpe?
Urte askoan izan zaitea
lagun urkuen aterpe!



*"I ganaduen gobernuetan
beti izandu aiz ona..."*

(Foto Arturo, 1975.IV.23)

AXENTXIO NERE LAGUNARI

A musical score for the piece "Axentxio Nere Lagunari". The score is written on ten staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a time signature of 6/8. The melody consists of eighth and sixteenth notes, often beamed together, with some notes tied across bar lines. The piece concludes with a double bar line on the final staff.

1

Gaur, Axentxio, pentsatu diat
iregana etortzia,
zer nai nukean lagun bezela
euri garbi aitortzia;
mutilzar nola ikusten auten
bertso batzuek jartzia,
baño mesedez ez nitek naiko
ik ezer gaizki artzia.

2

Berrogei eta bost urte dituk,
sasoiko ago oraindik,
osasunaren zoriona're
Jaun Zerukuak eman dik;
bakarrak baño indar geiago
beti izaten ditek bik,
da, Axentxio, andre jator bat
etxean bear uke ik.

3

Geroko damu izan ezake
orain perezaz egona,
ez al dakik ik ire frutua
alperrik galtzen dagona?
I ganaduen gobernuetan
beti izandu aiz ona,
sukaldari bat ar zak eu ondo
governatuko agona.

4

Iri oraindik ezkontzeko're
etzaik pasa edadea,
kristauarentzat tristiena dek
betiko bakardadea;
ni ori zer dan garai batean
ez nauk probatu gabea,
ar zak andre bat, Axentxio, ta
zenbat eta len ohea.

5

Axentxio, i jatorra aiz ta
irekin badit fedia;
ezkonduko aiz oraindik, gauzak
ondo juaten badia;
euk jakingo dek zer komeni dan
nik eman diat idia;
bakarrik bizi nai badek ere
badaukak eskubidia.

6

Lenguan zuen sukalde orri
begira egon ninduken,
etzekit bere leialtasunak
nola esango nituken;
ire aurreko guraso zarrak
ortxe bizitu ituken,
ia, Axentxio, aien oiturak
ik kontserbatzen dituken.

7

Gazta zarra ta ogia janez
ago sukal-baztarrean,
botill-ardoa eta basoa
ere or dauzkak aurrean;
illunabarra igaroko dek
patxara on samarrean,
paketsu asko emen bizi aiz
eure baserri zarrean.

8

Zato-ardoa or ikusten dek
tximinitikan txintxilik,
asko itzezin-azten duena
naiz bera egon ixilik;
orrek barrena berotzen badu
etziok kontu axalik,
ik ere ez uke or edukiko
mesede egingo ez balik.

9

Axentxio, ik ondo dakik ni
ixilik egon neikena,
baño nik esan nai nikek zer dan
iri komeni zaikena:
andre bat ar zak sukalde zarra
ondo zainduko dikena,
bestela bera eroriko dek
txutikan egon leikena.

10


Nik uste diat laguntzalle bat
iretze sortu leikela,
geroko etorkizunerako
ori komeni zaikela;
ik ondo dakik sukalde orrek
biotzetik nai dikela,
oroitu ari amak bularra
ortxe ematen zikela.

11

I ez aiz bizi askoren gisan
besteri eragiñetik,
baizik lurrean atxurrarekin
euk izerdiz egiñetik;
ezjakin asko egoten gaituk
zueri parrez gañetik,
obe giñukek baserritarrak
eskertuko bagiñetik.

12

Ik edukiko deken gauza dek
bakardadearen kezka,
bestela ondo bizi iteke
ezeren paltarik ez-ta;
Axentxio, i ez adi asi
baserritikan igeska,
ez dezakela galtzera utzi
eu azitako sieska.



*"Gazta zarra ta ogia janez
ago sukal-baztarrean..."*

(Foto Arturo, 1975.IV.23)

GABON-JAIK

Or agertzen dira, argazki orretan, erriko neska-mutillak; Orio'koak dira oiek.

Gabon-illunabarrean, kantu goxo batzuek abestuaz, kalez kale ibili izan dira, eta biltzen zuten dirua erriko gaixoentzako izaten zan. Nik ola ezagutu nuen Orio'n oitura eder zoragarri ori. Izan zezatela gaixorik zeudenak ere zerbaiten poza.

Bide batez, neska-mutil gazteak, oiek pozik ibiltzen ziran. Egunari edo Gabon-gauari zegokion bezela abesten zuten. Aurretik ondo prestatuak egoten ziran kanturako gazte-saillak; ondo alkartuak alegia.

Illunabar edo gauaren asierari ematen zioten alakoxe goxotasun berezi bat. Orrek esan nai zuan, Gabon-gaua urte guzikorik goxoena ta aberatsena zala; ala da izan ere.

Gau ortarako, urruti diranak ere, bildu nai izaten dute beren gurasoetara, etxeko sendira. Baño batzuek izaten dira biltzerik ez dutenak ere. Aientzako gau tristea izango da noski.

Era guzietakoak ikusten dira mundu ontan, baño berez Gabon-gaua ta Eguberri-eguna, oiek dirala uste det mundu guzian errespetatzen diranak. Gerrarik aundienak dabiltzan lekuetan ere, atsedena artzen dute egun oietan.

Pameli guzietan izaten da Gabon-Eguberrietarako aparteko poz bat, osasuna ta pakea dagoen tokietan beintzat.



*"Gabon illunabarrean, kantu goxo batzuek abes-
tuaz, kalez kale ibili izan dira..."*

(Foto Gar-Zarautz)

Oiek dira etxeokoak alkartzeko egunak; oiek dira alkar-izketa goxoak erabiltzen diran une gogoangarriak.

Etxeko ama on batek, bere seme edo alabik badu kanpoan dabillarik, egun oietan etxean ikusi nai izaten ditu; ta aita on batek berdin. Guraso jator oien naia izaten da beren seme-alabakin alkartzea. Kanpoko berriak jakin da etxeokoak esan. Era ortantxe gozatzen dira.

Amak jarriko ditu al duenik puxkarik goxoenak jateko, ta aita ere gustora. Bakoitzak berak jakiten du zenbaterano lezakean.

Nik emen jartzen det, Gabon-jaiari buruz, bertso-sail bat.



1

Kantari asiko naiz
Gabon aurretuan,
biotza orren eske (*bi aldiz*)
da nere petxuan;
Gabon-arratsaren zai
gaude aspalditxuan,
berotzeko etxeko (*bi aldiz*)
su epel goxuan.

2

Gabon-jaietarako
auek txoramenak
etxean goxatzeko
moduan gaudenak!
Ez dira ola arkitzen
mundu ontan denak,
badira zoritxarrez
urruti daudenak.

3

Atzerrian diranak
etxera bideak
artzeko Gabonetan
dituzte ideak;
zai daude gurasoak
eta senideak,
berdiñ erriko lagun
da adixkideak.

4

Oitura auek dira
aspalditxokoak,
ez gureak bakarrik,
mundu osokoak;
pasatzen ditu Gabon
usai goxokoak
pakea buru duen
sukalde txokoak.

5

Egun oiek pozgarri
ditu sendi danak
aztutzeko urteko
naigabe ta lanak;
jartzen ditu guztien
gustoko zer janak
famelia biotzez
maite duen amak.

6

Lumatzen asten bada
kapoi ta ollaskuak,
ez dira lo egoten
amaren eskuak;
sortzen ditu itxasoko
bixigu freskuak;
olaxe jokutzen du
ama buruzkuak.

7

Gazteak dibertitzen
dira Gabon-gabaz,
dantzan eta kantuan,
parrez ta algaraz;
etxea osatzean
seme ta alabaz,
gurasoa txoratzen
jartzen da boladaz.

8

Gero beste jo-aldi
aundi bat jokuan,
goiz-aldera lotara
ler egindakuan;
Gabon ola izan da
oraindanoñokuan
maitasuna bizi dan
sukalde txokuan.

9

Arintzeko etxeko
gurasuen poltsak
egun oiek izaten
dira apraposak;
naiz gastatu izerdiz
egindako sosak,
geiago balio du
fameliko pozak.

10

Laister badatozkigu
Gabon da Eguberri,
mundu guziak daki
egun oien berri;
Belen'era begira
bear degu jarri,
Aurtxo bat jaioko da
guzien pozgarri.

11

Mundura ekarri nai
dezu ondasuna,
Zugan siñisten dunak
ai zer poztasuna!
Aur maitea, auxen da
eskatzen zaizuna:
emaiguzu pakea
eta osasuna.

12

Zoriona ekarri
dezaigun Aurtxuak,
alkartu senideak
eta gurasuak;
Berari otoitz egin
pameli osuak,
itzaltzeko munduko
gerrak eta suak.



*"Mundura ekarri nai
dezu ondasuna,
Zugan sinisten dunak
ai zer poztasuna!..."*

*(Donosti'ko San Bizente elizatik)
(Foto Arturo, Donosti)*

UZTAPIDE

Uztapide lagun aundia izan det nik. Urte askoan ibili gera erriz erri, ta gorabera asko ikusi degu.

Bertsolariak ere egun guztiak ez ditu izatén errexak eta gustokoak. Zer lagunartetan arkitzen dan ere, alde ederra dago, jaunak.

Jende bertsozalea bakarrik dagon tokian, ondo ibiltzen da bertsolaria; baño, batzuetan, tartean sortzen dira entenitzen ez dutenak edo ixilik egon ezin diranak eta olakoak ere.

Eta, ixiltasunik ez dan tokian, bertsozale aundi oiek aspertu egiten dira, ondo entzuten ez dutelako. Asko supritzen dute, ta bertsolariak ere bai. Pentsatzen du:

—Emen bertsoak ez ditek paltarik egiten eta alperrik ari gaituk! Obe diagu ixildu!

Oztu egiten da.

Uztapide umore ederreko gizona izan da, ta jendearekin kunplitzen dakiena.

Osasuna ere aberatsa izandu du beti, orain asko bajatu bazaio ere.

Alkarren zai ez degu denborik galdu beiñere. Ogei ta zazpi urtean ibili gera alkarrekin, da beti, joan bear zan tokira, izendatutako ordurako irixten giñan gu.

Batek edo besteak abixua artzen genduenean, azkar pasa alkarri, ta orduan izendatu nuntsu bilduko giñan: goizean bazan lana, goizean; eta, arratsaldean bazan,

arratsaldean. Baño esandako toki ta ordu berean bildu alkarrengana, bestela ezin bazan taxis bat artuta; baten zai bestea egotea aspergarria izaten baita.

Guk ola jokatu degu, eta beiñere ez degu asarre bat izandu alkarrekin.

Beste bat, Azpeiti'ko Jose Lizaso da zuzena ortan. Ark, itza ematen badu, an izango da agindutako orduan. Ta gauza ederra da ori.

Uztapide gizajoa gaixotu zala Donosti'ko Anoeta'n bertsotan ari zala jakin nuanean, pena ikaragarria artu nuan.

Urrengo egunean joan nintzan bixitatzera, ta etze-goan gizon alaia.

Baña esku onetan jarri zan da ondo arkitzen da gaur. Poz ematen du.

Leitza'n, nere omenaldikoan, asko supritu zuen. Bazkaltzera bildu giñanean, esan zidan:

—Estuasuna pasa al dek, Manuel?

Erantzun nion:

—Bete naiz oso!

Ta esan zidan:

—Ba, ez uan gutxiagotarako! Ni izan banintz ire tokian, gañezka egingo nian!


Ori da benetako laguna izatea.

Bertso auek berari jarriak dira.

*Uztapide ta Lasarte, Doneztebe'n, Naparroa'n
1971'an.*

*"Bertsotarako zu izan zaitut
nere gustoko laguna..."*

(Foto Arturo)



This page contains eight staves of musical notation in 3/4 time, key of D major (one sharp). The notation is as follows:

- Staff 1: G4 quarter, A4 quarter, B4 quarter, C5 quarter, B4 quarter, A4 quarter, G4 quarter.
- Staff 2: G4 quarter, A4 quarter, B4 quarter, C5 quarter, B4 quarter, A4 quarter, G4 quarter.
- Staff 3: G4 quarter, A4 quarter, B4 quarter, C5 quarter, B4 quarter, A4 quarter, G4 quarter.
- Staff 4: G4 quarter, A4 quarter, B4 quarter, C5 quarter, B4 quarter, A4 quarter, G4 quarter.
- Staff 5: G4 quarter, A4 quarter, B4 quarter, C5 quarter, B4 quarter, A4 quarter, G4 quarter.
- Staff 6: G4 quarter, A4 quarter, B4 quarter, C5 quarter, B4 quarter, A4 quarter, G4 quarter.
- Staff 7: G4 quarter, A4 quarter, B4 quarter, C5 quarter, B4 quarter, A4 quarter, G4 quarter.
- Staff 8: G4 quarter, A4 quarter, B4 quarter, C5 quarter, B4 quarter, A4 quarter, G4 quarter.



*Jose Lizaso, Lasarte ta Uztapide, Irun'en, 1970.
VII.1'an.*

(Foto César de Lera)

1

Aspalditxoan ixilik negon
penak ezin agertuan,
ainbat zergatik sufritzen degun
iñola ezin ulertuan;
Manuel, bertsoz zuregan nua
biotza ia lertuan,
soñez urruti banago ere
gogoz or nazu gertuan.

2

Ixilik zaude egun batean
gaixo bat sortu zalako,
animatikan sentitutzen det
lagun izan geralako;
ni ere triste naiz osasunak
laguntzen ez didalako,
mundu onetan gusto guziak
komeni ez diralako.

3

Beti bezela sendo joan arren
zere lan-aldietara,
bein Anoeta'n iritxi ziñan
une mingarrietara;
notizi ura eldu zanian
nere belarrietara,
berialaxe lertu zitzaidan
negarra begietara.

4

Uztapideren gaitza balitza
guk sendatu gentzakena,
seguru nago bertso kantari
berriz laister litzakena;
itz batzuetan zail da esaten
zer dan eman duen pena,
Euskalerriak urte batzutan
aztu ezin lezakena.

5

Arbol zarrari bein gaitza sartzen
bazaio bere zañera,
ostro berriak nekez etorri
oi dira aren soñera;
Manuel, ni're iritxia naiz
arbol orren tamañera,
zu ixiltzeak asko tristetu
ninduen lenaz gañera.

6

Kantari ziñan urretxindorra
bera dan bezin gozoa,
iturri bati ura bezela
sortzen zitzaizun bertsoa;
biotz ona ta zentzun aundia,
danera gizon osoa,
zure lan'gintza geldituko da
artxibuetan jasoa.

7

Ain osatua nola baitziñan
eztarriz eta zentzunez,
zu ixiltzea pena izan zun
erriak, esaten zunez;
amaik'euskaldun goxo egon da
zure bertsoak entzunez,
nola kantatzen zenduen beti
apal da gizatasunez.

8

Omenaldiak egin dizkizu
erriak bere ongi-naiz,
zeu ere pozik egongo zera
olako arrebaz ta anaiz;
zu ilda ere zure izena
paraje askotan da maiz
gizaldietan aitatuko da
ni deskuidatzen ez banaiz.

9

Manuel, zure ondora bildu
nintzan ni oso gaztetan,
gogoan daukat noiz asi giñan
aurrena alkar izketan:
Agoztuaren ogei ta lauan,
San Bartolome festetan,
lendabiziko bertso-saioa
egin gendun Amezketan.

10

Artean nola bainengoan ni
maixu jator baten paltan,
zeuk ez dakizu zer konsuelo
eman zenidan gau artan;
orduan oñez asi nintzan ni
lenengo bide-sendatan,
gizonak eztu proatu arte
jakiten bera zenbat'an.¹

11

Esan zenidan: "Jainkuak urte
asko ematen badizkik,
gure anaiak bertsoa pranko
entzun bearrak zioztik"
Orduan alkar billatu gendun
maitasunezko biotz bik,
Euskalerrian amaika saio
egin ditugu geroztik.

12

Geintsuetan nerea oi zan
asierako agurra,
berialaxe entzuten gendun
zure erantzun xamurra;
alde batera uzten zenitun
pereza eta bildurra,
erri bateri poz emateko
zuk izan dezu adurra.

¹ zenbat'an = zenbat dan.

13

Bertsotarako zu izan zaitut
nere gustoko laguna;
konfiantza da bearrezkua,
guk beti izan deguna;
alakor baten iritxi zaigu
bakartutzeko eguna,
onez aurrera izan dedilla
gure Jainkuak nai duna.

14

Jaio orduko egiñak giñan
gu euskeraren eredu,
bertsolariak bere bizitza
mendi-txorien pare du;
arren, euskera, indartu zaitetz,
egiten dizut erregu,
geu laister iltzen bagera ere
zu bizitzia nai degu.

OMENALDIA

(1975.III.2)

SARRERA

Milla bederatzireun irurogei ta amabostean, Epailaren bigarren egunean, omenaldi bat izan nuen nere sorterrian, Leitza aundian.

Egun gogoangarri bat. Nere bizitzan izan deten egunik aundiena; bataiatu ninduten egun aundiaren urrengoa, nere ustez.

Leitza'tik Jose Manuel Rekondo etorri zan, kotxe eder bat artuta, Orio'ra gure billa. Goizeko zazpirak laurden gutxiagotarako jo zituen gure etxeko ateak, eta esan zuen etzuela gau guztian lorik egin kezkarekin. Ori da biotzez sentitzea; ori da benetako lagun izatea.

Leitza'ko *Arakindegi* ostatuan gosaria prest jarria zeukaten gu joaterako, ta gosaldu genduan.

Txistularien kantu goxoak entzuten genituen jangelatik. An zebiltzan kale-jiran goizetik, egunaren alaigarri, udaberrian txoriak bezela.

Amarrak laurden gutxitan joan giñan erriko enparantzara, eta an zeuden gure zai erriko agintariak, txistulari ta dantzariak.

Ala, kotxetik atera nintzan orduko, Jose Maria Sagastibeltza alkate jauna etorri zan; eldu genion alkarri ta eman zizkidan bi musu aundi. Leitza'ko erri guztiaren izenean zirala esan zidan.

Bildu ziran kontzejal jaunak ere, denak beso zabalik artu ninduten. Alkar besarkatu genduan. Pozik jarri nintzan, erriko agintari jaun agurgarriak ala ikusi nituenean. Ta pentsatu nuan erri guztia nerekin zegoala.

Orain izenez esango ditudan auetxek dira Leitzako agintari jaunak: D. Jose Maria Sagastibeltza Saralegi, D. Frantzisko Aramendia Arluzea, D. Migel Zabaleta Lizarraga, D. Jose Fermin Lizarraga Alkoz, D. Juan Tomas Gogortza Saralegi, D. Migel Maria Largo Arraras, D. Jose Luis Aranjuelo Oraa, D. Roberto Sukuntza Zabaleta, ta D. Karlos Agirre Zubitur.

ELIZKIZUNA

Alaxe, abiatu giñan eleiz aldera, erriko dantzariak eta txistulariak martxa joaz aurretik genituela.

Sartu giñan eleizara, ta ikusi genduan dena leporaño betea jendez.

Alkate jaunak, elizan bera egoten dan jar-lekuan jarriazi ninduen, da bere bara nere aurrean jarri zuen. Begiratu zuen eliz guztira ta esan zidan:

—Au da edertasuna! Maite zaituzte, Manuel!

Antxe ziran erriko agintari jaun guztiak; baita bi diputadu ere: bat, Orio'ko alkate jauna, D. Jesus Maria Aiestaran; eta bestea, Naparroa'ko Elizondo'n bizi dana, D. Julio Iturralde.

Ala, asi zan meza nagusi ori, ta ura zan ikusgarria! Sei apaizek eman zuten: Orio'ko bikario jauna ere antxe zan, D. Bitorio Untzeta Barrenetxea; D. Migel Sagaseta jauna meza emale, ta besteak ari laguntzen: D. Jose Maria Aranalde, D. Juan Maria Lekuona, D. Jose Maria Azpiroz erriko semea, eta D. Antonio Zabala.

Bertsolari bi epistola irakurtzen: Basarri eta Lopategi.

* * *

D. Juan Maria Lekuona jauna, itzaldia egin zuena; goxo eta bikain egin ere. Ona emen bere itzak:

Senideok: Ara gu gaur emen zazpi probintzietatik etorriak, bertsolari bat gogoan arturik eta, bidezkoa denez,

bertsolaritza bera ere gogoan degula. Ara gu emen egun gogoangarri bati asiera emateko elizpe ontan bilduak.

Gizaldi batetik bestera ospatuko ziran, edo ospatu dira, eliza ontan, Kristoren babespean, gizonaren salbabidezko alderdiak: gizonaren jaiotza, ezkontza, eriotza. Eta gaur, iñoiz baño geiago festa-gai eta elizkizunaren mami, gizonaren osagarri diran baliorik sakonenak ere ospatzen ditugu: erria, etxea, sorterrria, izkuntza eta abar. Eta, balio auen guztien artean, gaur emen bildu geranoi dagokigun gertakari jator aberasgarria: ospatzen degu nolabait bertsolaritza.

Nere gaurko itzak eta gogoetak au dute beren elburu: Egin dezagun denon artean elizkizun onen ardatz eta mami bertsolaritza bera; eta bertsolaritzaren erlijio-alderdia emateko, ona nik gaur zuen artean artu dutan bidea: bertsolaria, iru itzetan esateko, espirituaren doai bat da; bertsolaria doai arrigarria da; ta gañera, azkenik, irugarrenez, bertsolaria erriaren serbitzurako emandako doai bat da.

* * *

Lendabizi, espirituaren doai bat. Irakurri dituzuten gaurko elizkizuneko gauzetan, espiritua aipatzen da maiz. Nik aipatu besterik ez ditut egingo bertsolaritzaren fruturik ederrenak. Bertsolaritza erriaren kantuzko itza da; bertsolaritza erriko sentipenaren agerpidea da: poza, kezka, maitasuna, ezin-beste, ametsa, itxaropena. Bertsolaritza gure buru eta biotza da nolabait. Bertsolaria erriaren esnatzalea da; kontzientzia, zuzentasuna, neurribidea eta —nola ez?— eragin-indarra.

Elizaren bizitzari bagagozkio, berriz, doai au berdin-berdin jo dezakegu espirituaren doai bezela. Bertsolaritzak eman du erlijio sentipenaren taupada luzea. Bertsolariak eman ditu erriaren debozioak, jaiarak. Eman ditu kristautasunaren gairik oiñarrizkoenak: Kristoren bizitza eta eriotza eta pasioa; santuen bizitzak. Eman ditu fedezko egia. Eman ditu erromesen ibillerak; batik-bat, Aralar-mendira edo Arantzazu-mendirako ibil-bideak. Festa-giroko gertakizunik nabarmenenak abestu ditu: eriotza, santa-eskea, jai bereziak eta festa buruak, auzoko oles eta elkar-agurtza guziak eman ditu. Eta, azkenik, gaur ikusten dezuten bezela, meza santuan eta liturjizkizunetan eskuartzen dute, denon baitako eragin ezkutua agertuaz.

Gure bertso-bilduma, Euskalerrian betidanik sortu dan bertso-pilloa, bertso-multzoa, gizaldiz-gizaldi egindako altxorra, ondare aberatsa, erentzi aberatsa dugu. Mendia bezain goiena eta itxasoa bezain zabala.

Eta ori guzia, esan dedanez, espirituaren eragin-indarrak jaso eta bildua degu; gure erriaren spirituak; eta,

jakiña, fedearen argitan gauzak ikusten ditugunontzat, Espiritu Santuak, munduko joera guzien eta eragin guzien suspertzalle den eta arnas-emalle den Espiritu Goienak. Espirituak sortzen du, sortu ere, gure bertsogintza, illunpean sortzen den su berria bezela; Espirituak biotz aulduaren barruan sortzen du bertsoa, arnas-bidea bezela; sortzen du, sastraka zaarraren azal biurrian kimu berria sortzen dan bezela.

* * *

Bigarren, bertsolaritza doai arrigarri bat da, erriaren maillan doai arrigarri, beste lekuetan galdutako kultura-tresna dalako; jakinduri zaarra dakarrelako, esaera biribilletan jantzia; guk odolean daramazkigun sena eta sentiera guziak, obetoen, argien eta bizienik agertzen dizkigulako; euskeraz pentsatu, euskeraz sentitu eta euskeraz gauzak aogozatzen degunen mintzo eta kantua dalako; guk bakarrik dakigun bertsogintza paregabea dalako; guri bakarrik dagokigun literatura-izaera oso-osokoa; gure ondarerik aberatsena, gure erentziarik jatorrena, bertsolari bakoitzaren maillan arrigarri.

Utzi ditzagun alde batera bertsolari bakoitzaren norberazko izaera eta bizitza, ta ar dezagun bertsolaria bera, batez ere erri-poesigintzak aditzera ematen diguna. Oietan guzietan den erri-arnasa ikusi egiten degu. Bertsolarietan sentitu egiten degu erria. Biozkada aundiko gizonen abotsa da oriena, eta begirada zorrotzeko gizonen itz argi eta bizia. Erriaren lekuko dira, testigu dira; erri xeearen bizi-tzaren adierazpena dira.

Ederkera aldetik bakoitzak dakar bere izketa apala, norberaren eskualde eta ballarako jeinuarekin eta tradizioarekin. Bakoitzak dakar bere iduriketa, bere konparaketa, bere musika zaarrak, doñuak, pentsakerak, bizitzeko egiturak, artzaintza eta baserria eta arrantzalea, bertso-eredu eta beste milla aberastasunekin; eta, jakiña, bat-bateko jardunerak dituen trebaketa eta zailtasun guziekin.

Itz batean, bigarren puntu au, entzuleok, bertsolaritza denoi barru-barrutik eltzen digun zerbait da; gure-gurea, gure barru-istoria, erlijio-mallan ospatzea dagokigun zerbait; gure gaurko festaren mamia, espirituaren doai betea, doai arrigarria.

* * *

Ta, azkenik, bertsolaria erriaren serbitzuko. Bertsolaria erriaren kantuzko aoa danez gero, erriaren iturritik artzen du bere ezea eta bere izerdia. Eta erriaren serbitzurako da, denen lagungarri. Euskalerrriak dituen joera baliotsuenen-

tzat, serbitzari leial eta apala da bertsolaria. Bertsolaria, erriak minberarik audienaz bizi dituen asmo, eskakizun eta jokabide bearrezkoenen deia eta erantzuna bezela da; erri-tasunaren, burrukaren eta anaitasunaren lekukoa, eragillea, bide-erakuslea eta eusgarria. Bertsolaria, bere ikusmen zorrotzean, baita ere gerokoaren bulkoa bezela da, gure biotzetan eragiña. Denen asmoak agertzen ditu; eta, kristautasunaren izenean emen bildu geranok, balio aundi bezela jotzen degu bertsolaria eta bertsolaritza; ikurrin bat eta sinbolu bat bezela dalako errigintzaren alorrean gure kantari-ek aditzera ematen diguten guzia.

* * *

Gaur, Manuel Lasarte'ren omenaldian, beronen jaioterri den Leitza'n, gogoan artzen dugu Espirituaren bertso-langintza, Espirituzko bertsolari-emaiza. Aintzat artzen dugu orrelako doaia; gure susmo zaarren agerbidea dalako, badugu uste on eta itxaropen eta esperantza etorkizunari begira.

Izan ditezela gure gizagintza jatorraren arnasa; egia eta zuzena eta maitasuna abestuko dizkigutenak. Kantu zaarraren moldeak eman dezaigula saiatzeko bidea; eman erriari azitzeko arnasa, munduko espirituari aurrerapidea eta giza-istoriari poesiazko ardatza; eta gizonen alkartasuna egin dezatela, eta kanta dezatela erri xeearen ziñezko azpi-azpiko egia. Kanta dezatela, beretik emanez, eriotza. Eta Pazkoaren misterioan, Garizuma-igande ontan, bakoitzak eta erriak bizi ditugun illundurak eta ezbearrak gaindituaz, eman dezaigutela egun bakoitzaren kanta, geroko etorkizunaren kanta, salbamenaren kanta, elizpe ontan gaur dagokigun eran, "Aita Jaungoikoaren argitan", amen.

* * *

Eskeintza iru bertsolarik egin zuten: Lazkano'k ogia; Agirre'k ardoa, ta Lazkao-Txikik arraia, bertso bikain askoakin.

Bertso oiek etziran noski nik orduan gogoan artu eta orain esan nezakhenak. Bestela ere banuen lanik aski egun ortan. Burua bete-betea neukan, eta biotza ere bai. Batenbateg magnetofonoz jaso eta etxera biali zizkidan erregalo; orduan ikusi nuen emen jartzea gauza egokia zala eta aue-txek dira:

Lazkano'k:

Zeruko Aita, tori ogia,
nere eskeintz berezia,



*"Andik atera bezin laister, joan giñan nere izena
eman zitzaion kale artara; kalea ta nere iduria
bedeinkatzera."*

(Foto Jabier Mujika, Leizta)

mezaren bidez egingo dana
Kristoren gorputz bizia;
ta nola dagon zure eskutan
gure izate guzia,
gose dutenei eman ogia
ta ogi dutenei gosia.

Agirre'k:

Gure artzai ona beriala da
guregana etorriko,
ta arrera ona guk egitea
nola etzaigu komeniko?
Gorputz t'anima oso-osorik
zein ez gera eskeñiko?
Beingo batean esan zuena
gogoan degu betiko:
Nere odoletik eraten duna
iñoiz ere ez da ilko.

Lazkao-Txikik:

O, Jaun aundia, arrai batzuek
eskeintzera nator Zuri,
gure artean izan ditezen
maitasunaren janari;
ogi ta arraiz egun batean
egin zenduen mirari,
gaur ere egin eta banatu
goseak dabiltzaneri.

Erriko txistulariak *Agur jaunak* adierazten zuten txistuz
dotore asko, ta erriko koruak abesten zuen goxo ta zora-
garri.

Edertasunik aundienean bukatu zan elizkizuna.

IDURI TA KALEA

Andik atera bezin laister, joan giñan nere izena eman
zitzaion kale artara; kalea ta nere iduria bedeinkatzera.

D. Jose Ruiz de Gordoia ta Quintana, Naparroa'ko
gobernadore jauna, inguratu zitzaigun bidean. Orduantxe
etorri zala esan zigun, da alkarrekin giñan kalearen da idu-
riaren bedeinkazio ortan.

Leitza'ko bikario jaunak bere lana egin zuenean, erriko
txistulari ta dantzariak saio bat egin zuten an bertan.



Franki baserria.

*"Ni erreka ondoan jaio nintzan; Franki'ko etxearen
ondotik pasatzen da erreka bat; esate batera,
etxea ukitzen duela..."*

(Foto A.Z., 1975.III.3)

Munduko gure jabetasuna erabiltzen du norbaitek, eta askotan gauzak etortzen dira beren bidera guk uste gabe, ta au ere ala gertatu dala uste det.

Ni erreka ondoan jaio nintzan; Franki'ko etxearen ondolik pasatzen da erreka bat; esate baterako, etxea ukitzen duela; ta orain Leitza'n, berriz, nere iduria errekatxobaten ondoan jarri dute. Orrek badu bere esan naia.

ITZALDIAK

Andik *Amazabal* pillota-lekura joan giñan. An baitzegoen beste jai-aldia.

Kosta zitzaigun barrura sartzen. Gu joaterako, dena betea baitzegoen jendez; ta kanpoan asko ta denak sartu nai. Ura zan komeria!

Ala, jai-aldiaren asieran esan zuten:

—Lasarte'ren alaba emen bada, igo dedilla tabladura!

Igo zan gure alaba, ta Leitza'ko alkate jaunak lore-sorta eder bat eman zion.

* * *

Lenengo itzaldia berak egin zuen, alkate jaunak, leitzar da kanpotik joan ziran guztieri eskerrak emanez. Etzuen luzea egin, baño itz gutxitan gauza asko esan zuen. Ango jendearen pakea ta umiltasuna ikusita, txoratzen zegoan. Biotza lertu zitzaion. Ni ere, naizen baño aundiago jarri ninduan. Auetxek izan ziran bere itzak:

Gure adiskideak: Gaur ikusten dezutenez, egun pozgarri bat ospatzen ari gera; egun berexi bat.

Ala dala-ta, Euskalerriko jende-talderik bikañena gaur Leitze'ko errian arkitzen da. Emen ikusten zaituztet argi eta garbi, alai eta tente, prest gurtutzeko gure erriko seme-txo bat.

Orregatik, Leitze'ko erriaren biotza lerturik geio ezinda, bere eskerra azaldu nai dizutet.

Baita ere gaur esan bearra: gu ezer ez gera! Zuek zera-te! Euskalerrria da!

Ongi etorri zuri, Manuel Lasarte, txintxo-txintxo zure erriaren deiari erantzun diozulako.

Ongi etorria, baita ere, zure lagun diran bertsolarieri, benetan maite zaituzte-eta.

Eskerrak biotz-biotzez gure Gobernadore Jaunari, euskaldun ben-benetakoa dalako; euskaldun zintzo bezela, Euskalerrria maite dualako.

Eskerrak Basarri jaunari, radio Loyola`ri, Donosti`ko eta Iruñe`ko periodisteri; ainbat lan egin dute gaurko pestaren alde.

Nola ez agurtu, nola ez eskertu Euskalerrriko Diputadu, apaiz, gizon eta emakume jatorreneri? Benetan gure erriaren eskerrrik beroena zuentzako da gaur.

Olaxe izan bear degu; era onetan jokatu bear degu; era onetan buruak altxa bear ditugu. Sinismena gure aurrean arkitzen baita.

Euskalerrria zer dan jakin nai badezute, begira gaur mesedez Manuel Lasarte`ri, onek zer edo zer badaki-eta zer dan Euskalerrria.

Ogei ta amar urte daramazki euskeraren muña bere bertso fiñ eta biguñarekin azalduaz. Ogei ta amar urte daramazki, lotsarik gabe sendo saiatuaz, bide zuzenetik ibilliaz, gure zeruan dagoan izar argitasun paregabekoaren atzetik: Euskalerrriko izarra!

Eta jokabide ortan itz txarrrik beiñere ez; lagun urkoari maitasuna beti; gure euskeraren egarria beti ase, eta gu zer geran eta nola geran bildurrik gabe erakutsi beti; eta bera sortu zan erria ez ukatu beiñere, baizik maite.

Eskerrak, Manuel! Zure erriak etzaitu beiñere ukatu; baiñan gaurtik aurrera, zure kale berexian pasatzekoan, zure irudia ikustekoan, otoitz egingo du:

—Au da gure erriko seme berexiena! —esango degu.

—Au baitegu gure semerik maiteena! —aitortuko degu.

—Au baita gure erriaren poza! —abestuko degu.

Eta gure semetxoeri eta gure gizaldi berriari, baita ere esango diogu:

—Zure erria maite nai badezu, zure erria altxa nai badezu, euskalduna benetan izan nai badezu... izan Manuel Lasarte bezela!

Eskerrik asko!

* * *

Urrengo, Aita Zabala jaunak egin zuen itzaldia, neri buruz. Itzaldi bikaña artxek ere. Nik merezi aña famatu nin-duela uste det. Onela esan zuen:

Jaun-andreak: Orain berrogei ta zazpi urte, Leitza`ko mendi-baserri batean, aur bat jaio zan, eta iñor gutxi enteratuko zan errian.

Gaur, berriz, erri guzia bildu da orduko aurraren goralpenez. Napparroa`tik ez-ezik, Euskalerrriko probintzi guzieta-

tik etorri da jendea. Kale berri bati bere izena eman diogu; beraren iduri bat jarri ere bai. Ta periodikuak-eta, gaurko pestaren aitamenak egin dituzte.

Zuek danok ere badakizute, nik bezin ongi, ori dana zergatikan dan; baña norbait bear omen zan, da ni izendatu naute gaurko omenaldiaren sustraiak adierazteko.

Aur baten biotza ta buruak, berezko doaiak izan ditzazkete, Jainkoak emanda. Ala ere, soro edo alor baten antzera oi dira: erein gabe, ez dute uztarik emango.

Ala, gure Manuel Lasarte'ren buru-biotzetan lenengo bertso-azia erein zuana, bere ama izan zan. Bertso zarririk eruz zekiana omen zan, da askotan kantatzen zituana. Amak kantatu ta semeak gogoan jaso.

Urrengo azia, Plazaola'ko langilleak erein zuten. Tren-bideko lanak bukatuta, kantinan sartu ta bertsoan asten ziran. Laixter oartu ziran, arritu ere bai, begirik itxi gabe, beren kantuari adi-adi egoten zan zortzi-bederatzi urteko mutiko artaz.

Bañan Leitza'tik Gipuzkoa'ko Aia'ra aldatu zan familia. Andik laixter erriko festak, eta Uztapide ta Basarri etorri ziran bertso tara. Berak etziran konturatuko, bañan egun guzian mutiko bat izan zuten, beren ondotik ezin apartatu zana.

Urrena, Aia'tik Eibar'era joan zan lanera. Ango lagunakin, tabernan-eta, jarduten zan bertsoan, ta Bizkaiko Zaldibar'en kantatu zuan lenengoz plazan, amazapi urterekin.

Beraz, Naparroa'n bertso-zaletu ta asi; Gipuzkoa'n trebetu eta Bizkaia'n lenengoz plazara azaldu. Asiera egokia, nik uste, Euskalerra guzian erriz-erri ibili bear zuan bertsolari batentzat.

Bertsolari baten lenengo doaia, lenengo oñarria, euskera da noski. Lasarte'rena nolakoa ote?

Jaioterrian, Naparroa'ko euskerarik onentxoenetako bat egiten dan tokian, gure izkuntzaz jabetu; Naparroa'ko euskera, gipuzkoeratik oraindik gutxi aldendua. Andik Gipuzkoa'ko euskerarik ederrenetako erri batera aldatu, eta ango izkera ere bere-berea egin.

Ain zuzen, orixe da Lasarte'k erabiltzen duan euskera: Leitza'koa. Aia'koarekin osatuta, edo Aia'koa, Leitza'koarekin aberastuta. Ta, nik esan bear banu, napar-gipuzkoera ori da bertsoan egiteko bikoterik bikañena.

Bañan Eibar'en-eta, Bizkaiko euskera ere bereganatu zuan. Ori asko ez balitz, soldaduzka muga ondoan serbitu zuan, Eugi'n, ta ango ta beste aldeko izkera ere ezagutu.

Ain zuzen, mugaz beste aldera igaro zan batean, Xalbadorrekin topo egin zuan, onen ardi-etxolan. Ta bat artzai-

jantzitan eta bestea soldadu-erropetan zirala, antxe egin zuten beren izketa-aldia, ta amaiketakoa ere bai.

Beraz, Naparroa'ko ixkiñ ontako eta Gipuzkoa'ko bealdeko euskera erabiltzen badu ere, Euskalerriko beste izkera geienak ezagunak ditu. Zabalera aundiko euskera, beraz.

Bañan zabala ezik, egokia, gozoa, aberatsa ta garbia ere bai; euskera jator-jatorra; benetakoa euskera.

Egokia ta gozoa dan jakiteko, prueba bat egin diteke: Lasarte'ren bertso bat, edozein, artu ta an esaten diranak beste itzekin jazten saiatu. Gero, obeki esana zein dagoan konparatu. Nai dan denbora guzia artuta ere, alperrik egiñala; ez da itz egokiagorik eta gozoagorik billatuko.

Ta aberatsa, garbia eta jatorra ere bai; benetakoa alegia. Aspaldi onetan, gure izkuntzaren jatortasuna aultzen ari ote zaigun bildur naiz; erderarekin kutsatzen ari, alegia. Oartu gabe, bi izkuntza oiek alkarrekin nastu egiten ditugu.

Lasarte oni, berriz, bertsoan ari danean, eta izketan ere berdin, euskera bakarrik ageri zaio; erdal kutsurik batere ez. Euskal esaerak, euskal sena, euskal biotza ta muña.

Lasarte'ren beste doai bat, bertso gintza dala esango nuke. Bertsoa bi gauzek egiten dute: neurriak eta puntuak. Neurria, esakizunak ainbeste silabetan sartu; orregatik esaten zaio itz neurtua. Ta puntua, erderazko *rima*, azken apaingarri ori, ots berdiñeko bukaera oiek.

Neurrian motx edo luze gelditzerik, ez du Lasarte'k egingo. Neurrian noizean bein utsegitea, gauza zalla ez da; ez utsegitea, gauzik zallena ta arrigarriena, ta ori da Lasarte'k egiten duana.

Bigarrena, puntua. Ontan ere, aberatsak eta pobreak izaten dira. Letra edo izki askorekin edo gutxirekin egiñak; somatzen errezak eta zallak. Puntua zenbat-eta aberatsagoa, ederragoa, beteagoa, zallagoa, bertsoa ere ainbat-eta gozoagoa, egokiagoa, eztiagoa ta atsegiñagoa izango da.

Ba, puntu aberatsik baldin bada, aberatsa orratik Lasarte'ren puntua. Iñork nundik eta nola ez dakiela, oso aurretik asten da Lasarte'ren puntua; bi eta iru silabarekin osatzen dana. Ta silaba oiek ez dira beti itz berarenak; bi ta iñoizka iru itzek ere osatzen dute alditan Lasarte'ren puntua.

Bañan aberatsa ez-ezik, ugaria ere bai. Lasarte'k ainbat puntu darabilen bertsolaririk, gutxitan agertu da Euskalerrian, ta aurrerantzean ere nekez agertuko.

Ta puntu herririk sortu ere bai. Alegia, bere aurreko bertsolariak iñoiz erabilli gabeko puntuak, berak lenengo somatu, bildu ta sartu oi ditu bertsogintzan.

Orregatik, neurrian xuxen ta juxtu, puntuetan aberatsa, zalla, ugaria ta berri-zalea, oiek dituana, besterik gabe ere, ez da nolanaiko bertsolaria izango.

Bañan bertsoa ez da puntua ta neurria bakarrik. Barrengo muña ere bear du; zerbait esan bear du.

Poetak, batez ere erri-poetak, bertsolariak diran bezela, bi eginkizun izan oi dituzte: bata, erriari erakutsi; bestea, erriaren sentimentuak mamitu ta esan.

Xenpelarrek, *Iya guriak egin du* asten diran bertsoetan, erriari erakutsi egiten zion; erakutsi, alegia, gerra-bidetik aldegin da pake-bidean jarrai zezan. *Bala bat sartu buruan, aspertuko da orduan...* zion, da esaera oietako bakoitza, oju bat da; eztarriko indar guziaz egiten dan deadar bat. Bear ere, ala bear zan orduan; bañan Euskalerrriak entzungor egin zion.

Lasarte`k ere badaki erakuspen ederrrik ematen; bañan beste era batera. Aren bertsoetan ez dezute oju ta deadarrik arkituko. Goxo ta legun sortzen zaio bere erakuspena, ta lore baten usaia bezin errez ta ezti sartzen zaigu.

Bigarren eginkizuna, erriaren sentipenak mamitu esan degu. Xenpelarrek, mutilzarren bertsoak jarri zituanean, erriak gizaki oien izaeraz eta bizimoduaz pentsatzen zuana adierazi zigun. Ontatik ere badu, asko gañera, gure Lasarte`k.

Edozein euskaldunek, ainbat aldiz pentsatu, sentitu ta itzez ongi jantzi ezin duana, bat-batetan Lasarte`ren bertsoetan mamituta arkitzen du. Ain zuzen, Euskalerrri guziak gizon au maite badu, alde batez beintzat orretxegatikan da; beraren pentsakizun eta sentipenen mamitzallea dalako; beraren ao ta migaña bezela dalako.

Ta ori dana, bai bertsoegintzan maixu ta bai erriaren erakusle ta ao izatea, guzizko apaltasunean eta erreztasunean.

Lasarte, teatro askotan kantatu badu ere, sekula teatrorik egin gabeko gizona degu. Txapela buruan, eskuak patrikan eta begiak auskalo nora begira dituala, ia arpegiko zañik mugitu ere gabe, beti serio, bertsoak iturriari ura bezin errex ixurtzen zaizkio. Beste batzuek, bertsoetan ari dirala, beren buruko kurpil guziak lanean gogor ari zaizkie-la ezagun dute. Lasarte`ren muñak ere lana egingo dute noski; diximulu eder askoan ordea. Entzuleak ez dio olakorik ezer sumatuko. Bai; benetan gauza zalla da Lasarte`ren erreztasuna.

Era orretan, len esan bezela, amazazpi urterekin asita, ogei ta amar urtean plazaz-plaza, erriz-erri ibili. Inñori lan gaiztorik jarri nai bagenio, bat beintzat onako au agindu genezaioke: gure Manuel onek zenbat plazatan, lagunarte, teatro edo bazkaritan kantatu duan izendatu ta kontatzea; alegia, zenbat aldiz erria serbitu duan; edo-ta zenbat bertso atera diran ao ortatik. Puska bateko lana emango genioke. Manuelek, ordea, kontatu edo izendatu ez; egin-egin du ori.



Mattin.

"Ondoren asi ziran bertsolariak neri bertso bana kantatzen..."

(Foto Jabier Mujika, Leitza)

Ta, gañera, urte askoan erdi gaixorik. Erriarenganako maitasunak eraginda, or ibili da batera ta bestera, bere buruarentzat batere errukirik gabe.

Bañan Euskalerrria gizon onekin zorretan bazegoan ere, ona gaur bere jaioterriak zor ori ordaindu. Orain arteko omenaldiak, aundizkientzako egiten ziran; orain arteko kaleak eta iduriak, geientsuenak beintzat, jauntxoentzat izaten ziran. Gaurko ontan, berriz gizon xume bati eman dizkiogu goralpen oiek danak.

Orain ia bi milla urte esan zan pobreak, umillak, otxanak, paketsuak, oiek izango zirala zorionekoak. Noizbait bear-ta, bide ortatik asiak gera. Gaurko festak ala adierazten digu. Ta lengoa baño zorion-bide ohea izango dala, dudarik ez da. Bejondaiola, beraz, Euskalerrri guziari eta Leitza'ko erriari.

BERTSOLARIEN AGURRA

Ondoren asi ziran bertsolariak neri bertso bana kantatzen: Basarri, Xalbador, Mattin, Gorrotxategi, Arozamena, Egileor, Etxeberria, Larrañaga ta Enbeita aita-sembleak, auek Bizkai'ko puntatik Leitza'raño etorrita. Etzuten gutxi egin.

Emen jartzen ditugu kantatu zituzten bertsoak, oiek ere magnetofonoz artuak:

Balentin Enbeita'k:

Egun on Jaunak, anai-arrebak,
aundi, txiki, zar ta gazte;
agurtzen ditut Leitza erria,
bere ongille ta alkate.

Omenaldi bat emen degu gaur,
omendu bear dezute;
omenaldi au aundia bada
ondo dauka irabazite.

Udaberriko urretxindorrek
pozten bagaituz ainbeste,
geio poztutzen gara kantuan
asten danian Lasarte.

Bertsolai aundi, izatez apal,
gizon, euskaldun gaur arte;
guk maite degu urretxindor au
Leitza'ko erriak beste,
urte askotan gure artian,
Lasarte, bizi izan zaite!

Basarrik:

Pozik mendia, pozik erria,
eguzkia dizditzari,
zeru ta lurrak, Manuel maite,
ongi nai dizute zuri,
beren omena eskeñi nairik
gizon baliotsuari;
emen jaio ta ekin zenion
zuk munduko bizitzari,
nere eskerrik biozkorrenak
Lasarte'ri ta Leitza'ri!

Arozamena'k:

Manuel maitea, nekez bada're
iritxi zaizu eguna,
danok dakigu aspalditikan
ondo merezi zenduna;
Jesus maitea, bertsolai batek
au da eskatzen dizuna:
Manuel Lasartei eman zaiozu
lenago zun osasuna.

Mattinek:

Agurtu nai det zelai eder au,
agurtu nai det mendia,
agurtu nai det Leitza ona,
paraje zoragarria,
gure Manuel lagun maitea
jaio izan zan herria;
zu omentzerat egun heldu da
euskaldun maitagarria,
anai-arrebak, onartzazute
nere ongi etorria.

Ion Enbeita'k:

Euskal kutsuko kabi sendoa,
zorunezko mendi-tarte,
asmatu bere eziñezkoa
aurrean ikusi arte;
zure bake ta euskal beroan
gaur artu nai nuke parte,
goratzen zaitut, Leitza erria
ta zure seme Lasarte.

Xalbadorrek:

Ikusten dezu, Manuel Lasarte,
maitaturik zabiltzala,
eta ni ere laguna nauzu

bertze askotxo bezala;
gaur agertzen da Euskalerrriak
gordetzen dautzun itzala,
gure Jainkoak urte askoan
ondo begira zaitzala.

Gorrotxategi'k:

Egun abetan egiten gera
egizko euskal senide,
probintzi guztietatik ona
bildu ainbat adiskide;
emen egiten zaizun omena
biotzez jaso ta gorde,
ainbeste urtean bertsoekgatik
egin dezun lanan orde.

Egileor'ek:

Anai-arrebak, aitortzen dizuet:
biotzez zaituztet maite;
txoko batian sarritan ez det
ikusi oinbeste jente.
Oraindik gure izkuntza eztabil
Euskalerritik aparte,
zorion beroz eskertzen zaitut
zuzen eta derrepente,
eta azkenez esker bero bat
zuretzat daukat, Lasarte.

Etxeberria'k:

Jaunak egun on esan bear det
ara orain zuzenian,
biotza lertzen jartzen zait neri
ontaritzen naizenian;
ni Oriyo'ko seme txar bat naiz
Lasarten aldamenian,
ezin ixilik egon niteke
ori or daguegian,
milla zorion, Manuel, zuri
Oriyo'ren izenian!

Larrañaga'k:

Ainbeste urte Euskalerrriyan
or dabil bertso-lanian,
argatik ainbat jende bildu da
gaurko bere omenian;
makiñatxo bat pozez utziya
bere bertso-jardunian,
parekorikan ez baidu izan
apal eta txukunian.

Uztapide nere lagun zarra ere ortxe zan. Etzuen kantatu. Badakigu ark ez daukala kantatzerik, gizarajoak, gaixo dago-ta.

BERTSO-SAIOA

Gero, bertso-saio osoa sei bertsolarik egin zuten, Jose Mari Iriondo jauna gai-jartzalle zutela: Agirre, Lazkano, Lazkao-Txiki, Lopategi, Azpillaga ta Jose Lizaso. Neri asko lagundutako gizona da Lizaso.

Bertso-saio ederra egin zuten; oso ederra ere. Bertso asko ziran, da ez dago emen danak jartzeko tokirik. Bakoi-tzaren bertso bana berezi degu, iduritu zaigun onenetako bana:

Lizaso'k:

Ementxe nator barrengo pozak
kanpora ezin botian,
da poztu nazu iduri ori
or ikustean kalia;
askoren famak izaten dira
sartu ta gero lurpian,
irekin beintzat oroitu dituk
bizirik agon artian.

Lazkano'k:

Lore on danak bakandu dira,
ugaldu zaigu sasiya,
eta ori da gure artean
ikusten dan desgraziya;
Lasarten gisan baratz orretan
erein zazute aziya,
iñork jarraitu nai baldin badu
or bada zer ikasiya.

Azpillaga'k:

Nik ere berdin agurtutzen det
aspaldiko lagun zarra,
malda auetan bizi izana,
ain bertsolari edarra;
gaur Gipuzkoa'k babestutzen du
baña jaiotzez leitzarra,
orregatikan deitzen diote
Naparrua'ko izarra.

Lopategi'k:

Ain zuzen ere izartxo batek
deitu zidan onuntz neri,
Zaldibar eta Gernika aldetik
dakarkit zenbait agiri;
milla zorion zuri, Lasarte,
adiskide maite ori,
t'aritz zarraren lore berriak
Naparru erri zarrari.

Lazkao-Txikik:

O, senideak, alde ontara
ekarri deguen poza!
Emen utzi nai degu burua
edo eztarriko boza.
Ikusitzen da, Manuelekin
dago Leitza'ko biotza,
zu jaio ziñan siaskatxo
oraindik ez dago otza.

Agirre'ri, sermoiaren gaia jarri zioten iru bertso kantatze-ko; oietako bat auxe izan zan:

Ni mezetan gaur izan naiz eta
pozak txoratutzen nago,
meza-denbora sarri etzat joan
nei gaur baño gustorago;
egiya esan, Lekuona ori
izlari ederra dago,
bertsolariak jaso gaitu gaur
merezi baño gorago.

ERREGALIAK ETA NERE BERTSOAK

Gero erregaliak jaso nituen: Leitza'ko alkate jaunak zillarrezko kopa zoragarri bat eman zidan, Leitza'ko erri guztiaren izenean; Jose Luis Aranjuelo jaunak, zillarrezko banda-ja eder bat, Leitza'ko *Papelera Sarrió*'ren izenean; eta Jose Manuel Rekondo jaunak, Lasarte apelidoaren eskudo edo arma-arri bikain bat.

Arma-arri ori omen da iru gizonen erregalia: Jose Manuel Rekondo, Blas Erbiti ta Jose Maria Sagastibeltza; oien iruren arteko erregalia.



*"Erregali oiek artu nituanean, nik ere eskertu nai
nuen, ba, erria, ta lau bertso moldatu nituen."*

(Foto Jabier Mujika, Leitza)

Erregali oiek artu nituenean, nik ere eskertu nai nuen,
ba, erria, ta lau bertso moldatu nituen. Onako auetxek dira:

Gaur erregaliz jantzi naute ta
pozik arkitzen naiz ziñez,
nik onenbeste merezi nunik
nago siñistu eziñez;
baño leitzarrak au dena egin
dute borondate piñez;
kezka bat daukat: zueri zorrak
nola ordaindu jakiñ ez.

Nere iduri bat ere or jarri
dute erriko kalean,
ongille denak eskertu naian
nabil iñundik alean.
Esan nezake: jaio nintzan lur
bedeinkatu zabalean,
bularra artzen ari naizela
gaur amaren magalean.

Ez nuen uste garai batean
malla ontan ibiltzia,
erri batean nere izena
ain aundi erabiltzia;
nik naiko nuke bizi naizela
zuekin sarri biltzia,
ta eriotza datorrenean
gorroto gabe iltzia.

Zalla da bertsoz adierazten
sentitzen dedan poz dana,
bakarrik ez da beiñere bizi
senide asko dauzkana;
agur, entzule maitagarriak,
ta agur, Leitza laztana,
Oriyo'n dezu zeure seme bat
zutaz aztuko eztana.

Gero izan zan gauza pozgarria: Napparroa'ko gobernadore jaunak euskeraz itzegin zigun, jaiari bukaera emateko. Esan zuen jarraitzeko bide ortatik, eta daneri eskerrak ema-



"Bazkalondoa ere ederra izan zan oso. Bertsolariak saio ederra egin zuten, da jendea pozik ikusten zan."

Argazkian: Lasarte'ren seme-alabak.

(Foto Jabier Mujika, Leitza)

naz agurtu giñuzen. Izugarri gustatu zitzaion Leitza'ko eguna, ta bertsolariak gogoz txalotzen zituen berak.

BAZKARIA

Bazkaria ere goxo askoa jarri zuten, ba, *Oialde*'n. Baziran janari ederrak, eta ardo onak ere bai.

Gero, danen osagarri, bi kaja txanpañ atera zituen erre-galo gure lagun zar Migel Pastain Leitza'koak.

Migel onek, nere iduria jarri duten kale artantxe du bere ardo-almazena. Baño, itxura danez, ez du ardoa bakarrik erabiltzen; txanpañak ere agertu ziran.

Bazkalondoa ere ederra izan zan oso. Bertsolariak saio ederra egin zuten, da jendea pozik ikusten zan.

Nere iduria egin zuen donostiar eskultore Lopetegi jaunak, egin zuen itzaldi eder bat. Eskerrak ematen dizkiot Lopetegi jaunari.

Eskerrak ematen dizkiet bertsolari jator guziera ere. *Amazabal* pillota-lekura sartu giñanean, an zeuden Uztapide ta Lizaso, ta biak musuka artu ninduten. Aien biotzak nerekin zeuden. Lagun aundiak izan baigera beti. Uztapideri negarra lertu zitzaion, gizajoari. Amaika bertso-saio egiñak gera alkarrekin!

Bazkalondoa, itzaldi egoki ta mamitsu bat egin zuen nere lagun zar Basarri jaunak ere. Eskerrik asko, Basarri. Badakit irratiz eta periodikoz lan asko egin dezula nere onerako. Eskerrik asko guztiengatik!

Gero, illunabarrean, *Basakabi*'ra joan giñan, aperi bat egiñez, lagun-sailtxo bat. An ere egonaldi bat egin genduan, da alako baten lotara Jose Manuel Rekondo' ren etxera.

FRANKI

Biamamonean, goizean jeiki giñanean, gosari ederra eman zigun etxeko andreak, eta Franki baserrira joan giñan, gure lengo sieska zarrari bixita egitera.

Ni seme-alabakin joan nintzan, da gure beste bi anai ere an ziran. Jose Manuel Rekondo'k eramane giñuzen koxearekin.



*"Biararmonean... Franki baserrira joan giñan, gure
lengo sieska zarrari bixita egitera."*

(Foto A.Z., 1975.III.3)

Aita Zabala ere an zan. Argazki edo erretratu batzuek ateratzen an ibili zan, erreka tarteko arri gañetatik eta abar.

Beste erretratista bat ere bagenduen: Jabier Mujika, leitzatar jator bat. Guk eraman-azi genduen ura, Frankia' ri ta mendi eder aieri erretratoak ateratzera.

Gure anai batek ala esan zuen, ango erreka ikusi zue-nean:

—Ementxe bi edo iru egun pozik pasako nizkikek arrantzazan kaña batekin!

Izan ere, arrantzale amorratua baita berez. Ark, mutil koskor-denboran, nunai amorraiak arrapatzen zituen eskuz ere.

Egun batean gertatu zitzaiona gogoan det oraindik ere.

Biok giñan, gazteak artean, da egualdi ederra zegoan oso. Sartu zan urean. Esan zidan:

—I egon adi or baztarrean! Arri-azpi ontan sartzan ikusi diat amorrai bat aundia, ta arrapatu bear diat!

Asi zan poliki-poliki arri-azpia miatzen, da esan zuen:

—Toki gutxi zeok emen, baño larri ibili bear dik, eskuz ukitzen diat-eta! Galanta dek iñundik ere!

Ala, an zebillen aztarka, ta alako batean esan zidan:

—Seguru diat! Buru aldetik arrapatu diat, eta iri botako diat orrera ta jaso!

Nun amorraia izango, sube zar aundi bat izan. Laister antz eman zion ikusi zuenean; baita utzi ere.

Nik entzun izan det subeak ez duela urean eltzen, da zerbait izango da. Bestela toki ederrean zebillen gizajoa!

Nik ez det apiziorik izan arrantzarako ta uretan ibiltzeko. Mutil koskorra nintzala, busti-aldi eder bat artu nuen bein, da geroztik or konpon!

An Frankia'n, etxe ondoan, zubi kalaxka bat bazan, da andik bera erori nintzan illunabar batean.

An Plazaola deitzen zitzaion kantina bat bazan, gure etxetik bertan. Ardoa saltzen zuten, eta anaiak bialdu ninduen marmita batekin ardo billa. Marmita koskor bat zan, lau edo bost litro kabitzen zituena.

Banentorren etxera, bera eskutik txintxilik nuela, ta ordurako oso illundua zegoan da oso denborale txarra. Izu-garrizko uraldiak ziran; ujalak.

Ta an erori nintzan zubitik bera putzura, nere marmita



"Barrura sartu-azi giñuzten, zerbait emanaz. An, salan, bada abe ikaragarri bat, eta aren ondoan erretrato bat atera zidaten..."

(Foto Jabier Mujika, Leitza)

ta guzti. Geiago ez nuen marmitik ikusi, ta neu ere ez nintzan nai ordurako atera errekatik. Pareta zar bati eltzea egokitu ta antxe salbatu bizia.

Etxera joan nintzanean, ama asi zan zer pasa zitzaidan galdezka, ta esan nion. Da anaiak esan zidan:

—Marmita ere galduko uan orduan?

Da esan nion:

—Bai, urak eraman dik; eta, ango ardoa bear badek, azkar ibili!

Alaxe gure Franki'ko istoriak.

Zuraje izugarria du etxe ark. Ura egin zuten garaian, bazan egurra nunbait.

Goizean gu joan giñan garaian, etzegoan etxean iñor. Ateak itxita zeuden, da gero etorri ziran, ardi-mordoxka bat aurrean zutela, orain bizi diran pamelikoak.

Barrura sartu-azi giñuzten, zerbait emanaz. An, salan, bada abe ikaragarri bat, eta aren ondoan erretrato bat atera zidaten, da olaxe gure kontuak.

Ni ara noizean bein pozik joaten naiz. Norbera jaiotako lurrak beti tiratzen du persona, ta askotan norberak uste baño geiago.

Askotan begiratu nion Frankia'ri egun artan, da azkenean, andik Leitza'ra joateko kotxean sartzerakoan, begiratu nion berriz eta esan nion ixiltasunean:

—Agur, ikusi arte!

LEITZA

Orain berriz ere Leitza'ra nijoa. Leitza da erri euskaldun zoragarri bat.

Ni, erriko pestetan, askotan izan naiz an bertsoetan, da arrigarria da ango jendearen zaletasuna. Antxe bai maite dituztela bertsolariak! An, bertso-jaialdi bat antolatu ezkerro, ez dago entzule-paltarik beiñere.

Andik beti pozik etorri izan dira bertsolariak, eta ez da oraingo oitura, ori; aspalditxotik lendik datorrena. Garai batean, Txirrita, Prantzes-Txikia, Pello Errota ta jende ori izaten omen ziran an. Leitza'k ogi asko eman dio bertsolariari.



"Leitza da eri euskaldun zoragarri bat..."

(Foto A.Z., 1975.III.3)

Euskeraz ere ongi itzegiten da Leitza'n. Oso izkuntza garbia ta ederra da Leitza'koa.

Argatik, ango jendeak errex jaten du bertsoa. An ez dago bertso txarra ontzat pasatzerik. Bertsolari denak maite dituzte an.

Nik ez dakit zenbat zor dioten Leitza'ko jende jatorrari. Joan zan urtean, udazkenean, an igaro nituen zortzi-amar egun, atsedenalditxo bat artzera joanda. Ta ez nuen lagun-paltarik izan.

Jose Manuel Rekondo orrek, nerekin ibiltzeko, artu zituen bere urteko jaiak. Berak erabiltzen ninduen kotxearekin, nai nuen tokira. Nik oraindik ez det olako taxistarik billatu: nai nuen toki guztira eraman eta ekarri, eta sosik kobratu ez.

Gañera, gastuak jaten da edaten egiten giñuzenak, berak pagatu bear derrior.

Lo ere bere etxean egiten nuen. Emaztea ere, uste det bere antzekoa duela. Emakume artxek badu borondatea, arranek ezik! Seme txiki bat dute. Oso pameli polita bizi dira.

Jose Manuelen guraso ta senideak ere ezagutzen ditut nik; pertsona on askoak neretzako beintzat. Baita osabak ere. Danen izenak etzaizkit gogoratzen orain esateko; bate-na esan nezake: Juan Rekondo. Ark beti zerbait eman bear izaten dit neri, Leitza'ra joaten naizenean. Denak dira biotz aundikoak oiek. Eta Leitza'n zein ez neretzako?

Jose Mari Sagastibeltza'k, uda azkenean an egunak igaro ta etxera itzuli bear nuen bezperan, *Basakabi*'ra eraman-azi giñuzen Jose Manuel da biok, eta apari galanta eman, dena berak pagatu ta kaixo, motell!

Nik auxe esan nezake zalantzik gabe: Leitza'n neretzatzako pertsona txarrik ez dala izan, ez zarrrik eta ez gazterik, beiñere orain artean.

*Arakindeg*i'ko Luisito, tabernako nagusi jauna ere, soldadu laguna det. Ondo ezagutzen degu alkar. Uraxe ere ez da famili aldrebesa neretzako. Beti zerbait emateko daude aiek ere. Biotz ona izatea da ori. Ta Leitza'n olaxe dira beste denak ere nerekin.

Oraingo omenaldi au ere ikusi egin bear zan. Erri guztiak artu omen du parte, nere iduria jartzeko ta neri erregali

zoragarri aiek egiteko. Nik nola eskertu nezake erri maitagarri au, naiz borondate ona eduki, merezi duen bezela?

Jose Mari Berasain jaunak, etxegintzan Leitza'n ari danak, jarri omen zuen, bere kontura, nere izena deraman brontzezko plaka eder ura. Eskerrik asko, lagun zarra!

Orain dala urte batzuek artu nuen beste omenaldi bat. Leitza'ko gazteak egin zidaten orduan; Juanito Lasarte jaunak eta bere lagun jatorrak. Juanito au *Caja de Ahorros*'en izaten dala uste det; an duela bere lantokia. Orduan ere artu nituan erregali polit askoak. Milla bederatzireun ta irurogei ta zortzian zan au, Otsaillaren emezortzian. Eskerrik asko, gazteak! Beñere ez naiz aztuko zuekin ere.

Beste lagun jator bat ere badegu Leitza'n: Pakito Zabaleta. Au, Yoandegi'koa izan bear du berez. Abogadua da, ta uste det Iruñe'n egiten duela lana; an duela bere despatxua. Leitza'ra bertсотara joaten geranean, jaun au izaten degu guri gaiak jartzen dizkiguna, eta egoki jarri ere gañera.

Sei omenaldi izan ditut guztira: bat Eibar'en; beste bat Donosti'n; beste bat Añorga'n; beste bat Tolosa ondoko Anoeta'n; da bi Leitza'n. Denak nik merezi baño obeak; baño azkeneko Leitza'ko au izan da nere biotza lertu duena.

Euskalerriko anai-arreba guztiak or zirala esan zitekean; Bidasoa'ren bi aldeetako senideak or bildu giñan. Eskerrik asko guztiori!

Orain liburu au eskeintzen dizutet. Gauza aundia ez da izango, baño borondate onez egiña bai.

Nik eskerrik asko esaten diet nere liburu au erosten duten guztieri; eta erosten ez duteneri, ez daukat zer gaizki arturik. Denak zerate nere adiskide.

Nik zalla det zuek ordaintzen, baño Jaungoikoak ordainduko zaituzte egunen batean. Auxe eskatzen diot Berari: Zuek denak eta ni artu gaitzala bere babespean mundu ontan da bestean.

Agur, leitzar maitagarriak, eta agur Euskalerrri guztiari biotzez!

ZER ESAN BEAR...?

Gure Jaungoikoak egun alai eta pozgarriak gizonari ematen badaki.

Gu bizi geran lur onetan, majiñatxo gora-bera izaten dira.

Egun illunak, egun tristeak, elkar-borrokak, bañan noiz edo noiz izaten ditugu, baita ere, egun atsegiñak.

Beiñere aztuko ez diran egunak. Gizona goran ikusten ditugun egunak eta era onetan, zer edo zer baita ere esan bear.

Nola aaztu; nola illunpean utzi, Martxoaren bigarren eguneko jaialdia ura. Leitzako erriak bere seme zintzo ta bikañenari egindakoa?

Nola ez azaldu, nola ez itz egin beiñ eta beti, aspertugabe, egun pozgarri artaz?

Bai, Leitzako erria txori kantaz esnatu zitzaigun. Zerua izarrez betea arkitzen zan eta zeruko izar nagusia, gure eguzkia, bizkor eta maitasunez beterik argi egin zigun.

Ez baitzuan utzi nai pesta ura. Egon nai zuan eta Manuel Lasarterekin izan nai zuan berarekin bat egin da.

Ura zan eguna. Ura zan pesta. Leitzako erriaren deiak erantzuna bereala arkitu zuan eta millaka eta millaka jende argitu ziran, pesta ura, denak alkarturik, Manuelek bere bizi guztiko egunik atsegiñena eta alaitsuena izan zezan. Baita izan ere.

Naparroako agintari nagusia ere etorri zitzaigun. Berarekin batean baita ere Diputaduak. Emen ziran, Iturralde Jauna Naparroatik eta Ayestarán Jauna Gipuzkoatik.

Agintari asko ere etorri ziran. Baita ere Euskalerriko ainbat apez bikain eta zintzo.

Zazpi probintzitako jende taldea etorri zan. Euskal erria, ber-bera zan eta denan erdian, an ikusten gendun gure Manuel Lasarte. Leitzako semea. Euskalerriko izarrik bikañena. Bertsolaririk jakintsuena eta garbiena, eta berarekin batean bere lagun ainbat bertsolari jator eta maitagarri diranak, Uztapide Jauna gidari zutela. Leitzeko erriak bere kalerik politena eskeñi dizu.

Bereala zure irudia jarri dizu, eta sekulan ezta aaztuko zutaz.

Aiñ ona izan baitzera. Ala maite izan baitezue zure erria.

Ala altxa baigaituzu eta, guk ere, era berean zu, altxa egin nai; beti betiko gure maixu eta zuzendari izatea nai, egun batean zorrik arkitu ez dezagun.

Bearrezkoa zan eskeintza au egitea. Eta ez det uste Manuel Lasartek beiñere aaztuko duanik.

Bost milla gizon-emakumearen eskeintza artu bear izan du zendun eta goizetik arratsera, arnasa bat bakarra izan zan, maitasunaren arnasa, eta Manuel Lasartearen biotza aundia baitzan ere, orain ikusiko du bere biotza, euskalerriko biotz ber-bera dala! KAXO MANUEL!



*Ezkerretik: Uztapide, Jose Maria Sagastibelza-
leitza'ko alkatea, Lasarte ta Jose Manuel.*

(Foto Jabier Mujika), Leizta

Nik denak eskertu nai ditut. Leitzako erriaren izenean,
txalotu egin nai ditut onera etorri ziranak eta etziranak.
Ikusita baitago denak maite dutela Manuel Lasarte.

Eta, zuri Manuel zer esan?

Bi itz bakarrik: MAITE ZAITUGULA BENETAN ETA
BIOTZ BIOTZEZ.

Sagastibeltza eta Saralegui'tar
Joxe Mari.

NERE ESKERRIK BEROENAK

A musical score for the piece "NERE ESKERRIK BEROENAK". The score is written on eight staves in a single system. The key signature is three flats (B-flat, E-flat, A-flat), and the time signature is 3/8. The melody is written in a treble clef. The notation includes quarter notes, eighth notes, and dotted notes, with some notes beamed together. The piece concludes with a double bar line.



Leiza

*"Maite gaituzten soro zelaiak,
erreka ta mendi-gañak,
oraindik ere berekin ditu
Leitza'ko erri bikañak..."*

·(Foto A.Z., 1975.IV.27)

1

Maite gaituzten soro zelaiak,
erreka ta mendi gañak,
oraindik ere berekin ditu
Leitza'ko erri bikañak;
anguak ziran guraso zarrak,
gure arbolaren zañak,
argatik eman nai nizkioke
maitasunaren ordañak.

2

Ama on batek bulartsu azi
ninduen bere besoan,
lendabiziko bertsotan asi
nitzan ni Franki-basoan;
Leitza'n zillarrez or jantzi naute
lengo sieska gozoan,
egun oberik ez det izan nik
nere bizitza osoan.

3

Lur maite artan jaio nitzala
beiñ ere aztuko etzat,
argatik daukat Leitza'ko erria
lore guzien loretzat;
maitasunikan beroenean
gorde nau bere semetzat,
au baño gauza aundiagorik
zer izan leike neretzat?

4

Udaberrian txoria nola
biltzen dan bere kabira,
maitasun berak narama ni're
neu jaio nitzan errira;
nere begien ispiritua
beti bizi da begira
lenengo argia ikusi zuten
sieska maitagarrira.

5

Kale berri bat an jarri dute
nere izena emanda,
nere iduria siñalegarri
jardintxo batean an da;
Leitza'k nigatik egin duena
geiegizkoa izan da,
ori ez dago ordaintzerikan
eskerrik asko esanda.

6

Iturritxo bat bezela sortu
zan Leitza'n gure odola,
au bizirikan geran artean
ezin ukatu iñola;
badakizute nere ordezeko bat
kale berrian dagola
ark esan nai du ni're biotzez
beti zuekin nagola.

7

Nunai badira persona piñak
da biotz onetakoak;
auek barrengo itzak dira, ez
axal da brometakoak;
nik maite ditut Euskalerrian
probintzi denetakoak,
baño leitzarrak zerate nere
senide benetakoak.

8

Erreka ondoan jaio nitzan ni,
ez naiz esateko lotsa;
nere iduriak entzungo ote du
ondoko errekaeren otsa?
Leitza'ko erria, zuk neretzako
ez dezu maitasun otza,
zillarrez jantzi ninduzunean
ostu zenidan biotza.

9

Leitzatar denak maite ditut nik,
iñor ezin det berezi;
nere barrengo sentimentua
nai nuke adierazi:
guk egin bear degun gauza da
alkar maitatuaz bizi,
gure arteko anaitasunak
ez du galtzerik merezi.

10

Biotz-biotzez eskertzen ditut
erriko agintariyak
ta gañontzeko anai-arreba
zintzo eta ugariyak;
zuek ikusi-zale dauzkat nik
biotza eta begiyak,
guztiok ongi izan zaitezte
leitzatar agurgarriyak.

IDURIA

A musical score for the piece 'IDURIA'. The score is written on eight staves of music, all in treble clef. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 3/4. The melody consists of eighth and quarter notes, with some notes beamed together. There are several accidentals, including sharps and naturals, throughout the piece. The score ends with a double bar line on the eighth staff.



*"Ala bearrez orain badiat
bixki lagun bat berriya..."*

(Foto Jahier Mujika, Leitza, 1975.III.3)

1

Ala bearrez orain badiat
bixki-lagun bat berriya,
itxuraz ez aiz ederra baño
neretzako pozgarriya;
or gelditzen aiz jardin batean
nere òrdezko jarriya,
zaindu zak zintzo kale ori ta
maita zak gure erriya.

2

I or txutikan agon artean
eusker ari dek lanean,
aurtxo txikiak or jolastuko
baidituk aldamenean;
nik mundua utzi bearko diat
Jainkuak nai duanean,
ik esango dek Lasarte zein zan
ni lurpera nuanean.

3

Anai bixkia, gu mundu ontan
pekatari gaituk danak,
Jaungoikoaren aurrean orrek
emango zizkiguk lanak;
amar agindu dituk guretzat
Berak jarri zituanak,
ik bete itzak, al baldin badek,
nik bete ez ditudanak.

4

Anai bixkia, au erakutsi
nai nitek bizi naizela;
Jesukristo're eriotzean
maitasun-eskean zela;
maita zak Leitza ni leitzatarrak
maitatu nauten bezela,
agindurikan premizkoena
or galduko dek bestela.

LIBURU AU ZARAUTZ'KO ITXAROPENA ETXEAN
EGIÑA DA. ● MOLDIZTEGI-LANAK
1975-9-15'AN BUKATU ZIRAN



1009166

B0-2142

